goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-01-11
EGUBAKOITZA
536. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

ENEKO AZKARATE

"Gatazkaren ondorioei irtenbidea topatu nahi diegu eta presoen aferari konponbideak eman"

Gaizka Azkarate | Herrira taldeko kidea | 10

Huhezinemak 4.000 euro banatuko ditu saritan VI. edizioan | 33

Zer proiektutan inbertitu bozka daiteke Eskoriatzan | 24

Blues txapelketan parte hartuko du Belcebluesek Memphisen | 31

Mondra futbol taldeak mendeurrena ospatuko du

Club Deportivo Mondragon moduan sortu zen 1913an | 28

1983ko jokalari batzuk. | MONDRA

Monologo barregarri onenak, Espaloira | 32

Arrasateko udal aurrekontua, iazkoa baino %3,7 txikiagoa

Udalak 33,5 milioi pasako aurrekontua onartu du | 13

BESTE 100 URTE HARTZEKO GERTU

Bergarako Zabala farmaziak 100. urteurrena du abuztuan. Garai hartan herrian zeuden hiru farmazietatik zabalik dirauen bakarra da; betiko leku berean, eta familia berberarekin: gaur egungo farmazialarien aitaitak ireki zuen, etxebizitzako behealdean, Barrenkalean. Hamaika anekdota bizi izan dituzte; eta 14 aldiz sartu zaizkie lapurrak. Gaurko arduradunak "ahalik eta denbora luzeenean jarraitu" nahi dute. | 11

Goian, Jon eta Iñigo Zabala eta Mari Carmen Puy; behean, mende hasierako argazkia. Biak daude botikaoste berean eta mahai berarekin aterata.

SINADURAK

Larrosin (637m) | 6
JUAN MARTIN ELEXPURU

6 | **Lehen harro bazeuden, orain...**
GOIATZ ARANA

Balkoiko aldarrikapenak | 25
PATXI OLABARRIA

40 | **Oñati garaile**
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 3 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 10 | HERRIAK 12 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36 | EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

Jean Louis David
Ile Apain

Urtarrilaren 7tik otsailaren 28ra
Astelehen, astearte eta asteazkenetan

%20ko
deskontua ile-apaindegian*

Ibargarai 43 - Bergara • 943 76 22 48
www.jeanlouisdavid.com
Astelehenetik Ostegunera:
09:30 - 12:00 / 15:30 - 18:30
Ostirala: 09:30 - 18:30
Larunbata: 08:30 - 12:30

*Deskontuak ez ditu produktuak barne hartzen.

WOK
zabaldu berria
Arrasaten!

Menua, postrea barne.
10 menu hartuta, 1 DOAN

BEREZITASUNAK
- Itsaski-janak
- Frijituak
- Plantxa
- Sushia
- Parrilladak

SHENG XING YUAN
943 79 90 29 / 629 41 59 58
Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab.
San Andres auzoa.
ARRASATE

zatoz ikastolara!

matrikula epea zabalik

urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

HEZKUNTZA PROIEKTUAREN AURKEZPENA

JOSE ARANA	urtarrilak	**15**	18:00	Eskoriatza
BASABEAZPI	urtarrilak	**16**	18:00	Aretxabaleta
UMEZAINTZA	urtarrilak	**17**	18:00	Arrasate
SANTA TERESA	urtarrilak	**22**	18:00	Arrasate

Arrasatekoentzat

BILERA INFORMATIBOAK

OLARTE	urtarrilak	**22**	18:00	Arrasate
URIBARRI	urtarrilak	**23**	18:00	Arrasate
UMEZAINTZA	urtarrilak	**24**	18:00	Arrasate

ATE IREKIAK

BASABEAZPI	urtarrilak	**24**	18:00-19:30	Aretxabaleta
JOSE ARANA	urtarrilak	**29**	18:00-19:30	Eskoriatza
SANTA TERESA	urtarrilak	**29**	17:00-18:30	Arrasate

LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

HEZKUNTZA PROIEKTUAREN AURKEZPENA

ALMEN	urtarrilak	**21**	18:00	Eskoriatza
ARIMAZUBI	urtarrilak	**23**	18:00	Arrasate

ATE IREKIAK

SANTA TERESA	urtarrilak	**29**	17:00-18:30	Arrasate
ARIMAZUBI	urtarrilak	**30**	17:00-18:30	Arrasate
GAZTELUONDO	urtarrilak	**31**	17:00-18:30	Arrasate
ALMEN	otsailak	**2**	16:30-18:30	Eskoriatza

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

SANTA TERESA	urtarrilak	**24**	18:00	Arrasate
GAZTELUPE	urtarrilak	**30**	18:00	Arrasate
gaztelaniaz	urtarrilak	**31**	18:00	Arrasate
ALMEN	urtarrilak	**31**	18:00	Eskoriatza

GIZATASUNA LANEAN MONDRAGON

ikastolenelkartea

informa zaitez
943 77 20 25
www.arizmendi.eu

arizmendi ikastola

Europara zorte bila doazenek gida-liburua dute eskura

'Europa helmuga' liburua gomendatzen du Arrasateko gazte bulegoak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ikasketa, lana edo esperientzia berriak aurten Europako Batasunean topatu gura dituenari lehen pausoa samurtzeko argitaratu berri du Eusko Jaurlaritzak *Europa helmuga* delako gida-liburua. Oraingoz, Internetez bakarrik dago eskuragai, eta doan da. Norberak bere kabuz kontsultatu dezake, baina, laguntzarik behar badu edo aurrez aurre azalpen gehiago jaso gura badu, horretarako gertu izango da Dorleta Kortazar Arrasateko Gazte Informazio Bulegoan. Berak oso gomendagarritzat dauka gida hori: "Oso informazio osatua dakar eta oso gida-liburu ona da: Europan eskaintzen diren programak, hizkuntzak ikasteko baliabideak, lana nola topatu... hori eta gehiago dakar".

Gida-liburua Europan aditu den batek, Andujarko Udaleko (Jaen) Antonio Jesus Rodríguez Martínezek egin du. Udal horretan Europako Proiektuen gaineko teknikaria da, eta Gazteen Euskal Behatokiak azken urteotan egin duen lanaren emaitzak batzen ditu Europa helmuga gidan. Euskadiko gazte teknikariei ikastaroa eman zien Rodriguezek, gazteei interesatzen zaien informazioa eta kanalak kudeatzeko.

Gida-liburua hemen dago: *www.gazteaukera.euskadi.net*; bestela, jo Arrasateko gazte bulegora (943 25 20 65).

Gazte batzuk, Alemaniako enplegu-zerbitzu bulego baten aurrean. | DOMINIQUE LEPPIN/DPA

Gero eta berdinduagoa

Europako Batasuna gero eta trinkoagoa eta berdintsuagoa da, eta horixe islatzen da *Europa helmuga*-n. Dorleta Kortazarrek honela azaldu zion Aitziber Aranburuzabala kazetariari irratian: "Europako politikak gero eta bateratuagoak dira; Bolognarekin, Europako eremu guztirako hezkuntza sistema bateratua bilatu nahi izan da, eta lan merkatuarekin gero eta gehiago ikusten da hori".

ESANAK

"Oso gida-liburu ona da eta bulegoan horixe erabiltzen dugu"

DORLETA KORTAZAR
GAZTE-INFORMATZAILEA

Informazioa ematen du eta gehiago non topatu esaten du

ELKARLANAREN EMAITZA

2010ean Gazteen Euskal Behatokiak egindako ikerlan baten, agerian geratu zen Euskadiko gazteak gertu zeudela atzerrira lanera edo ikastera joateko.

Urte berean, nazioarteko mugikortasunerako tresnei eta baliabideei buruzko ikastaroa eman zuen Behatokiak. Irakaslea Andujarko Udaleko Antonio Jesus Rodriguez Martinez izan zen. Ikastaroko materiala gida-liburuan batzeko eskatu zion Behatokiak.

INTERNETEN BILATZEN JAKIN

Europako Batasunean ibiltzeko baliabideei buruzko informazio praktiko eta zabala gazteen, profesionalen eta familien esku ipintzen du *Europa helmuga*-k. Dorleta Kortazar gazte-informatzaileak dioen moduan, "gaur egun ia dena Interneten dago, baina bilatzen jakin behar da". Interneteko bilaketak "ordenatu eta bideratu" ditzakeen gida-liburua izan nahi du *Europa helmuga*-k.

ZIRKULAZIO ASKEA

Gida-liburuak gogora ekartzen duenez, Europako Batasuneko herritarrek "EBko edozein herrialdetan bizitzeko, lan egiteko, ikasteko eta erretiroa hartzeko eskubidea dute".

AUKERA BERBERAK

Datu batzuk ematen ditu gidak: dagoeneko 2.000.000 gaztek ikasi dute atzerrian Europako Batasuneko programekin; euroa da Europako Batasuneko biztanleen bi herenen moneta, eta zabaltzen jarraituko du; Europako Batasunaren Zuzenbideak aukera berdintasuna onesten du sexu, arraza, ezintasun, nazionalitate edo beste faktore batzuen gainetik...

IKERKETAN GEHIAGO INBERTITUKO DA

Krisiak Europako Batasuna astindu duen arren, "Europak lanpostu berriak eta lanesku kualifikatua behar" dituela dio gida-liburuak. "EBko zuzendariek aurreikusi dute ikerketarako gastua nabarmen handitzea, 2020rako BPGaren %3ko helburua ezarriz". Gaur egun ere, EBren aurrekontuaren herena (urteko aurrekontuko 130.000.000.000 euro) eskualde pobretuetan enplegua sortzera eta inbertsioa erakartzera bideratzen da.

ETXETIK HAS DAITEKE

Lana topatu nahi duenari, etxetik, atzerrira joan aurretik, bilatzen hastea gomendatzen dio *Europa helmuga*-k. Horretarako, Eures lan-mugikortasuneko ataria bisitatzea gomendatzen dute (*ec.europa.eu/eures* da Interneteko helbidea). Han, lan-eskaintzak, herrialde bakoitzeko bizitza eta lan-baldintzen gaineko informazioa, loturak... daude.

Eures aholkulariak daude herrialde guztietan. Gida-liburuak Euskadiko aholkularien kontaktua ere ematen du. Hori da bide bat; beste bat, harrera-herrialdeko enplegu-zerbitzu publikoarekin kontaktuan jartzea.

Lana topatzeko beste aukera batzuen berri ere ematen du *Europa helmuga*-k.

Europa helmuga-ren azala. | GOIENA

TITULUAK HOMOLOGATU

Europako Batasuneko herritarrek modu librean zirkulatu dezakete EBko herrialde-kideetan. Europako herritar batek beste herrialde baten lan egin dezake edozein lanbidetan, nazionalen arau eta muga berberekin eta jatorrizko herrialdean duen ikasketa-tituluekin. Dena dela, zenbait herrialdek tituluak, diplomak eta kualifikazio espezifikoak eskatzen dituzte. Kasu horietan, norberaren tituluak eta ziurtagiriak harrera-herrialdeko estatuak onartu ditzan eskatu behar dela ohartarazten du gida-liburuak.

Horrekin lotuta eta homologazioa samurtzeko, Europass izeneko agiri bateratua sortu du Europako Batasunak. Horren gaineko informazioa ematen du Europa helmuga-k. Norbere heziketaren, hizkuntza-gaitasunen... berri ematen du Europass agiriak.

OSASUN ESKUBIDEAK

Zenbait eskubideren gaineko zalantzak erantzun dituzte egileek. Esaterako, Gizarte Segurantzaren onuradun denak Europako Osasun Txartela lortu behar du atzerrira joan aurretik. Osasun-prestazioak jasotzeko txartelaren titularraren eskubidea aitortzen du horrek, Europako Esparru Ekonomikoko herrialde baten edo Suitzan aldi baterako dagoen bitartean. Hala ere, herrialde batzuetan, mediku-kostu osoa edo horren zati bat norberak ordaindu behar du. "Oso garrantzitsua da ordainagiriak eta fakturak gordetzea, ondoren dirua itzul diezazuten", esaten du gida-liburuak.

ERASMUS ETA GEHIAGO

Europan ikasi gura duenari begira, Europako Batasunaren ikasketa-esparru bateratuan dituen aukerak laburbiltzen ditu gidak: Leonardo da Vinci, Erasmus Mundus eta Erasmus programa ezagunak, beste batzuen artean, eta horien gaineko informazioa lortzeko Interneteko loturak.

BESTE AUKERA BATZUK

Europara irteteko beste modu batzuk ere azaltzen ditu *Europa helmuga*-k: boluntario gisa, Europako erakundeetan praktikak egitera, au-pair gisa, oporretan lan egitera... Eta, behin atzerrian, Europan dauden sareen berri ematen du: informaziorako, lana bilatzen laguntzeko, tituluak homologatzeko...

Hiru milioi euro txikiagoa da aurten Mankomunitatearen aurrekontua

- Debagoieneko Mankomunitateak 11 milioi euroko aurrekontua onartu du abendu amaieran
- Aurrekontuaren %70 Ingurumen Sailarendako izango da, atez atekoa dela-eta

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

11.036.231,45 euro. Horixe da Mankomunitateak 2013an izango duen aurrekontua, iazkoa baino hiru milioi euro txikiagoa, edo bestela esanda, %21,60 txikiagoa.

Abenduaren 27an egindako batzarrean eman zioten onespena. 11 udal ordezkariren artean, bakarra abstenitu zen: Oxel Erostarbe, Elgetako alkatea; gainontzekoek alde bozkatu zuten.

Orokorrean begiratuta, aurten hondakinen atez ateko bilketaren ezarpena izanda ("Mankomunitateko herrien erdiak atez ateko bilketa izango dute apiriletik aurrera aurreikuspenen arabera"), Ingurumen Sailarendako izango da diru partidarik handiena: %70 (iaz, Epeleko lanak kontuan hartuta, %81 izan zen partida hori).

Hain justu ere, Mankomunitateko aurrekontuen memoriaren arabera, gastuei dagokien "bigarren kapituluan atez ateko bilketa kostuen igoera da aipagarriena, amortizatutako bi langileen lehen kapituluko aurrezpenak bilketa kostu hauen handitzea ere azaltzen duen arren. Honez gain, bilketa sistema berriak dakarren zenbait ezarpen gastu ere badaude, ontziak, poltsa konpostagarriak, parte-hartze prozesuak...". Orokorrean, %18,60 handitu da kapitulu hori. Zenbakitan begiratuta, 6.634.196,80 euro bideratuko dituzte gastu horiei eta bestelakoei (Lanbide Hastapeneko azpikontrata...) aurre egiteko; gastu arruntendako, horrenbestez.

Langilea hondakinak batzen, Antzuolan, atzean atez ateko zintzilikarioak dituela. | MAIDER ARREGI



Inbertsio gutxiago

Edozelan ere, sarreretan ere igarriko da atez atekoaren ezarpena: "Sarreretan aldaketak bortitzagoak dira kapituluari begiratuz gero. Salmentek nabarmen egiten dute gora atez ateko ezarpenari esker, nahiz eta 3. kapitulu honetan dauden Epeleko tasek %6 behera egin dutela kontuan izan". Zenbakitan begiratuta, tasa eta bestelakoei dagokien kapituluak ekarriko du igoerarik handiena: iazko 1.291.547 eurotik 1.527.078 eurorainokoa; %18,24koa, hain justu ere.

Bestalde, aurrekontuaren kopuru orokorraren "jaitsiera nabarmena inbertsioen gutxitzeek dakarte, lau milioi euro gutxiago erabiltzea aurreikusi baita. Epeleko obra (2,8 milioi) esleitua, martxan eta udan amaitzekotan dago, bestalde, eraikin berria (1,3 milioi) 2016ra atzeratzea erabaki da, finantza merkatua egonkortu arte".

Partida handiena: ingurumena

Sailen xehetasunei dagokienez, besteak beste, Ingurumen Sailari bideratuko diote Mankomunitatearen diru-partida handiena: aurrekontuaren %70; zenbakitan begiratuta: 8.327.516,43 euro.

Kopuru horretatik 6.967.967,77 euro bideratuko dira hondakinen zerbitzura. Hain zuzen ere, 1.654.758,71 euro izango dira hondakin selektiboendako eta gainontzeko 5.313.209,06 euroak, hiri hondakinen zerbitzurako.

Hondakin selektiboetan, gora

Hondakin selektiboen sailari dagokionez, aurten ia milioi erdi handituko da aurrekontua: 491.964,73 euro. "Pertsonal aldaketek hemen dute isla. Inputazio berriek eta langile berriek hondakin selektiboetan eragiten dute. Gastu arrunten igoera bilketa berriaren ezarpenagatik da nagusiki. Aurrekontuak 490.000 euro gora eta ekarpenek 221.000 euro gora, igoeraren %50etik gora sarrera berriek finantzatzen duten erakusle".

Hiri hondakinetan, behera

Hiri hondakinen sailari dagokionez, berriz, kasu horretan jaitsi egiten da aurrekontua. Memoriak dakar azalpena: "876.000 eurotan murrizten da aurrekontua orotara, inbertsioen jaitsieragatik da, hauek, 1.265.000 euro gutxiago baitira, lehen esan bezala, eraikina 2016ra arte ez delako egingo".

Nabarmena da, baita ere, Epeleri dagokion aurrekontuak izango duen jaitsiera: 2.755.400 eurokoa. Arrazoia, bereziki, honako hau: "Iazko aurreikusi zen obra martxan dago eta 2013an zehar amaitzea espero da eta 2015 eta 2016 arte ez da aurreikusten obra handirik berriz egin behar izatea".

Eta Ingurumen Sailaren errepasoarekin bukatzeko, Garbiguneak izeneko azpisailak 424.326,03 euroko aurrekontua izango du. Garbiguneen bitartez bideratzen dira etxeetako eskonbro, tresna elektriko, egur eta bestelako hondakinak.

Sarbideak, Valora eta Compite

Bestelako sailen artean, berriz, aipatzekoa da Garapen Agentzia sailean aurten izango diren aldaketak.

Esaterako, Sarbideak programa desagertu egingo da: "2011n atera zen eta 2012an garatu. 2013an ez da egongo programa hau", azaldu du aurrekontuen memoriak. Lana aurkitzeko zailtasuna duten pertsonei laguntzeko programa da hori. Gipuzkoako Foru Aldundiak sortu zuen, eta Diputazioak berak erabaki du aurten programa hori ez egitea.

Aipagarria da, baita ere, Lanbide Hastapenari dagokion kapitulua. Memorian azpimarratzen den moduan, "Lanbide Hastapena Kanpo finantzaketa bidez aurrera ateratzen direnen artean dago, teorian Eusko Jaurlaritzak %100 finantzatu beharko luke eta. Urtetik urtera Jaurlaritzak bere eskumena izan arren finantzaketa txikitzen du. Honek udal ekarpen maila handitzea dakar".

Eta beste puntu pare bat aipatzearren, Compite programaren (enpresen lehiakortasuna hobetzeko) aurrekontua 75.000 eurotik 45.000ra jaitsiko da; eta Valora programarako udalek ez dute ekarpenik egingo aurten, "aurreko urteetan udalek aurreikusiaren %50 jarri dute eta gauzatua oso azpitik egon da, horregatik aurten udalek ekarpenik egin gabe urte osoa aurrea ateratzeko aukera dagoela ikusi da. Enpresa kudeaketari eta lan antolamenduari buruzko sentsibilizazioa, zabalpena eta aholkularitza garatzea da Valoraren xedea.

DATUAK

11

MILIOI EURO

11.036.231,44 euro da Debagoieneko Mankomunitateak 2013rako onartu duen aurrekontua.

4

MILIOI EURO

Inbertsioetan lau milioi euro gutxiago izango dira. Epeleko obra esleituta dago (2,8 milioi) eta eraikin berria (1,3 milioi) atzeratu egingo dute.

Plazaolari 'Parot doktrina' kendu egin diote

UBANE MADERA | OÑATI

Alberto Plazaola preso oñatiarrari kendu egin diote *Parot doktrina*. Edo zehatzago esanda: Auzitegi Gorenean aurkeztutako kasazio errekurtsoa onartu egin dute, abokatuak familiari jakinarazitakoaren arabera.

Errekurtso hori onartzeak dakar Auzitegi Nazionalak hartutako erabakia (*Parot doktrina* aplikatzea), bertan behera geratzea.

Hain justu ere, Alberto Plazaola oñatiarra 2016ko azaroan askatu beharko lukete; baina Auzitegi Nazionalak jakinarazi zion *Parot doktrina* aplikatu eta beste hamar urtez egon beharko litzatekeela kartzelan. Esandako moduan, baina, orain erabaki hori atzera bota, eta bestelakorik ezean, jatorrizko epea (2016) da Plazaolaren askatasunari dagokiona.

Alberto Plazaola Anduaga 1990eko azaroan atxilotu zuten Frantzian. 1996an estraditatu zuten eta harrezkero hamaika espetxetan egon da. Egun Galizian dago, etxetik 650 kilometrora.

Bilboko manifestazioarekin bat egingo du debagoiendar ugarik

Manifestaziora joateko autobusak irtengo dira udalerri ezberdinetatik

ZURIÑE V.D.M. | DEBAGOIENA

Bizkaiko hiriburua aldarrikapenerako gune bilakatzen da urteko lehenengo hilabetean. Bihar izango da hitzordua, 17:30ean, eta *Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira lelopean* irtengo dira milaka eta milaka herritar.

Aldarrikapen ugari

Manifestazioaren deitzaileek manifestua plazaratu dute. Bertan, besteak beste, gatazkaren ondorioak askotarikoak direla eta denek konponduak izan behar dutela aipatzen da. "Aurrera egiteko preso eta erbestean dauden herritarren egoeran arreta jartzea funtsezkoa da".

Hori horrela, sakabanaketarekin amaitzea, gaixotasun larriak dituzten presoak kaleratzea zein zigorra beteta dutenak askatzea eskatuko dute milaka pertsonak biharko hitzorduan.

Sentsibilitate ezberdinek bat

Urtero-urtero, sentsibilitate ezberdineko jendea bertaratzen da Bilboko manifestaziora: politikariak, musikariak, kristau taldeak, feministak...

Eta ohi bezala, debagoiendar ugarik ere egingo dute bat bihar Bilbon egingo den presoen aldeko agerraldiarekin.

Bergaran, adibidez, Zukgua gazte prozesu eratzailetik Bilborako dei egin dute baita ere: "Urte luzeetan zehar gazteok osatzen dugun kolektiboak ere zoritxarrez era gordinean bizi behar izan dugu kartzeletako eta desherriko errealitatea".

Honela jarraitzen du gazte taldeak bidalitako oharrak: "Zorionez, gero eta gehiago gara euskal preso eta iheslarien eskubideen defentsan lan egiten dugunok. Denak etxeratu artea lanean jarraituko dugu!".

Bandoak, atarietan

Instituzioen aldetik ere babesa jaso du presoen aldeko mobilizaziora bertaratzeko deialdiak. Hala, ibarreko udal guztiek egin dute bat deialdiarekin.

Zenbait kasutan, gainera, presoen aldeko mozioak onartu dituzte osoko bilkuratan. Oñati, Eskoriatza, Elgeta, Arrasate, Leintz Gatzaga edota Aretxabaletan, esaterako. Manifestazioko aldarriarekin ados agertu bakarrik ez, zenbait tokitan bandoak atera eta etxe atarietan ere ipini dituzte, herritarrei Bilbora joan daitezen dei eginez.

Arrasateko Udalaren bandoan esate baterako, Giza Eskubideen Deklarazioa aipatzen da, eta "euskal presoei aplikatzen zaizkien salbuespeneko espetxe neurriak indarrik gabe utzi" behar direla uste du Udalak.

Eta hala jarraitzen du: "Giza eskubideen eta bakearen aldeko akordio sozial zabala egiteko prestutasuna adierazten dugu, betiere modu eraikitzailean egiazko konponbideak bilatu nahian".

Oñatiri dagokionez, bestalde, agerraldia egin zuten atzo, eguena, Foruen Plazan. Bertan, alkateak adierazpen instituzionala irakurri zien gerturatutakoei.

Oinez, Bilboraino

Bihar Bilbora joateko modu ezberdinak baliatuko dituzte debagoiendarrek. Askok autoz joatea hautatuko duten bitartean, autobusez ere bidaiatuko dute lagun ugarik.

Baina horrez gainera, Oñatiko gaztetxeko zenbait lagunek beraien kasa, hau da, oinez egingo dute hiribururako bidea.

Gaur 11:00etan irten, gaua Durangoko gaztetxean igaro eta bihar 17:30erako Bilbora bertaratzen diren gainerako pertsona guztiekin nahastuko dira.

Autobusa, modurik erosoena

Autoz Bilboraino joatea hautatuko dute batzuek eta besteek, berriz, herrietatik irtengo diren autobusetara igota egingo dute Bizkaiko hiribururainoko bidaia. Aukera ona da autobusez bertaratzea; jasangarriagoa izateaz gainera, erosoagoa ere badela gaineratu behar, joan-etorriak errazteko. Izan ere, horrelako hitzorduetan ohi baino trafiko gehiago sortzen da.
Hala, Debagoienean hainbat tokitan antolatu dituzte manifestaziora joateko autobusak, tartean, Elgeta, Arrasate, Oñati eta Bergaratik irtengo dira.

Teknologia turismoan ezartzen lagunduko dute

Mankomunitateko Turismo Sailak IKTen erabilera programarako deialdia egin du

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak 2012an garatu zuen Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabileraren programa 2013an ere garatzen jarraituko du. IKT programa Turismoaren Euskal Agentzia den Basquetourrek turismo sektoreari zuzenduriko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak era egokian erabiltzen laguntzen duen programa da. 2012an, Debagoieneko eskualdean 12 establezimenduk parte hartu zuten; aurtengoan parte hartzeko izena emateko azkeneko eguna urtarrilaren 15a izango da.

Egitarauaren helburuak honako hauek dira: IKTen erabilerarekin enpresen lehiakortasuna hobetzea; negozioan teknologia berriak ezartzeko oztopoak ezabatzea; sektoreko enpresetan teknologien jardunbide egokiak sustatzea; enpresei hobekuntza prozesuan laguntzea eta etengabeko hobekuntza bultzatzen duen Norako turistikoaren kontzientzia sustatzea.

12 parte-hartzaile

2012an, Debagoieneko eskualdean 12 establezimenduk parte hartu zuten eta hau da parte hartu eta ziurtagiria lortu zuten establezimenduen zerrenda: Arrasaten, Hilarion Jatetxea eta Santa Ana hotela; Oñatin, Arantzazuko Parketxea, Arrikrutz Oñatiko kobak, Debagoieneko turismo informazio eta interpretazio zentroa, Etxe Aundi hotela, Goiko Benta ostatua, Soraluze ostatua, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia eta Turismo bulegoa; Bergaran, Turismo bulegoa; eta Eskoriatzan, Gorosarri landa apartamentuak.

Egitarau honen inguruko informazio gehiago lortzeko edota aurtengo deialdian parte hartzeko, Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailarekin harremanetan jartzea gomendatzen zaie. Honakoak haremenetan hartzeko bideak: 943 79 64 63 telefono zenbakia eta *turismo@debagoiena.net* helbide elektronikoa. Parte hartzeko epea urtarrilaren 15ean amaituko da.

'Berria'-ri laguntzeko Arrasateko ekitaldira dei egin dute ibarreko hainbat ordezkarik

Berria Taldearen aldeko ekitaldia hilaren 19an izango da, eta Ziztadak egitasmoaren barruan dago; bailarako euskalgintzak babesa azaldu du

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Hilaren 19an, zapatua, Berria Taldeari laguntzeko ekitaldia egingo dute Amaia antzokian. Ordubeteko saioa izango da eta bertan egongo dira Kike Amonarriz eta Ilaski Serrano aurkezleak, Bea Azurmendi eta Oier Arregi kantariak, Toberako antzezleak, Manex Agirre edo Maddi Labaien bertsolariak, Oihana Kortazar eta Alberto Iñurrategi kirolariak, Oñatiko Ganbara Txiki eta sorpresaren bat edo beste ere izango dela aurreratu zuten antolatzaileek joan den martitzenean. Ekitaldia 19:30ean izango da eta sarrerak 5 euro balioko ditu; adin txikikoentzat, 2 euro.

'Lagun' gehiagoren bila

Berria-k joan zen ikasturtean martxan jarri zuen Ziztadak izeneko egitasmoa eta Arrasaterainо iritsiko da hilaren 19an.

Aurkezpenean, martitzenean, Eneko Barberena Arrasateko euskalgintzako ordezkariak esan zuen egunkari batek mundua ulertzeko leihoa izaten jarraitzen duela eta hauxe gaineratu du: "Egia da egun bai sareak bai gure eleaniztasunak leiho asko ireki dizkigula, baina behar dugu euskaldunok gurea izango den leiho bat. Gu aintzat hartuko gaituen leiho bat, edota zergatik ez, gu mundura eroango gaituen leiho bat".

Deialdia egin zuten debagoiendarrak, martitzenean. | AMAIA TXINTXURRETA

Inazio Azkarragaurizar alkateak hauxe azaldu zuen aurkezpenean: "Hizkuntzak zerikusi handia du bizitza sentitzeko moduan eta herri honetan beharrezkoa dugu, gure eskubidea da, errealitatea euskaraz, gure modura ulertzea". Gaineratu du 4.100 BERRIAlagun daudela momentuz egiten duten lanari bultzada emateko prest eta "ea beste lagun mordoa" biltzen zaien Arrasaten.

Jose Angel Aldai BERRIAlagun kanpainako koordinatzaileak eskerrak eman zizkien bereziki eskualdeko BERRIAlagunei, "erakutsi diguzuelako komunitate honen parte zaretela". Azaldu du baita ere BERRIAlagun egitasmoa ez dela bakarrik dirua lortzeko, jendea inguruan dutela sentitzeko ere badela.

ZABALIK



JUAN MARTIN ELEXPURU
http://goiena.net/iritzia/

Larrosin (637 m)

Larrosingo puntaraiño joan nok erbi ondorian". Goguan daukat esaldi hori entzun notsala aittari mutikotan, eta Larrosin berbia ez zala rarua gurian. Gero, hiztegixa egin arte ez neban atzera trink egingo Uberako mendi-izen polit horrekin. Bergarako Toponimia lanari begiratu dotsat eta behin baino gehixagotan dago jasota lekukoen ahotik. Baina gauza bitxia: Basalgoarrak mendi tontorrari esaten dotse Larrosin, Uberako gehixenak, berriz, barrenaldiai. Eta Agarremendi tontorrari.

Uberako mendirik altuena da, askok ez dakixen arren. Oin dala gutxi bota dabe piñua puntan, eta ederki ikusten da alde guztietatik. Ez dauka ez buzoirik eta ez ezer. Azkonabieta (725 m) dauka onduan. Bista zoragarrixa: Anboto, Udalatx, Aizkorri, kosta aldia.. Mende-mendian hartzen dittu Elgeta eta Bergara. Mendi-ilara horretan egon zan frentia azkenengo gerratian.

"Oin dala gutxi bota dabe piñua puntan, eta ederki ikusten da alde guztietatik"

Herri bakoitzak harro luzitzen dau bere mendi altuena. Munduak Everest, Europak Mont Blanc, Euskal Herrixak Hiru Erregeen Mahaia, Gipuzkoak Aitxuri (Aketegiri titulua kendu zotsen oñatiar zazpiki batzuek, urez betetako tubuakin joanda), Bergarak Irukurutzeta eta... Osintxuk Kurutzebakar. Eta bergararrak argi ibiltzia dauke: Irukurutzetak 898 metro dauzka eta Kurutzebakarrek 902. Lau metro Osintxuren alde! Aspaldittik akordauta dare osintxuarrak. Baten bati hutsaren hurrengua pentsauko jako, baiña motibo gutxiagokin eskatu dabe herrixak independentzia.

Guk, Bergarako alkatia uberarra dan bittartian, ez daukagu independentzia eskatzeko asmorik. Baina Larrosingo puntan buzoia jarri, urtero erromeixia egin San Larrosin egunian eta gure paraje ederrak han goittik ikusten gozatu batzuk hartutakuan... auskalo.

Bueno, laster samar izan biharko dau ze piñua sartu dabe berriro eta haundi eitten danian akabo berriz Larrosin. Izotz haundiren batek edo mendi tontorretan pinua sartzia debekatzen daben legeren batek erremedixatzen ez badau behintzat.

USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.com

Lehen harro bazeuden, orain...

Iñaki Azkuna ei da munduko alkaterik onena; Bilboko alkatea, munduko onena. Nola? Bilboko alkatea, munduko onena. City Mayors Fundazioak aukeratu du, 900 hautagai baino gehiagoren artean. 900? Bai, bai, 900. Gainbeheran zegoen industria-hiri bat izatetik turistikoki erakargarri izatera igaro da Bilbo, eta horretan eragin izana errekonozitu dio fundazioak Azkunari. Ezin esan gezurra denik. Hortik eta munduko alkaterik onena bera dela esatera, ordea... ez ote gehiegitxo? Ez da gero nolanahiko izendapena! Bilbotarren artean ez bazen giro lehen, ea nor ausartzen den orain. Baina ze demontre, bakoitzari berea, eta ondo egindakoari, errekonozimendua. Dagokionari, zorionak.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/

HANDIK ETA HEMENDIK

Hil osterako jantzita

Elena laka
http://eibar.org/blogak/antigona/

Norbere hiletarako janzkiak aurrez prestatzea.

Bere itxuraren ardura duen orok okasioetarako jantzia kontuz prestatzen du:

Festa batera, famili ospakizun batera, lehen zita batera, lan elkarrizketa batera joateko aurrez gertatzen du zer jantziko duen, nola orraztuko den, alegia, zein itxura emango duen jendaurrean.

Publikoan agertzeko aukera horietako bat norberaren beila da.

"Hil ta gero, salda bero", esango du batek baino gehiagok, eta bost axolako zaio zein itxura izango duen hil ostean.

Baina badaude pertsonak beren irudiaren gainean ardura handia dutenak, eta sekula gaizki eman nahi ez dutenak jendaurrean.

Ez eta hilda egongo badira ere.

Izan ere, aurrikusten dute beilatokitik jende asko pasako dela, ikusgai egongo direla, askok itxuraren gaineko iritzia eskainiko dutela (eskatu gabe).

Eta bizirik dauden bitartean, hil ostean erakutsiko duten itxuraz kezkatuta daude.

Horietako bat izan zen gugandik oso gertu egon zen amona bat, orain urtarrilean bere heriotzaren zortzigarren urteurrena beteko da.

Bizitza osoan pinpinrin, sasoi betean, laurogeita hamar urte bete baino hiru hilabete lehenago, gaixotu eta hamabost egun beranduago hil zen amona.

Hil bezain laster iloba kuttuna ez horren aspaldi gertatutakoaz oroitu zen:

-"Nik badaukat amonaren eskutitz bat, hil ondoren irakurtzeko esan zidana".

Atera zuen kartazala, zabaldu zuen eta amonaren azken borondateak irakurri ahal izan zituen bertan.

Eskuz idatzitako eskutitzeko naihen artean, beila non egin eta soinean zer eraman nahi zuen adierazten zuen amonak.

Zeuzkan arropen artean aukeratu zituen zeintzuk jantzi behar zitzaizkion:

Gona beltza, blusa krema kolorekoa eta oinetako beltzak.

Guztiak kalerako erabiltzen zituen arropak, ez bereziki ezertarako gordeak, dotoreak.

Instrukzioak ematen zituen baita agintzeko belarritakoak ipinita izan behar zituela, eta aukeratu egiten zituen zeintzuk.

Azkenik, iloba jakin batek orraztu behar zuela adierazten zuen, harek bai asmatzen ziolako, oso garrantzitsua:

Flekiloa aurreruntz zeukala orraztu behar zuen.

Ez zegoen alde batera orraztutako flekiloak baino gehiago haserrarazten zuenik.

Hau ez zuen esan, baina ideia bat egin dezazuen, bere estiloa garaikide izan zituen Jane Wyman edo Claudette Colbertenaren tartekoa zen.

Amonak aurretik pentsatu bezala, jende asko etorri zen haren beilara.

Bizi artean bezain dotore eman zuen hilkutxan.

Berak aukeratutako arropa eta belarritakoekin, eta gustoko zuen orrazkera horrekin.

Beilara gerturatutako guztiok bat etorri ginen:

Amona beti bezain dotore zegoen.

Musu bat, amama.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Agur, Danbaka?

Iñaki Urizar
Aramaio

Deabrutu musikari bakarlaria naiz eta Danbaka 2012 ez zela egingo jakin nuenean nire poztasuna pixka bat itzali egin zen.

Sekula baino material gehiago atera genezake bertatik eta gauza garrantzitsuenetako bat da berau; bideoak, argazkiak, oihartzuna –noski, irabazlearen kasuan diru kantitate nahiko handia–, bideo grabaketa bat edo Euskal herrian barrena bira...

Musikarientzako bultzada handia da hori, eta nahiz eta talde batek baino gehiagok aldizkarira ez idatzi, seguruenik ados daude diodanarekin.

Denbora hauek gogorrak dira denentzako eta kulturara ere iritsi da krisia, musikariok badaukagu faltan igarriko dugun zerbait desagertuta egongo den denbora honetan.

Azkenaldian, Danbaka beste lurralde batzuetara hedatzen hasita zegoen eta parte hartzaile kopurua sekula ez da txarra izan, bertan irabazleak izan zirenak behin baino gehiagotan entzun ditugu irratian edo ikusi ditugu telebistan.

Nabarmena da Danbakaren aurtengo desagerpenarekin musikariok asko galtzen dugula, eta musikariok gure izaera edo gustuko dugun musika kaleratzeko aukera batez ezin izango garela baliatu.

Honen guztiaren gainetik espero dudana da beste bi urte pasa orduko bueltatu dadila, ez dezagula Danbakaren hutsune oso handirik sumatu, aldizkariak, sariak, oihartzuna, berriz gure eskura egon daitezela, berriz ere normaltasunez jendearen aurrean denbora-pasa izan gaitezen.

PNV-PSOEri erantzuna (4)

Ekaitz Otxoa, Roberto Martinez eta Nekane Ayensa
(Debagoiena Zero Zabor)
Debagoiena

PNVk eta PSOEk azaroaren 16ko GOIENA paperean atez atekoaz eta errauskailuez esan zituztenei erantzun nahi die Debagoiena Zero Zabor-ek.

Beste puntu batzuekin ere konforme ez egon arren, erantzuna lau punturi buruz egitea erabaki dugu.

Hau haietako bat da:

Errauskailuak ez direla kutsakorrak diozue... Gaur egun errauskailuen ondorioez dauden azterketen eta datuen arabera hori ezin liteke baieztatu inondik inora. Ehunka ikerketa zientifikoren emaitzek adierazi dute errauskailuek (bai zaharrek, eta neurri txikiagoan izan arren baita berriek ere) gizakion osasuna hondatzen dutela eta ingurumena pozoitzen dutela. Errauskailuak kutsakorrak ez direla sinesgarritasunez baieztatu nahi baduzue, kutsakorrak ez direla frogatu beharko duzue.

Errauskailuetako eskoria eta errautsek ze toxikotasun duten neurtu ere ez da egiten. Tximinietako kea neurtzen da, baina urtean bi neurketa bakarrik egitera behartzen ditu legeak. Ez gehiago. Eta bi neurketekin ez dakigu urte guztian zehar zer gertatzen den, eta gutxiago neurketa horiek noiz egingo diren aldez aurretik abisatzen delarik. Emaitza fidagarriak lortzeko, neurketak modu jarraituan egin beharko lirateke eta ez noizean behin bakarrik. Baina hor agertzen da arazoa: neurketak modu jarraituan egingo balira, badakigu ze emaitza irtengo liratekeen. Belgikan, errauskailu moderno aurreratu batean bi astetako neurketa jarraituak egin ziren. Emaitzak: dioxinen kopurua legez baimendutakoa baino 30 aldiz handiagoa. Polonia eta Suedian ere, errauskailu modernoetan emaitza kezkagarriak agertu dira neurketa jarraituaren bidez. Zubietako errauskailuak izango lukeen teknologia berbera duen Madrileko errauskailuan aldez aurretik abisatu gabeko neurketak egin ziren. Emaitzak: dioxinen kopurua legez baimendutakoa baino 15 aldiz handiagoa.

Errauskailuen inguruetan ere egin dira ingurumenari eta bertako biztanleen osasunari dagozkien azterketa zientifikoak. Emaitzak: lur kutsatuak, minbizi tasa disparatuak, inguruetako biztanleen arnas arazo larriak...

Noiz arte jarraitu behar duzue errauskailuak "ez direla toxikoak" baieztatzen?

Arinkeria onartezina da PNV eta PSOEk horrelako ziurtasunarekin errauskailuak ez direla kutsakorrak baieztatzea, zientzialari, kimikari, sendagile eta abarren ikerketa eta txosten guztien gainetik pasatuz.

Errauskailuaren segurtasunaz, azken teknologiaz eta abarrez hitz egiten duzue. Beste garai batean nuklearrez oso antzeko gauzak esaten aritu zineten. Oraingo konbentzimendu berarekin, orain bezain zalantza gutxirekin.

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Berrogeita lau muturkada

Luis Mari Arantzeta
Antzuola

Bergarako eta Antzuolako udalbatzarrei; oraingoei eta baita aurreragokoei ere (inguruko beste batzuendako ere balioko luke).

Kontua da ni ia egunero Bergarara igeri egitera joaten naizela.

Joan-etorrian hamar kilometro eta erdi ditut.

Ba al dakizue zenbat *tranko*-rekin topo egiten dudan tarte horretan?

Berrogeita lau muturkada jotzen ditu nire kotxeak, eta nik berarekin, bide kaxkar hori egiteko.

Niri, orain artean, inork ez dit eman *tranko* horiek jartzeko arrazoirik, baina uste dut denok dakigula zein den:

"Jendeari irakastea herri barruan dagokigun abiaduran joan behar dugula".

Eta noiz arte iraun behar du lezio horrek?

Badaramazkigu urte batzuk, asko, eta oraindik hor jarraitzen dute; eta ez dirudi gutxiagora doanik.

Hain ikasle txarrak al gara, ba?

Antzina, letra, odoletan ikasi behar omen zen.

Gero, fusila eta makila, biak lagun ezagutu genituen: "Ikas dezala" edo "¡Para que escarmienten!". Eta isilik gero!

Hortik pasa ginenok badakigu zer izan zen hura, batzuek ahaztarazi egin nahi badute ere.

Lehen goitik ematen zigutena orain behetik.

Kotxe, pertsona edo aurrean jartzen den guztiari.

Eta herri honek noiz hartu behar du ikasiaren eta zibilizatuaren titulua?

Geure eskuetan dagoena lortzeko ez bagara, nola jasoko dugu burua?

Joan den udan, bi mila kilometrotik gora egin ditut Polonian eta Alemanian barrena autobusean, eta ez dut ikusi horrelako *tranko* bakar bat ere.

Jarri al zarete pentsatzen inguru horietako jendeak bisitatzen gaituenean zein gogoeta egingo duen?

Nik bai: "Zein basatik jarri ditu trasto hauek hemen? Ze jendilaje bizi da herri hauetan?".

Noiz ikasi behar dugu europarrak izaten, kaletik hasita?

Izurrite honek noizbait behar du bukaera eta nik, behintzat, aleman edo poloniarrak baino gutxiago izaterik ez dut nahi eta nire aldetik exijentzia da.

Jarri kamerak, aguazilak hogeita lau ordutan edo nahi dena, baina hasi lotsagarrikeria hori begien bistatik eta kotxeen azpitik kentzen.

Nik, eta nik bezala herri honetako gehienok, Europan bizi eta europar izan nahi dugu eta.

Bergarako gaztetxeari, eskerrik asko!

Leire Ibarzabal Beitia
(Bergarako Orkestra Sinfonikoaren eta Udal Musika Bandaren izenean)
Bergara

Pasa den abenduaren 22an Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Udal Musika Bandak Gabonetako kontzertua eskaini genuen Udal Pilotalekuan, urtero bezala.

Kontzertu ostean musikariok afari eta festa ederra izaten dugu, urtean zehar egindako lana eta esfortzua premiatzeko.

Afaria eskola publikoetako jangelan egin izan dugu, eta aurten, bertako konponketa obrak direla eta, lokal gabe aurkitu gara.

Musikari asko garenez lokal handia behar izaten dugu eta... zer hobeto gaztetxean egitea baino!

Gazte Asanbladarekin harremanetan jarri, arazoa azaldu eta honen baietza jaso ondoren, afaria bertan egin dugu.

Gazte Asanbladakoak zoragarri portatu dira eta lokala musikarion erabilpen osorako prest izan da momentu oro.

Behar izan ditugun guztietarako, janariak eta edariak eramateko, festa antolatzeko... ez dugu inongo arazorik izan eta norbere etxean bezala sentitu gara, ederto asko eta gustura.

Eskerrik asko, Gaztetxea osatzen duten guztiei, Bergarako Orkestra Sinfonikoko eta Udal Musika Bandako musikari guztion izenean.

Gazte Asanbladak izan duen jarrera esku zabala ez dugu inoiz ahaztuko.

Bergararroi, adeitasunez

Fernando Iturbe
Antzuola

Ulergaitza egiten zait egun batetik bestera %80tik gorako birziklapena lortzeko aukera izan eta zenbait herritar %40rekin konformatzea.

Ulergaitzagoa eta onartezina iruditzen zait %80 baino gutxiago birziklatzeagatik intzineradora egiten bada, Zubieta eta inguruko milaka herritarren osasuna arriskuan jartzea; hori bai dela giza eskubideen urraketa.

Zaborrak baditu soluzioak denon konpromisotxoarekin, baina gaur eta hemen %80ren azpikoak ez dira soluzioak, partxeo arriskutsuak baizik.

Agur bero bat, kontsumo eta birziklapen osasuntsua bultzatzen ari zareten debagoiendar guztioi.

Arsenal berria, jarrera bera: poltsak vs haize errotak

Pedro Larrea
Oñati

Erabat logikoa iruditzen zait poltsak zintzilikatzea; izan ere, urdina oso ondo geratzen da balkoietan.

Bromaz aparte, gauzak aldatu nahi badira arazoa bistaratzea logikoa da, eta modu antolatuan bada hobeto.

Nik, behintzat, horrela funtzionatu dut beti, eta horregatik, noa manifestazioetara, eztabaidatzen dut edo idazten dut hau.

Kontrako sinadurak ere batu dira, ugari PaP Ez taldearen arabera.

Ondo legoke jakitea zenbatek sinatu duten kafea hartzen zuten bitartean, zikina eta kirasduna dela arrazoituta.

Ezker abertzalekoa izateagatik bakarrik atez atekoaren alde lerratu direnekin gauza bera.

Tipularen lehen azala ikustearekin konformatzen gara.

Orain galdera zein da, nork irabazi duen? Nork

>

batu dituen sinadura gehien edo dekoratu dituen balkoi gehien?

Ez, galdera da zertan gabiltzan.

Esperimentu baten parte bagina, palkotik begira daudenek komedia gisa hartu dezakete, eta barre ederrak egin, interpretazioa bikaina izan baita; baina hau serioa da, eta suspentsoa momentuz biribila, erridikulua galanta.

Zergatik ez goaz kontrako ikuspuntua dutenen hitzaldiak entzutera?

Zalantzak gogoeta interesgarria bultzatzen du guregan.

Hitzaldietara, baina, energia partekatzera joaten gara, gure burua ondo ikustera.

Antzua, baina lasaigarria.

Badugu zaborra baino aurreragoko arazo bat, gure mentalitatea.

Eztabaidetan poro guztiak itxi eta gureari gogor eusten diogu.

"Nik arrazoia daukat, zuk ez. Ez nauzu engainatuko".

Txokera.

Gerratan horixe egiten da: elkarri bonbak jaurti, ez arazoari irtenbide logiko bat aurkitzeko, norberaren iritzia bestearenari gailentzeko baizik.

Materiala aldatzen da, baina jarrera berdina da.

Zein da debatea, atez ate edo 5. edukiontzia?

Ez, debatea da nola egingo dugun ahalik eta gehien birziklatzeko; erraustegi bat inork nahi ez duelako herrian, eta nik, behintzat, beste edozein herritan ere ez dudalako balioa duen zerbait erretzeko laberik ikusi nahi.

Hori ez da logikoa, hori negozioa da.

Bestela galdetu Xabier Garmendia, Nicolas Gaminde eta enparauei.

Instituzioetatik atez atekoa jartzea erabaki da.

Zikina eta usaintsua iruditzen bazaigu, saiatu gaitezen hobetzen, ez apurtzen.

Hori bai, lehenbizi garbia eta estetikoa definituko ditugu, eta gero, hernaniarrekin (tamainagatik) hitz egingo dugu.

Erdi Arora bueltatu badira eta arratoiak badituzte, haserre egongo dira.

Abertzaleak dira, baina ez tontoak.

Alternatiba ere badago, kontzientzia erabiliz eta inposizio gabe 5. edukiontziaren bidez.

Ideia ona da.

Kontzientziarekin Afrikan gosea ere bukatu daiteke, baina gustura bizi gara.

Ez diegu gure erosotasunei hain samur uko egiten.

Batzuk bai, baina batzuk bakarrik.

DV-ri eskatuko nioke errealista izateko, baina ez soilik logika txuri-urdinean.

Eta jendeari iritzi bat lantzeko, eta ulertzea lortzeko eztabaidatzea, ez norberak irabazteko.

Ez gara baso-erdian itoko.

Eskerrik asko

Elena Elkoro
Elgeta

Hogeita hiru urterekin etorri nintzen Elgetako Botikara.

Erronka berriaren aurrean ilusio eta gogoz gainezka nengoen.

Haurtzarotik ia etorri gabe egon arren, Elgetarekin lotua nengoen aita eta amamaren bitartez.

Eta oso erraza egin zitzaidan herrira egokitzea.

Oso harrera ona egin zidaten herritarrek hasieratik, eta, zer esanik ez, bertara bizitzera etorri nintzenean.

Horregatik guztiagatik, eskerrak eman nahi dizkiet.

Bezeroekiko gertutasuna da herri txiki bateko botikan lan egitearen abantaila nagusienetako bat.

Bezeroak hain ondo ezagutzeak lana era berezi batean burutzeko aukera eman dit, eta, horri esker, nire bezeroekin oso harreman polita sortu dut.

Ziur nago nire profesioa maitatzeko arrazoi garrantzitsuenetako bat izan dela.

Hogeita bost urte hauek zoragarriak izan dira.

Hortaz, eskerrik asko, bihotz-bihotzez, 25 urte hauetan izan ditudan bezero guztiei.

Gainera, Elgetako Anbulategiko langile guztiei eskerrak eman nahi dizkiet eguneroko lanean suertatzen diren arazoak konpontzen laguntzeagatik.

Gustuko dut horrela lan egitea!

Azkenik, mila esker nire botikan lan egin duten neska jator guztiei.

Denak aipatzea ezinezkoa da, urte hauetan asko izan direlako.

Baina bi aipatzea gustatuko litzaidake:

Eskerrik asko, Miren eta Amaia.

Bagaratik eskerrik asko Tobera posible egin duzuen guztioi!

Iraitz Agirre Aranguren
(Bagarako kidea)
Debagoiena

Inuzente Eguna atzean utzi dugu eta berarekin batera, bigarren urtez, Debagoieneko Tobera.

Oñatiko herriaren eta Debagoieneko gainerako herrien arteko epaiketa satirikoa benetan arrakastatsua izan zela ez dago zalantzarik, eta Bagaratik, berau posible egin duzuen guztioi eskerrak eman gura dizkizuegu.

Oñatiar eta debagoiendarrei, Zubikoa frontoia bete eta bertan esandakoak umorez eta algaraz hartzeagatik; Oñatiko Udaleko ordezkari politiko zein teknikariei, antzezlan jendetsu hau egiteko erraztasun guztiak emateagatik; Goienako lantaldeari, errealizazio eta bideo kontuetan emandako laguntzagatik; eta batez ere, eta nagusiki, Debagoieneko bigarren Tobera honetan parte hartu duzuen antzezle eta lagun guztiei! Bereziki Idoia eta Egoitzi, gidoigintzarako erakutsi duten abilezia eta prestutasunagatik. Eta nola ez, azken hiru hilabeteetan asteroko entseguetan fin-fin ibili zareten antzezle guztiei. Taula gainean ibilitakoak batzuk, sekula igo bakoak beste zenbaitzuk, benetako lantaldea sortu dugu hilabeteotan, Debagoieneko herri guztietako partaideak izan garelarik protagonista.

Elkarrekin barre egin, hausnarketak zein asmoak partekatu eta urduritasunak gainditu ditugu, eta hori dena taula gainean plazaratu dugu. Zuengandik eta zuengatik sortu da Tobera!

Azken batean, hortik abiatzen baita antzezlan herrikoi hau abiarazteko borondatea.

Herritik eta herritarrek sortutako kulturgintzaren aldeko apustua egin nahi izan dugu Bagaran hasiera-hasieratik, eta hortik dator urtez urte sendotzen doan Debagoieneko Tobera antolatzeko nahia.

Debagoieneko herritarren etorkizuna hobetzera bidean, Tobera gisako komunitate erronkei heltzea ezinbesteko deritzogu, eta horregatik, zorionak, denoi!

Bukatzeko, pregoilariak antzezlanaren amaieran esan bezala, galdera airean utziko dugu!

Non izango ote da hurrengo Tobera?

Mila esker, Osakidetzako langileei

Malux Biain
Oñati

Batzuetan zutabe hauek gure haserreak eta hitz negatiboak azaltzeko erabiltzen ditugu; beste batzuetan, aldiz, gure pozak, animoak, eskerrak... adierazteko.

Gaur eta nire kasuan, bigarren talde horretan sartzen naiz.

Urte bukaerako hainbat egunetan, Osakidetzakoen tartean egotea tokatu zait, eta lerro hauen bidez nire eskerrik beroena bidali nahi diet Osakidetzako langileei.

Gurutze Gorrikoak etxera nire bila etorri zirenean, Oñatiko osasun zentrora eraman ninduten.

Han zeuden Txaro Martinez, nire sendagilea, eta hainbat langile nire zain.

Gero, Arrasateko larrialdietan han zeuden ere profesionalak prest laguntzeko.

Beranduago, Txagorritxuko UCIko eta azkenik plantako langile guztiak beraien eginkizunak betetzen eta nolabait nire bizitza errazten zeuden.

Egun hauetan guztietan ez naiz sentitu "zenbaki" bat, ez.

Pertsona moduan tratatu naute, hasieratik azkenera arte.

Alde batetik profesionaltasunez lan egin dutelako, baina era berean hurbil sentitu ditudalako, euren berotasuna, goxotasuna eta mimoak emanez.

Zorte handia dugu Osakidetzako zerbitzu publikoan horrelako pertsonak izaten, pribilegiatu bat sentitu naiz.

Berriz ere, esker mila, denoi.

Segi horrela!

PPk ez du gogoko bakea

Jon Otero Uribarren
Arrasate

ETAk gatazkaren auzi teknikoei buruz negoziatzea soilik eskaintzen die, eta Gobernuak ezetz, ez duela negoziatuko berresten du.

Negoziatu, zer?

Amnistia eta armak entregatzea, disolbituz.

Gobernuak ez du amnistiarik eman nahi; ba ote nahi du ETAk berez disolbatzea?

EAJ ez da Gernikako Akordioaren sinatzaileetako bat, eta ez du nahi ezta ere amnistiarik, baina ETA disolbatu eta desagertzen bada, ez zaio motiborik geratzen EH Bildurekin batzeko erabakitze eskubidearen alde eta autodeterminazioaren alde, eta hori ez du nahi PPk.

Euskal abertzaleek banatuta jarraitu behar dute, eta ETA ez da aitzakia. Jelkideek JEL, Jainkoa urrutiegi eramaten baitute eta Moisesen bosgarren agindua gerra denboran soilik apur daitekeela, edozein zapalkuntza mota irentsiz.

Eta horrela goaz, gurea ez den konstituzio bat irentsiz.

Esaten zaigu identitate eta hizkuntza politika askatasunean oinarritu behar direla, eta lege espainolak gaztelera inposatzen digu.

Mundua elebiduna izango da edo ez da izango, Madrilen gaztelania eta ingelesa, eta hemen euskara eta ingelesa.

Hiru hizkuntza exijitzea gehiegi da, lan itzela.

Eta gainera, nik gorroto dut inposatu zaidan gaztelera; beraz, nire semeei, erradikala naizenez, sartuko diet gaztelerarik ematen ez duten ikastetxe batean, euskara indartuz, ingelesa indartuz.

Beraz, independentzia da bidea gaztelerak ito ez gaitzan.

Beraz, PPk ez du nahi abertzaleen batasunik, eta ETA da aitzakia hori eman ez dadin.

Zapaltzen gaituzte espainolek, kulturalki, linguistikoki, ekonomikoki, politikoki, eta ez digute ezeren barkamenik eskatu nahi, eta gu beraiei bai.

Ederto.

Itotzen nau erdarak, baina hor konpon.

Niregatik, psikiatra lotsabako batek behin idatzi zuen: "Cuando empieza a hablar en vasco entra dentro de una fase de enfermedad crónica".

Beraz, psikiatriaren zaborra aguantatu behar.

Barkamena alde biek eskatu beharko dute; batzuek zapalkuntza politikoagatik eta gehiegikeria polizialengatik (heriotza batzuk barne); eta besteek hiltzeagatik 800 pertsona.

Zapalkuntza politikoa da nahi ez dugun konstituzioa inposatzea.

Politikariek hitz egingo dute auzi honetaz.

Izan ere, euskal gatazkan amore eman beharko dute alde biek.

EAJk deitzen dio Euskal Herriari *Euzkadi* eta ezker abertzaleak *Euskal Herri Askea*.

Bien bitartean, unionistek ez dute soberania euskalduna laga nahi.

Nafarroa unionista da, espainolista, eta Iparraldea frantses-zalea.

Euskadi da abertzalea, hirurak bat, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.

Nafarroak bere bidea egin behar du; agian, hemendik 20 urtera abertzalea izango da, agian ez.

Euskadi askea posible da, amore ematen badugu, Nafarroak ez du nahi autodeterminaziorik, eta abertzaleek hura exijitzeari laga behar diogu.

Aske utzi Nafarroa.

UPN, PSN eta arrotz hori guztiori.

Gainera, monarkikoak ziren nafarrak, eta monarkiak gauza bat du, errege indartsuenari jarraitzen zaio.

Gogorra bada ere, guk amore emanda Nafarroa, Espainiak amore eman beharko du Euskadiko autodeterminazioari, gehiengo baikara bozketan.

Bigarren trantsizioa litzateke.

Baliteke gidariren bati teleordainketa berria ez interesatzea

Gipuzkoako autobideetan, gehienez

25,64€/hilean

(gipuzkoarrontzat bakarrik)



Martetik ez bazatoz eta Gipuzkoan erroldatuta bazaude, interesgarria irudituko zaizu zifra hau: 25,64€/ hilean. Teleordainketaren gehieneko tarifa berria duzu, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bidegik martxan jarria, AP-1ean eta AP-8an egunero ibiltzen diren milaka gipuzkoarren gastua arintzeko.

www.bidegi.net

BIDEGI | Gipuzkoa BERRIA

Gaizka Azkarate | Herrira taldeko kidea

"Gatazkaren ondorioei irtenbidea topatu nahi diegu eta presoen aferari konponbideak eman"

- Bilbon zapatuan egingo den urteroko manifestazioan parte hartzera deitu du Herrirak
- Bakerako "denen ekarpena beharrezkoa" dela dio Gaizka Azkaratek, Herrirako kideak

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Debagoieneko udalen, hainbat eragileren eta herritarren babesa jaso du oraingo zapaturako Bilbon Herrirak deitutako manifestazioak. Presoen giza eskubideak, haiendako irtenbidea eta bakea aldarrikatuko dituzte milaka debagoiendarrek ere Bilboko kaleetan. Arrasate Irratian elkarrizketatu du Aitziber Aranburuzabalak oraingo astean Gaizka Azkarate Herrirako ordezkaria. Hona ekarri dugu elkarrizketa.

Zein da Bilboko manifestazioan zabaldu nahi duzuen mezua?

Giza eskubideak, irtenbidea, bakea, horixe da leloa. Izan ere, presoek ere badituzte eskubideak; bestetik, irtenbidea aurkitu behar zaio gatazka armatu honi eta bakea behar dugu. Manifestazioarekin, horiek aldarrikatzeaz gain, eskatu nahi diegu gobernu espainiar eta frantziarrari urratsak eman ditzatela, mugi daitezela. Denok onartzen dugu hemen gatazka armatu bat egon dela eta gatazka horrek ondorio batzuk izan dituela: presoak, iheslariak... Horiei eta beste batzuei irtenbidea emanez, beste eszenatoki batera helduko gara. Arazo politikoa hor egongo da, baina gu ez gara hor sartzen. Gatazkaren ondorioei irtenbidea eman nahi diegu eta, hain justu ere, presoen aferari konponbideak eman.

Gaur egun ez daude bermatuta presoen eskubideak?

Bistakoa da ezetz. Eta eskubide guztiak bermatzen doazen heinean, presoak eta iheslariak etxeratzen joan beharko dute. Jendeari eskatzen diogu hurbil dadila Bilbora, bakerako bere ekarpena egitera.

Une honetan 700 bat dira presoak?

Bai, hori da kopuru gordina eta iheslariak ere mordoxka bat dira. Eta horiek sakabanatuta daude frantziar eta espainiar estatuetan barrena. Bestetik, isolamenduan daude; kartzela barruan eta baita haien artean ere, bakartuta. Badira kasuak kartzela batean bizpahiru preso politiko daudena eta haien arteko harreman txikiena ere ez daukatena. Eta, horretaz gain, *Parot doktrina*, preso gaixoak... Josu Uribetxeberriaren kasua ezagutzen dugu, baina badira oraindik gaixotasun sendaezinak dituzten beste 13 preso. 60 euskal preso politiko baino gehiago dira *Parot doktrina* ezarri zaiena eta sakabanaketak hor dirau. Gogoratu nahi dut, gainera, sakabanaketa dela mendeku modu bat presoarendako eta bere ingurune naturalarendako eta, bereziki, familia eta lagunendako.

Debagoienean zenbat preso dira?

Guztira, 30 dira eta bat bera ere ez dago Euskal Herrian. Bestalde, Luis Mari Azkargorta *Kanto*-ren kasua ere azpimarratzekoa da. *Parot doktrina* aplikatu zaio. Espetxetik irten, berriro atxilotu, *Parot doktrina* aplikatu eta 2018 urtera arteko kartzela zigorra aplikatu zioten. Zabarte, Unai Parot... Horiek urte piloa daroatzate kartzelan eta 30 urte bete arte han eduki nahi dituzte. Argazkia gordina da gure bailarako preso, senide eta lagunei dagokienez. Astero-astero, milaka kilometro egin, senide eta lagunari bisita eskas bat bat egiteko, funtzionarioen hika-miketan aritzeko...

30 preso horietatik, gaixo larri dagoenik ez dago, baina *Parot doktrinarekin* bai. Zenbat?

Esan dudan moduan, gaur egun, *Kanto* dago egoera horretan. Baina Unai Paroti ere aplikatuko diote eta, bestalde, hor daude Urizar *Gautxori* edota Zabarte ere, 25 urtetik gora daroatzatenak preso eta estatu espainolaren asmoa da horiei ere aplikatzea bisi osorako kartzela zigorra. Juridikoki arazo handiak dituzte, baina nahi dutena da kode penal zaharrekoek 30 urte betetzea eta kode penal berrikoei 40 urte betearaztea. Hori astakeria da.

Hainbat atxikipen lortu dituzue zapatuko manifestaziorako. Ze aurreikuspen duzue?

Joan zen urteko manifestazioa oso jendetsua izan zen, sekulakoa, eta oraingoan lortu nahiko genuke aurrekoa gainditzea. Iazkoak joan daitezela, baina baita beste jende klase bat. Mobilizatu ez den beste eremu bateko jendea ere erakarri nahi dugu zapatukora.

Suma daiteke hori hala izango dela?

Bai, hala igartzen dugu guk. Mugimendua badago kalean, hedabideetan, sarean... Eta, azken finean, manifestazio horretara joatea da gatazkari irtenbidea aurkitzea eta bakera hurbiltzea. Presio egitea frantziar eta espainiar estatuei.

Horren erakusle dira hainbat eragilek egindako bideoak, Durangoko azokan egin zen libdupa, Oñatiko Herrirakek egindako bideoa, hainbat atxikimendu adierazpen...

Atxikimendu piloa jaso ditugu, bai. Hasi bederatzi alderdi politikotik, sindikatu gehienek, futbolariak, musikariak, bertsolariak, aktoreak... Deigarria da Iparraldeko PSFko sozialistenak eta Modem alderdi zentristakoenak ere jaso ditugula. *Herrira.org* webgunean jasotzen ari gara guztiak.

Debagoienekoak ere badira.

Bai, asko, ezagunak, norbanakoak, alderdi politikoak, udalak...

EAJ ez dago, ordea.

Bai, eta deigarria iruditzen zaigu; izan ere, EAJk dio beste bide batzuk urratu dituela bakerantz abiatzeko, lanean badiharduela. Eta hori ondo eta zilegi iruditzen zaigu beste bide horiek erabiltzea. Baina ez dugu ulertzen gurekin eta beste herritar askorekin ez etortzea manifestaziora. Ez diogu logika handirik ikusten. Bide guztiak dira beharrezkoak, baita hau ere, aurrera egiteko. Ea hurrengoan batzen diren gure manifestaziora. Guk gonbita egingo diegu hurrengoan ere.

PSE-EE, PP, UPN, UPyD... ere ez daude.

Bai, hala da. Baina uste dugu PSFko eledun bat ere batu denez, hemengo sozialistek ere txipa aldatu beharko luketela, ez guk bakarrik. Denok batera jardun beharra dago, gauzak aldatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren aldetik espero duzue aldarrikapenik?

Zail ikusten dut.

Debagoieneko herri guztietatik aterako dira autobusak, ezta?

Bai, goizean zein bazkalostean, kasu batzuetan, Arrasaten bezala. Txartelak erosteko aukera izango da azken unera arte, barikura arte, eta ohiko tokietan hartu ahal izango dira txartelak. Ez dago esan beharrik autobusetan joatea komeni dela, jende asko batuko baita Bilbon zapatuan. Esan behar da, gainera, hainbat ekitaldi antolatu direla goiz eta eguerdian, Areatzan eta Alde zaharrean eta, horregatik, jendea animatu gura dugu goizetik joateko Bilbora.

Urtarrilaren 12an jarrita daude begiak. Gero?

Egia da, bai, orain bagabiltza zapaturako dei egiten, baina gogoratu nahiko nuke egunero egin behar dela lan bakea, eskubideak eta irtenbideak aldarrikatzeko. Garrantzitsua da martitzenero edo azken barikuetan egiten ditugun ekitaldietan parte hartzea. Eta, nahiz eta pentsatu horietan ez dela ezer aurreratzen, bai aurreratzen da, beharrezkoak dira aurrera egiteko eta geroago eta jende gehiago badago, askoz ere hobe.

Gaizka Azkarate, martitzenean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

"Sozialistek ere txipa aldatu beharko luketela, ez guk bakarrik"

"Jendea hurbil dadila Bilbora, bakerako bere ekarpena egitera"

"Sakabanaketa da mendeku modu bat presoarendako eta ingurunearendako"

"Nahi dugu mobilizatu orain arte mobilizatu ez den jendea ere "

Carrefour · DECATHLON · mercal calzados · Norauto · CIMER · Arina Quintar

BRICO DEPÔT · I'm lovin' it · CÓCTEL · Gorbeia · SAMRA · CORTEFIEL · Viajes · Mr. Wok

Chara Duarte · PACO MARTINEZ · EL ZAPARRASTRILLO · Godo'S · Canterías Jose Mª Uriarte

DOÑA CASA · Cocinorte · Dulce tentación · Font Landaz

ISKIA · los telares · promod · Bucci · KINGLAT Directo de fábrica · pim.kie · SPORTWELL

MORA SOFAS · GAME · SPRINGFIELD · AMAZONAS · women'secret

DESKONTUAK gauza GUZTIETAN eta GUZTIONTZAT

centrocomercialgorbeia.com

ELBROCHE Centro Comercial Gorbea · FARMAZIA · FRANCK PROVOST · atención al alfarero · SERVICIOS INMOBILIARIOS GORBEIA

movistar · orange · yoigo · vodafone · Oscar G PELUQUERÍAS

SALÓN DEL MOTOR · DAX OUTLET · Dax etxea · La Creperia · Kurrusko · La Rana · CEYLÁN

Carrefour · DECATHLON · mercal calzados · Norauto · CIMER · Arina Quintar

BRICO DEPÔT · I'm lovin' it · CÓCTEL · Gorbeia · SAMRA · CORTEFIEL · Viajes · Mr. Wok

Bar GRECIA · LUZES

GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

HERRIAK

BERGARA

100 urte, eta osasuntsu

- Barrenkaleko Zabala farmaziak 100. urteurrena beteko du aurtengo abuztuan
- Zabalatarren hirugarren belaunaldiak mantentzen du negozioa zabalik gaur egun

UBANE MADERA | BERGARA

Joan den mende hasiera. Osakidetzarik ez. Ezta anbulatoriorik ere. Medikuak bai, baina horiek ere gutxi. Halako bizimoduarekin herrian farmazia izatea gauza handia zen. Eta hala erakusten du sasoiko egunkari batean argitaratutako testuak: "*Este establecimiento, espléndidamente instalado, honra a Vergara. Sus productos, ya famosos, ofrecen la garantía de una absoluta pureza.*

Zabala farmaziari buruz dihardu testu horrek, Barrenkalen dagoena duela 100 urte. Izan ere, 1913ko abuztuan zabaldu zuen Bergarako saltoki esanguratsu hori Luis Zabala Garaik.

Iñigo Zabala, Mari Carmen Puy eta Jon Zabala, botikaren mostradorean. | U.M.

Hirutik bat

Zabalaz gainera, Bergaran beste bi farmazia zeuden joan den mende hasieran, Pantaleon Zabala, eta Hermanos Atxa, biak Bidekurutzetan. Eta hiru horietatik, Zabalak bakarrik jarraitzen du zerbitzua ematen zabaldu zuteneko leku berean, eta zabaldu zuen familia berberak: "Aitaita bertan bizi zen, etxearen beheko partean zabaldu zuen farmazia. Orain ere, portal barruan segitzen du farmaziak. Egia esan, oraingoaren nahiko antzerakoa zen hasierako hura. Barruko partean botikaostea (rebotika) eta kanpokoan, botika. Hori bai, orduan askoz ere medikamentu gutxiago zeuden. Gehienak formulak izaten ziren, eta prestatu egiten ziren; gurean, aitaitak. Existitzen zen aspirina, sakarina… baina bestela, denak preparatuak ziren", kontatu du Iñigo Zabalak (Bergara, 1971), Zabala farmaziako ardura duen hirugarren belaunaldiko semeak.

Farmazialaria baino gehiago

Etxean asko entzundakoa izaki, Iñigo Zabalak jakin badaki orduko farmazialariaren zeregina oraingoena baino handiagoa ere bazela: "Medikuak baziren, baina ez zegoen zentrorik, anbulatoriorik. Medikuak gaixoaren etxera joan behar izaten zuen, eta han egin kontsulta. Beraz, botiketan gauza asko egiten ziren: lehen sorospenak, zauriak josi, grapak ipini… Esku-ohe bat geneukan botikaostean halakoetarako.

Bestalde, gaixotasunen larritasuna bera ere oraingoa baino askoz handiagoa izaten zen. Adibidez, beherakoak oso dramatikoak izaten ziren, batez ere umeenak, hil egiten ziren deshidratatuta. Ez zegoen antibiotikorik. Penizinilarik ez zegoen. 1928an deskubritu zuten, eta II. Mundu Gerraren ostean komertzializatzen hasi ziren. Espainiara iritsi orduko… Sulfamidak-eta bazeuden, baina antibiotikorik ez. Eta askotan kontrabandoz ekarri behar izaten ziren Frantziatik edo beste nonbaitetik", jakinarazi du Zabalak.

Poligonotik Barrenkalera

Mari Carmen Puy ama (Pasaian jaiotakoa) urte luzez Zabala farmazian jardundakoa ere bada. Jaioterritik Bergarara etorri zenean poligonoko farmazia zabaldu zuen (orain Estella farmazia, orduan Farmacia Puy, Bergarako laugarrena). Hura itxi ostean hasi zen oraingo Zabalan lanean. Eta Zabalak berak ere izan du amaren izena: "Farmacia Puy izan zen 1987tik 2003ra", kontatu du Mari Carmen Puyk berak.

Anekdotak: kanikak

Kontuak kontu, ama-semeak batera daudela aprobetxatuta, Zabala farmazian bizi izandako anekdoten gainean galdetzeko aprobetxatu, eta biek bat egin dute anekdota bera gogora ekartzean: "Lehen egiten genuen preparatu bat zela limonada libragarria, purgatzekoa. Edateko soluzio bat zen, limoi urarekin egindakoa. Behin etorri zen gauez pertsona bat, eta halako bat prestatu behar zen. Hartu zuenean, komentatu zuen: *Baina honek kanikarik ez dauka?* Izan ere, lehen, tabernetan-eta saltzen ziren freskagarriek kanika bat izaten zuten; hari jo egiten zitzaion, behera joaten zen, eta freskagarria edan; eta gero, gasarekin kanika igo egiten zen, eta botila itxi egiten zuen. Gurera etorri zen hark freskagarri moduan hartu zuen gure preparatua. Hori beti kontatu izan da gustura gure etxean", diote barrezka.

14 bider lapurreta egitera

Horren gustura ez, baina ondo gogoan dituzte anekdota modura -edo azken urteotan Zabala farmaziak jasan izan dituen 14 lapurreta. "Nik ezagutu izan dut dena zabalik egoten zela, portala ere zabalik, norbaitek gauez etortzeko beharra baldin bazuen, batez ere. Eta lapurreta asko izan genituen. Batez ere droga asuntuarekin lotuta 80ko hamarkadan. 14 aldiz sartu ziren. Batean laban batekin, eta beste batean pistola eta guzti. Birritan, gainera, farmazia zabalik zegoela sartu ziren. Hori bai, zorionez, ez zen zauriturik egon".

Bidean aurrera

Gaur egun lau langile ditu Zabala farmaziak. Iñigo eta Jon Zabala eta bi langile. Ondoan duen optikan dihardu lanean, berriz, Amaia Zabala arrebak. Izan ere, Zabala farmazia zabaldu zutenean, farmazia-drogeria zen, portalaren alde banatan. "Drogeria itxi ostean, perfumeria zabaldu genuen, 1995ean. Hura itxi eta optika zabaldu genuen orain bederatzi urte".

100 urte egin ditu Zabala farmaziak, eta osasuntsu segitzen du: "Gure esku dagoen bitartean zabalik egongo da. Ez dakigu zer gertatuko den, baina gure partetik ahalik eta denbora luzeenean segituko dugu", dio Iñigo Zabalak.

DATUA

14

LAPURRETA SAIAKERA

Drogekin lotuta, 14 lapurreta saiakera izan zuen Zabalak 80ko hamarkadan.

ESANAK

"Gure partetik ahalik eta denbora luzeenean segituko dugu farmazian lanean"

IÑIGO ZABALA | FARMAZIALARIA

Botikaosteko tertulia

Botikaoste eder askoa dauka Zabalak. Barrenkalen hasi eta kalearen beste alderaino iristen dena, Irizar kaleraino. Hortxe daude medikamentuz betetako apalak eta laborategia. Baina baita altxor berezia bat ere: "Mahaia Zabala zabaldu zenekoa da. Zenbat tertulia egin diren hemen!", gogoan dute Zelako tertuliak?: "Herritarrak, politikoak… etortzen ziren, baina ez zen politikaz berba egiten. *Tertulia de rebotica* esaten zitzaion. Telebistarik ez zegoen, irratiak ere gutxi, farmazia egunero zabalik… sarri samar egiten ziren".

Iazkoa baino %3,77 txikiagoa da udal aurrekontua

- 33,5 milioi pasatxoko aurrekontua onartu dute
- Gizarte gaiek lehentasuna izango dute aurten ere

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

2012ko abenduaren 26an onartu zuten osoko bilkuran Arrasateko 2013ko udal aurrekontua. Modu horretan, 33.569.096,32 euro izango ditu Arrasateko Udalak aurten herria gobernatzeko.

Diru kopuru horretatik 1.668.257 euro AUKEAri dagozkio eta 3.409.392,83 euro, berriz, Iturbide Egoitzaren aurrekontua da. Guztira, 2012koa baino %3,77 txikiagoa da 2013an Udalak daukan aurrekontua.

Osoko bilkurara eramandako proposamenak Bilduko eta Aralarko zinegotzien aldeko botoak jaso zituen; PSE-EE eta EAJ taldeak, berriz, kontra azaldu ziren eta PPko zinegotzia ez zen aretoan egon.

Horrez gainera, alderdi sozialistak 17 emendakin aurkeztu zizkion Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontuari; ez zen bat bera ere aurrera atera.

Hala, 2013ko diru kontuei begiratuta, Udalak iaz baino diru gutxiago dauka aurten kudeaketarako. Egungo egoera ekonomikoa zein den azaltzerakoan, eragile nagusien artean Foru Fondoaren eboluzio negatiboa, Udal Legea onartu barik egotea eta beste administrazio batzuetatik jasotzen diren diru-laguntzen murrizketak aipatu zituzten.

GASTUA SAILKA

SAILA	GASTUA
Udal Zerbitzuak	%41,16
Ongizatea	%8,30
Finantza zorra	%8,04
Kultura-kirolak	%7,28
Pertsonala	%7,05
Hirigintza	%5,40
Euskara	%3,87
Aukea	%3,39
Ingurumena	%2,89
Hezkuntza	%2,50
Gobernu organoak	%2,47
Ogasuna	%2,47
Gazteria	%2,15
Enplegua	%1,29
Iturbide	%0,98
Emakumea	%0,75

Zerbitzuen kalitatea mantendu

Oro har, Udalaren erronka nagusia herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen kalitatea mantentzea izango dela adierazi zuten: "Egoera hau gainditzeko, guztiz aldatu behar dugu gauzak egiteko modua".

Hala, egoerari agenda estrategiko batetik heltzeko xedea azaldu du Udal Gobernuak, erronka garrantzitsuei epe ertain eta luzera erantzun ahal izateko. Horrez gainera, gastu politiketan lehentasunak erabilgarri diren baliabideen bolumenari egokitzeko modurik egokiena "gastu arruntetan zorrotz jokatzea" dela gaineratu zuten.

Irizpide nagusiak

Hala, Gobernuak landutako aurrekontuaren memorian azaltzen diren 2013ko aurrekontuen ezaugarri nagusiei dagokienez, gizarte gaiei lehentasuna emango zaie. Diru kopuru handia bideratuko dute herritarrei kalitatezko zerbitzua eskaintze aldera, eta, "behar izanez gero, kontu-sailak handituko" ditu Udalak.

Bestalde, proiektu txikien alde egiten jarraituko du Udalak; tartean, azokaren proiektuaren bigarren fasearen barruan, azoka bera definitzeko asmoa azaldu du, finantza plangintza, >

INAZIO AZKARRAGAURIZAR | ARRASATEKO ALKATEA

"Jendearen ongizatea da gure lehentasuna"

2013ko aurrekontuak onartuta, Inazio Azkarragaurizar alkateak horiei buruz egin dio berba GOIENAri.

Iazkotik hona jaitsiera igarri da aurrekontuetan. Zertan islatzen da, batez ere?

Batez ere, inbertsioetan. Izan ere, ez gaude haietako hainbat bukaeraraino burutuko ditugula bermatzeko moduan. Gainera, astakeria izango litzateke egoera honetan Udala gehiago zorpetzea. Beraz, lehentasunak markatu ditugu 2013rako eta datozen urteetarako, eta haien araberakoak dira mantendu ditugun inbertsioak. Aipagarriena da Ongizate Saileko eraikin berriarena; gure ustez, oso garrantzitsua da, arrasatearrei zerbitzu hau kalitatez eskaini ahal izateko, eta urte honetan bertan martxan izan nahiko genukeen arren, 2014ra arte itxaron beharko dugu obrak bukatzeko. Horixe egoera ekonomiko honen islatako bat.

GOIENA

Zeintzuk izango dira aurtengo ildo nagusiak?

Ongizatea, parte hartzea, enplegua, euskara eta kultura, mugikortasuna eta hondakinen kudeaketa arduratsua.

Mugikortasunean, esaterako, 2012an Alde Zaharreko oinezko gunea egonkortzea eta ospitale inguruko aparkamendu arazoa konpontzea lortu dugu eta 2013an TAO sistemarekin hasiko gara. Garabi zerbitzuaren funtzionamendua egokitzea eta bide seinaleak zein bidegorri zatien loturak hobetzea dira aurten egingo diren beste batzuk.

Herritarren parte hartzea eragiten jarraituko dugu proiektu txikiak bultzatuz; Udal Azokaren proiektuaren definizioa adibide. Hondakinen kudeaketa arduratsua bultzatuko dugu herritarrak informatuz eta beraien inplikazioa topatuz.

Gizarte ongizateari ematen diozue garrantzia, ezta?

Gaurko egoera kontuan izanda, jendearen ongizatea zaintzea lehentasunezkoa dela uste dugu. Sail honen aurrekontuari buruz azpimarratu nahi dugu aurreko urtean gastatu zena oinarri hartu dugula 2013ko partida kalkulatzeko eta beharrezkoa baldin bada gehitu egingo dugula. Aurten ere, orain arteko zerbitzu guztiak mantenduko ditugu eta, gainera, 2013an erronka berri bat daukagu: Arrasaten elikagai banku bat zabaltzeko gestioak egiten ari gara.

Oposizioak aurrekontu kontinuistak direla esan zuen proposamena aurkeztu zenutenean.

Oposiziokoei abenduko osoko bilkuran azaldu genien azken urteotan egindako kudeaketari esker gaudela, krisialdia krisialdi, egoera ekonomiko onean. Herritarrei ematen dizkiegun zerbitzu guztiak mantendu izanak erakusten du hori. Beraz, zentzu horretan kontinuistak izaten jarraituko dugu. Zertarako aldatu ondo funtzionatzen duen zerbait? Bestetik, gustatu ala ez, gure helburu estrategiko propioak dauzkagu; hortik datoz lehen aipatu ditudan ildoak.

Pausoak ematen ari gara ongizatean, mugikortasunean... guztietan. Eta hurrengo urteetan ere norabide berean pausoak ematen jarraitzeko asmoa dugu.

GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOA

Juan Karlos Garitano | EAJ taldeko zinegotzia

"Onartu diren aurrekontuek ez dute Arrasateren egoera inolaz ere erreflexatzen"

"EAJren Udal Taldekook ez genituen aurrekontuak onartu, ez baitute Arrasateren egoera inolaz ere erreflexatzen.

Inbertsioak 2012koekin alderatuta %18,5 murriztuko dira, baina 240.000 euro bideratuko dira Mankomunitatera, atez ateko sistema inposatzeko.

Enpleguaren sutapenaren harira, ez daukate inolako justifikaziorik egiten duten %85eko beherakadak ezta erlazionatutako pertsonalaren %43ko murrizketak ere. Aldiz, Gobernu Organoen partida 132.284 euro gehitzen da, liberatu politiko gehiago eta Gobernuaren marketinerako pertsonaren kontratazioaren ondorioz.

Udal barneko parte-hartzea bultzatzen ez duen gehiengo absolutudun Gobernuaren aurrean, emendakinek ez daukate ibilbiderik. 2012ko aurrekontuen aurrean planteatu genituen emendakin guztiak bertan behera utzi zituzten. Hau bera gertatu zen abenduaren 26ko osoko bilkuran, non, PSOEko Udal Taldeak aurkeztu zituen 17 emendakinetatik bat bera ere ez zuen onartu Bilduk."

Aritz Arrieta | PSE-EE taldeko zinegotzia

"Aurrekontu kontinuista batzuen aurrean gaude, iaztik ez dago ezberdintasunik"

"Hamazazpi emendakin aurkeztu dizkiogu Udal Gobernuak aurkeztutako proposamenari; hain zuzen, aurrekontuak hobetzeko asmoz.

Uste dugu aurrekontu kontinuista batzuen aurrean gaudela; hau da, ez dutela proposamen berririk egin iazko aurrekontutik oraingora.

Jakin badakigu aurrekontu kontuetan mugikortasuna zaila izaten dela. Baina guk 700.000 euroko emendakinak aurkeztu ditugu; horietatik, lehentasuna eman gura izan diegu emendakin sozialei. Gainera, dagoeneko existitzen diren partida batzuk kenduta, soberakinak egongo liratekeela pentsatzen dugu.

Egia da ez dela gure emendakinetatik bat bera ere onartu, baina, Udal Gobernuak esandakoaren arabera, posible izango da horiek batzordeetan lantzea datozen hilabeteetan.

Beraz, osoko bilkuran ez onartu arren, agian aurrerago onartuko dira zuzenketak, eta argi geratzen da alderdi sozialistak egiten duen lana islatuta gera daitekeela aurrekontuetan. Gainera, Udaleko gobernuarekin zerbait onar dezakegula ikusi da".

Trafikoaren ikerketa egingo da. | GOIENA

Ongizate Saila lekualdatu gura dute.

kudeaketa eredua zein arkitektura diseinua eginda.

Bestalde, Mugikortasun Planekin segitu (TAO sistema abian ipiniz edota seinaleak hobetuz) zein langile publikoen lan baldintzak mantendu eta hobetu gura dituzte.

Garapen Ekonomikoari dagokionez, berriz, txostenean jasotzen denez, Lanbidek murrizketak egin ditu enplegua sustatzeko programako zenbatekoetan. Halaber, urteroko laguntza programa mantendu edota lanpostu berriak dakartzaten enpresa berriak sortzen jarraitu gura dutela jakinarazi dute Udal Gobernua osatzen duten taldeek.

Euskara sustatzeko jardueretan zein hezkuntzaren kalitatea hobetzearen alde apustua egiten jarraitzeko konpromisoa hartu du Udal Gobernuak. Gainera, kirolari dagokionez ere, aisialdi kirola, osasunerako kirol jarduerak zein eskola kirola sustatzen jarraituko duela jasotzen du aurkeztutako txostenak.

Aurrekontuak prestatzeko orduan, bestalde, hiri hondakinak ere kontuan hartu dituzte: "Gure apustua argia da: jomuga zero zabor sortzen duen kudeaketa intregralaren alde egitea".

Ingurumena ere aintzat hartu dute: "Kurtzetxiki mendia berreskuratzea da gure helburua. Xede hirukoitza dugu: natura zaintzea, ganadu aprobetxamendua sustatzea eta aisialdirako erabiltzea".

Gastuak ehunekotan

2013ko aurrekontua onartuta, gastuei erreparatuz, aurten ere ohiko joerari eutsi eta pertsonal eta udal zerbitzuen funtzionamendura bideratuko da aurrekontuaren zati handi bat: guztira, %60,43.

Maileguen interes eta amortizazioetarako, berriz, %8,04 baliatuko da. Bestalde, diru-laguntzak finantzatzeko asmoz, aurrekontuaren %19,14 erabiliko dute; %9,06 inbertsioen zuzeneko exekuziorako; %2,63 administrazio edo erakunde batzuekin eginiko inbertsioak elkarrekin finantzatzeko; eta %0,70 langileei aurrerakin itzulgarriak emateko eta Garaia S. Coop.-en kapitalaren ekarpena egiteko.

INBERTSIO NAGUSIAK

Zerrajeran Gizarte Ongizate Sailerako bulego berriak egitea[1]
375.000 euro

Ondare Ondasunak erostea[2]
210.000 euro

Argiteri publikoa, ur sareak, bide publikoen urbanizazioak eta asfaltatuak
415.000 euro

Zarugaldeko mendi hegalak[3]
104.000 euro

Monterrongo agertoki berria[4]
140.000 euro

Trafikoaren ikerketa eta TAOren ezapenak, bide seinaleztapenen inbertsioak
220.000 euro

Hezkuntzako inbertsioak
150.000 euro

Debagoieneko Mankomunitateak egin behar dituen inbertsioetarako udal ekarpenak
274.434,55 euro

Gipuzkoako Ur Patzuergoak egin behar dituen inbertsioetarako udal ekarpenak
468.559 euro

Udalak egin beharreko gainontzeko inbertsioak
1.085.955 euro

Beste elkarte batzuek egin beharreko inbertsioetarako Udalaren gainontzeko ekarpenak
42.000 euro

INBERTSIOAK, GUZTIRA
3.484.948,55 euro

1: Proiektu osoaren %50. Gainontzeko %50a 2014ko aurrekontuaren kontura.
2: Makatzenan irisgarritasun ekimenak ahalbidetzeko.
3: 2012-2013ko aurrekontuen artean finantzatu beharrekoa. Kostu osoa 254.000 euro.
4: 2012-2013ko aurrekontuen artean finantzatu beharrekoa. Kostu osoa 200.000 euro.

Haurren konfiantza hizpide hilaren 24an

Z.V.D.M. | ARRASATE

Txatxilipurdiren ekimenez, Nerea Mendizabalek *Gure beldurrei begiratuz, haurren konfiantza bermatzen* izeneko berbaldia eskainiko du urtarrilaren 24an.

Psikopedagogoa da Mendizabal, eta jorratuko duen gaia azaldu digu: "Guraso bezala ditugun beldur eta kezken aurrean ditugun jarrerak ulertu eta zaindu nahi ditugu, eta ez kendu. Beldurrei aurre egiteko ditudan estrategiak haurrentzako nahi dudanaren bidean dauden testatu ondoren, beharrezko ikusten badugu babesteko beste moduak aurkitzen saiatuko gara".

Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan izango da Nerea Mendizabalekin hitzordua, hilaren 24an, 17:30ean.


Jose Mentxaka. | INTXORTA ELKARTEA

Erbestean bizi zen Jose Mentxaka zendu da, 92 urte zituela

Frantziako Audun Le Tiche herrian erbesteratuta bizi zen Jose Mentxaka arrasatearra urtarrilaren 4an hil zen, 92 urte zituela. Intxorta elkarteak honela gogoratu du: "1948an erbesteratua, frankista polizia buru zen Meliton Manzanasengandik ihesi. Beti arte, Joxe, isiltasuna hausten jarraituko dugu, askatasunaren kimu berriak ikusi arte".

Bitter Honey arrasatearrak. | BITTER HONEY

Bitter Honey taldeak Londresko Euskal Etxean joko du asteburuan

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Arrasateko Bitter Honey laukoteak estreinakoz joko du atzerrian; Londresko Euskal Etxean izango dira bihar, 19:00etan, Jon&Sugramas taldearekin batera. Egubakoitz gauean abiatuko dira, domekan etxeratzeko asmoarekin.

Di-da batean prestatutako bidaia izan da, abenduaren 27an jaso zuten-eta, Londrestik, kontzertua emateko proposamena, hasiera baten jo behar zuen Willis Drummond taldearen hutsunea betetzeko eskaerarekin. Egonaldi laburra egingo dute, gaur gauean abiatuko dira eta domeka arratsaldean dute itzulera hegaldia; hala ere, ilusioz dira taldekideak, aurreneko aldiz joko dute-eta atzerrian; gainera, sekula elkarrekin jo ez duten arren, aspaldiko lagunak diren Jon&Sugramas taldearekin.

Ordubeteko emanaldia

Hardcore kutsua dute eta ingelesez abesten dute, eta biharko, kantu zahar eta berriekin osatu dute ordubeteko errepertorioa, taldeak kaleratutako bi diskoen erakusle.

Londresen bizi diren euskaldunekin elkartzeko desiratzen daudela diote; besteak beste, han bizi diren arrasatear eta gertukoekin egin dute dagoeneko hitzordua.

Urtarrilaren 23ra bitartean aurkez daitezke Inauteriak iragartzeko kartel lehiaketako lanak

Arrasateko Udalak martxan ipini du kartel lehiaketa. Edozeinek har dezake parte sariketan. Diseinua egiteko orduan teknika librea erabil daiteke; bertikala izan behar du, eta, jaien ezaugarriren bat jasotzeaz gainera, *2013 Inauteriak Arrasate* agertu behar du idatzita. Lanak urtarrilaren 23ko 19:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira BAZeko bulegoan. Irabazleak 400 euro eskuratuko ditu. Oinarri guztiak udaletxeko iragarki-taulan ikusgai egongo dira, baita Udalaren webgunean ere.

Hastapen mailako ikastaroa antolatu du Loixe Zeramika Elkarteak datozen hilabeteetarako

Arrasateko Loixe Zeramika Elkarteak beste ikastaro bat antolatu du. Hastapen ikastaroa izango da, eta Imanol Aranburu kidea izango da irakaslea. Urtarrilaren 14an hasi eta martxoaren 14ra bitartean iraungo du, eta martitzen eta eguenetan elkartuko dira Loixe elkarteak Zalduspe kalean daukan lokalean. Interesatuok informazio gehiago gura izanez gero edota izena emateko, deitu 636 24 42 49 zenbakira.

Lurpeko edukiontziak konpondu barik daudela-eta, "boikota" salatu du Arrasate Garbiak

UBANE MADERA | ARRASATE

Arrasate Garbia plataformak salatu gura du "Arrasateko Udalak eta Mankomunitateak lurpeko edukiontziei egiten ari den boikot politika".

Plataforma horren esanetan, "lurpeko edukiontzi horiek, inbertsio garrantzitsu eta herriaren garbitasun, higiene eta kalitate urbanistikoaren hobekuntza nabarmena suposatu dute".

Gauzak horrela, plataformako kideek ez dute ulertzen zergatik dauden Arrasaten lurpeko hainbat edukiontzi konpondu barik. Zehazki, erdialdean dauden edukiontziak aipatzen dituzte. "Zergatik kostatzen da konpontzea", galdetzen dute.

"Egiteko moduak" salatu

Horrekin batera, Arrasate Garbiak Udalaren jarrera salatu du: "Gure Udalak daukan jarreraren beste detaile bat besterik ez da. Birziklapenaren eta zero zaborren alde dagoen baina atez atekoaren inposaketarako ez dio axola zenbat kostatzen den. Gure Udalaren egiteko moduak azpimarratu nahi ditugu: beti guztion ongizatean eta arrasatearrongan pentsatzen baina: noiz hasi behar da gure Udalak denok bat egitean pentsatzen, denok gustura eta gure herriaz harro sentitu gaitezen?"

JOSU PEREDA | MANKOMUNITATEKO ORDEZKARIA

"Lurpeko edukiontziak dira bilketa zerbitzuari boikota egiten diotenak"

Salaketoi erantzuteko Josu Pereda, Arrasateko Udaleko eta Manomunitateko ordezkariarekin izan gara.

Boikota salatzen dute...

Interesa dutenak animatu nahi ditugu Googlen *averías contenedores soterrados* idaztera. Konturatuko dira Espainiako hiri eta herri ezberdinetan etsi dutela sistema hau mantentzean, bi arrazoigatik: Bata ekonomikoa eta, bestea, sistema honek ez duela bilketa zerbitzua bermatzen, gehienean izorratuta egoten delako. Lurpeko edukiontziak dira bilketa zerbitzuari boikota egiten diotenak. Dena den, estetikak garrantzia duen arren, ez da helburu bat. Helburuak dira: bilketa selektibo maila altua lortzea, sistema efizientea izatea eta herritarren parte hartzea gauzatzea.

"Gaiak heldutasunez parte hartzea eskatzen du"

Konpontzea garestia da?

Diseinuan akats oso larriak izanik, behin eta berriz izorratzen dira. Konponketek koste handia dute: 2012an 10.109 euro kostatu zaio Udalari eta kostea handiagoa izango zen izorratutako guztiak kondu bagenitu. Eta sistema sarri izorratzen denez, eragozpen handiak sortzen ditu bilketa zerbitzua dagokion maiztasunean egiteko. Gainera, bi urteotan, zahartzen doazen heinean, sarriago izorratzen dira edukiontzi hauek. Aurreko guztia kontuan hartuta eta etorkizunean euren beharrik izango ez dugula aurreikusita...

Higiene eta kalitate urbanistikoa ereazpimarratzen dituzte...

Lurpeko edukiontziak estetika hobetzeko ezarri ziren. Eta hori beteko lukete ez balira izorratuko eta ondo erabiliko balituzte: hondakinak inguruan, edozein modutan ez balira utziko. Eta higiene aldetik ez da izango hain antihigienikoa den sistemarik: erratza pasatu eta alfonbrapean zikinak ezkutatzearekin konparatuko nituzke lurpeko edukiontziak. Hondakinak lurpean ezkutatzearekin arazoa konpondutzat ematea sinplekeriaz jokatzea da. Hondakinen gaiak heldutasunez jokatzea eta denon onurarako izango den sistema berri hau adosten parte hartzea eskatzen du.

Maiatzean hasita hilero mendi bizikleta irteera bat egingo dute. | GOIENA

Mendi elkartera beldur barik gerturatzeko proposamena egin dute

Arrasateko mendizale taldeak batzar orokorra egingo du datorren eguenean, urtarrilak 17

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Urte berria hastearekin batera aurkeztu du Besaide Mendizale Elkarteak 2013rako aurreikusi dituen kirol jarduerak. Eta horrekin batera, urtarrilaren 17an (datorren eguena) egingo duten batzar orokorrerako deitu ditu bazkideak (19:00etan Kulturaten).

Besaideko egingo zuzendaritza batzordeak urte honen amaieran bukatuko du lau urteko jarduna. Hala, datorren asteko batzar orokorrean aurrekontuak onartzeaz batera gai horri ere helduko diote. Elkarteak jakitera eman duen moduan, Besaiden lantalde polita dago lanean jarraitzeko gertu, eta egungo zuzendaritza taldeko lagun batzuk ere jarraitzeko gertu daude, baina jende berria ere behar da, proposamen berriekin: "Gonbidapena egin nahi dugu, beldurrak alde batera utzi eta elkartera gerturatzeko, barne funtzionamendua nolakoa den ikusi eta zuzendaritza berrian parte hartzera animatzeko", adierazi dute elkartetik.

Egitarau zabala gertatu dute

2013 urteari begira, Besaideko lagunek egitarau zabala dute gertu. Normala den moduan, hilabete hauetan elurretara joateko proposamenak dira nagusi, bai eski alpinoa edo baita mendiko eskia egiteko (egitarau osoa *www.besaide.org*).

Hala, hilaren 19an eta 20an mendi eskia egitera joango dira Petit Fachara, eta Bachimañako aterpean igaroko dute gaua (izenematea hilaren 14an eta 15ean, Besaiden, 19:30etik 20:30era).

Doke antzerki taldeak 'Paradisuko atean' antzezlana eskainiko du Amaia antzokian etzi, domeka

Iazko ekainaren 1ean estreinatu zuten Doke antzerki taldeko kideek antzezlan berria: *Paradisuko atean*. Heriotzaren gaia jorratzen du lanak eta komedia eta drama nahasten ditu. Antzezlana tanatorio batean kokatzen da eta hildako bat dago. Tanatoriora hildakoaren lagun eta familiartekoak gerturatuko dira eta hildakoak guztia ikusi eta entzungo du. Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzitako antzezlana da. Emanaldia domekan izango da, 19:30ean Amaia antzokian. Mondraberriren aldeko emanaldia izango da.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Abokajarro-Aston Birra	11-0
AT Betrayer-Aldatz	0-4
Dribling-Iriztu	1-4
Iluna Taberna-Lasagabaster	3-15
Fidel & Discipulos-Iluntz	3-0
Sonografos-Haizea's Weah	9-2

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Iriztu	16	6
2	Sonografos	16	6
3	Abokajarro	13	5
4	Ostantz	11	5
5	Dribling	9	5
6	Lasagabaster	9	6
7	Aldatz	9	6
8	Fidel & Discipulos	6	5
9	Haizea's Weah	6	6
10	AT Betrayer	4	5
11	Iluntz	4	6
12	Aston Birra	1	6
13	Iluna Taberna	0	5

PARTIDUAK

Urtarrilak 12, zapatua

10:30 Iluna Tab.-Aston Birra / **Ostantz**
11:30 Ostantz-Iluntz / **Aston Birra**
12:30 Dribling-Lasagabaster / **Iluntz**

Urtarrilak 13, domeka

10:30 Fidel & Discip.-Aldatz / **Haizea's**
11:30 AT Betrayer-Haizea's / **Fidel &.**
12:30 Abokajarro-Sonografos / **Betrayer**

Atsedena: Iriztu.

Urte berriko lehen estropozuen zain

Abenduaren 16an jokatu zuten Zaldibarko seigarren jardunaldia, eta ordutik ia hilabetez atsedena izan dute txapelketako 13 taldeetako ordezkariek. Geldi egoteko denbora luzea da hori, eta ikusteko dago talde bakoitzak zelan hasten duen urte berria. Iriztuk eta Sonografosek indartsu esan zioten urteari agur... berdin itzuliko dira?

Asteburuan partidu erakargarriak

Hain zuzen, Sonografosek Irizturi aurre hartzeko aukera izango du, talde horrek atseden izango du-eta. Sonografosekoek, baina, kontrario gogorra izango dute, hirugarren postuan dagoen Abokajarro (domekan, 12:30ean).

Bearteko margolarien erakusketa Aroztegin. | ARRITXU BARRUSO

Inoiz baino bereziagoa Bearteko erakusketa

Urtarrilaren 20ra arte egongo da zabalik Barrenkaleko Aroztegi aretoan

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Aroztegi aretoko urteroko hitzorduetako bat izaten da, herritarrek oso gustura hartzen dutena: Bearteko margolarien erakusketa. Bada, aurten haiek izan dira Barrenkaleko aretoko egitaraua zabaldu dutenak. Urtarrilaren 20ra arte Bergarako artisten elkarteko bazkideek egindako 42 lan ikusi ahal izango dira Aroztegi aretoan.

Juanjo Altuna margolaria da Bearteko lehendakari berria, pasa den abendua ezkero, eta hark adierazi digu aurtengoa inoiz baino erakusketa osatuagoa eta bereziagoa dela: "Erakusketa honek daukan gauzarik politena da urtetik urtera ikusten dela margolariak nola doazen garatzen eta teknika hobetzen. Aurten oso pozik gaude erakusketak emandako emaitzarekin eta herritarrengandik ere horixe izan da jaso duguna: inoiz baino bereziagoa dela aurtengoa".

Zalantza barik, berezia eta osatua da. Denetariko teknikak ikus daitezke: inpresionismoa, akuarelak, akrilikoak, olioak eta baita teknika mistoak ere. Hain justu ere, horixe da erakusketa horren ezaugarrietako bat: aniztasuna eta aberastasuna.

Artisten ilusioa agerian

Altunaren ustetan, erakusketa horren ondo geratu bada, hori artistek ipinitako ilusioarengatik eta hartutako lanarengatik izan da: "Gaiari eta exekuzioari dagokionez, ondo landu eta pentsatutako lanak ekarri dituzte artistek. Sumatzen da propio erakusketarako prestatutako margolanak direla".

Beart osasuntsu

Gaur egun 80 bazkide inguruk osatzen dute Bergarako artisten elkartea. Bertan, besteak beste, margo eskolak ematen ditu Riki Azkargorta artista bergararrak, eta zapatuetan umeendako eskolak ere ematen dituzte. Altunak gogorarazi du edonor batu daitekeela elkartera hileko kuota ordainduta.

Aroztegi aretoko ordutegia

Aroztegiren ordutegia da astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.

Mikel Mitxelena errenteriarrarena izango da hurrengo erakusketa Aroztegin.

ESANAK

"Urtetik urtera artistak teknika hobetzen doazela ikusten da"

JUANJO ALTUNA | PRESIDENTEA

EH Bildu: "Hondakinen arazoari irtenbidea guztien artean eman behar diogu"

Osasunarekin eta ingurumenarekin konpromiso sendoa adierazi dute asteon egindako agerraldian

EH Bilduko ordezkariak Irizar jauregiko prentsaurrekoan. | MONIKA BELASTEGI

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bergarako EH Bilduk prentsaurrekoa egin du asteon hiri hondakinen gaiaren gainean. Osasunarekin eta ingurumenarekin konpromiso sendoa adierazi zuten agerraldian, eta "kolore politikoen gainetik hondakinen arazoari konponbidea guztien artean eman behar" diogula, esan zuten. Horren harira, EH Bildu "prest dago herritarrei entzun, beraiekin hitz egin eta birziklapen maila egokia ematen duen gaikako sistema adosteko".

Maritxu Goikoetxeak eta Maite Aristegik hartu zuten hitza eta Aristegik hondakinen gaiaz EH Bilduren alternatiba azaldu zuen: "EH Bilduk Europako legedia jarraitu eta hondakinak gaika biltzeko sistema egokiena herritarrekin batera aukeratuko du. Udalak atez atekoa proposatu du, ikerketa guztiek erakusten dutelako birziklapen maila altuena lortzeko sistemarik egokiena dela; gainera, ekonomikoki erabat bideragarria da eta munduan turista gehien jasotzen duten hainbat lekutan erabiltzen dute: Erroman, Mallorcan eta Kataluniako kostaldean, kasu. Baina EH Bildu prest dago herritarrei entzun, beraiekin hitz egin eta birziklapen maila egokia ematen duen gaikako sistema adosteko".

Aristegiren esanetan, EH Bilduk garbi dauka "hondakinekin egun arazoa" dugula, eta horri irtenbide bat emateko konpromisioa hartu du, "jakinda, horretarako bilketa sistema berri bat behar dela". "Birziklapen maila altua lortzea" da alderdiaren beste konpromiso bat, eta horren harira zera argitu zuen Aristegik: "Europatik argi eta garbi dator agindua: hondakinak gaika bildu eta birziklatu egin behar dira; 2020tik aurrera ezin izango da erre birzikla daitekeena. Zer zentzu dauka orain errauskailu berri bat egiteak?".

Eta errauskailua aipatuta, "osasunarentzat oso kaltegarriak" direla ere nabarmendu zuen: "Ikerketa guztiek diote errauskailuen inguruan bizi direnek minbiziak izateko arriskua asko igotzen dela, eta guk herritarren osasuna ez dugu arriskuan jarriko. Errauskailurik ez egiteko birziklatu egin behar da". 5. edukiontziaren gainean ere aritu ziren, eta ez dute alternatiba gisa ikusten: "Dagoen herrietan, ez da %35 baino gehiago birziklatzea lortu. Beharrezkoa den gutxieneko birziklapen maila, beraz, ez da lortzen".

EH Bilduk garbi dauka ingurumena zaintzea "guztion betebeharra" dela, eta zera gehitu zuen: "Guztia bideratzeko, herritarroi entzun eta zuekin batera, adierazitako minimoak beteko dituen hondakinak biltzeko sistema egokiena zein den erabakiko dugu. Horretarako, parte hartze prozesu zabala jarriko du martxan Udalak hurrengo asteotan".

"Joko zikina" salatu dute

Gai honekin "EAJ eta Bergara Garbia joko zikina" egiten ari direla ere salatu zuten. "Atez atekoaren kontra egon eta mobilizatzeko eskubide guztia dute; ez, ordea, gezurra eta manipulazioa erabiltzeko. Hamaika astakeria esan dituzte oposizioa erakusteko: alkateak jarrera frankistak erabili eta ezindu fisikoak behartu behar direla defendatzen duela diote; atez atekoa zikina dela; arratoiak erakartzen dituela; errauskailuak Donostiako su artifizialek baino gutxiago kutsatzen duela… Gezurra, gezurra eta gezurra". Eta Antzuolako adibidea eman zuten: "Egun hiri hondakinen %90 baino gehiago biltzen du berezita, bilketa-trataera kostuak merkeagoak dira eta ez dago polemikarik".

EAJk gaia "politizatu eta manipulatu" duela argi dute. "Gipuzkoan aldaketa politiko eta soziala oztopatzeko, EAJren eta Gipuzkoako elite ekonomikoen pribilejioak mantentzeko".

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxistegi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urrate 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faks.: 943 76 04 77

Jesus Elortza | Alkatea

"Lasaitasun mezua igorri nahi diet herritarrei"

Atez atekoa azkenaldian ematen ari den zeresan handia dela-eta Elortza alkatearekin izan gara

Jesus Elortza alkatea bulegoan. | MONIKA BELASTEGI

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Prozesu parte-hartzaile bat abiarazteko asmoa duzue datozen asteetan. Zertarako eta nola gauzatuko da?

Bai, hainbat eta lasterren ekingo diogu prozesu horri, hondakinen bilketa sistemari buruzko elkarrizketa eraikitzailea bideratu nahi baitugu. Herritarren kezkak entzun nahi ditugu, beldurrak uxatu eta herriko giroa baretu. Parte-hartze prozesua definitzen ari gara, orain arte egin direnen formatua berrikusten; laster egongo gara hasteko moduan.

Oposizioak eta Bergara Garbia plataformak informaziorik eza eta inposizioa salatu dute. Horri erantzutera dator prozesua?

Ahalegin handia egin dugu herritarrei gure mezua helarazteko. Bilera ugari egin dugu auzo, komertzio, elkarte, industria eta abarrekin. Baina konturatzen gara herritar askorengana ez garela iritsi. Gure nahia da herritarrek birziklatzearen beharraz kontzientzia hartzea, gure ondorengoei inguru ahalik eta duinena uzteko.

Zergatik da atez atekoa hobea bosgarren edukiontzia baino?

Mankomunitateak proba modura bi bilketa sistema ezarri ditu: Antzuolan atez atekoa eta Aretxabaletan bosgarren edukiontzia. Emaitzak hor daude, Aretxabaletan %25 inguru birziklatzen da; Antzuolan %80. Alde nabarmena.

Bosgarren edukiontziak errauskailuaren beharra duela diozue eta zuek errauskailuaren aurka zaudete. Zergatik?

Bosgarren edukiontziarekin oso gutxi birziklatzen da; beraz, errausketa eskatzen du. Zer egin bestela zabor horrekin guztiarekin? Zergatik den txarra? Ona balitz, denok nahiko genuke etxe ondoan. Txarra da garestia delako, ingurua kutsatzen duelako eta errauts oso toxikoak biltzeko zabortegia behar duelako. Gure osasuna eta poltsikoak kaltetzen ditu.

Diozuenez, atez ateko bilketa selektiboak errauskailua saihesten du, baina ze alternatiba duzue birziklatu ezin diren hondarrentzat?

"Kezkak entzun, beldurrak uxatu eta herriko giroa baretu nahi dugu"

Gipuzkoan hondakinak tratatzeko 6 konpostatze-gune, tratamendu biologiko mekanikorako 3 planta eta biometanizaziorako eta ontzien aukeraketarako gune bana egingo dira. Horien kostua 183 milioikoa da; errauskailuarena, 444 milioikoa. Birziklaezinak diren hondakinak gutxi dira. Hauek inertizatu eta osasun zein ingurumenarentzat kaltegarriak ez diren hondakindegietan uzten dira.

Atez atekoa hain eraginkorra eta ona bada, zergatik uste duzu dagoela halako oposizioa herrian? Kalera irten eta hainbeste zabor poltsa zintzilik ikusten dituzunean zer pentsatzen duzu?

"Gure nahia da herritarrak birziklatzearen beharraz jabetzea"

Aldaketek beldurra eragiten digute, gaiaren inguruan zuzena ez den informazio ugari zabaldu da eta herritarrak larritu egin dira. Lasaitasun mezua igorri nahi nieke herritarrei. Europako herrialde aurreratuenetan, Danimarkan, Alemanian, Belgikan... hondakinak gaika biltzen dira. Gainera, laster ezin izango da erre birzikla daitekeen ezer. Zertarako gastatu dirutza laster balioko ez duen errauskailu baten? Balkoietako poltsek herritarren protesta erakusten dute. Zilegitasun osoa aitortzen diegu eta entzuteko prest gaude. Era berean, gonbidatu nahi nituzke informazioa jasotzera eta hausnartzera zaborren arazoaz eta gure ondorengoei utzi nahi diegun inguruaz.

Zer moduz doa Oxirondoko informazio bulegoa?

Gerturatu direnak informazio bila gerturatu dira, zalantza zehatzekin. Herritar guztiak gonbidatzen ditugu gerturatzera, edozein duda argitzeko.

Atez atekoa apirilean ezartzeko asmoekin jarraitzen duzue?

Parte-hartze prozesuak esango du. Europatik hondakin bilketa selektiboaz datozen aginduak kontuan hartzea ere ezinbestekoa da. Hauek guztiak mahai gainean jarri, herritarrei entzun eta adostasunetara heltzeko borondatea dugu.

Agorrosingo taberna zabalik da Gureak Ostalaritzaren eskutik

Erabiltzaileek pozik hartu dute kafea hartu edo zerbait jateko aukera

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Udako oporretatik Agorrosingo erabiltzaileak taberna barik egon dira. Bada, abenduaren 28a ezkero berriro ere tabernan kafetxo bat hartu edo zerbait jateko aukera dago. Gureak Ostalaritza enpresak hartu du Agorrosingo taberna kudeatzeko ardura eta bertako langileak oso pozik daude erabiltzaileek egin dieten harrerarekin. Askok eta askok taberna irekitzeko irrikan zeudela kontatu digute. "Batez ere arratsaldeetan umeak igerilekura ekartzen dituzten gurasoek eskertu dute tabernaren ireki izana. Asko igartzen zuten faltan. Oso pozik gaude lehenengo egunetan bezeroekin izandako harremanarekin", kontatu digu zerbitzari lanetan ibiltzen den Unai Gastesik.

Errege bezperan 110 lagun

Tabernako ateak ireki eta berehala hasi behar izan dute gogor lanean. Urtarrilaren 5ean, Errege bezperan, esaterako, 110 lagun izan zituzten afaltzeko, eta, Gastesiren esanetan, giro bikaina egon zen.

Bederatzi euroko menua

Tabernako zerbitzuez gain, bederatzi euroko menua eskaintzen dute eguerdietan astelehenetik egubakoitzera, eta aste bukaeretan bazkariak eta afariak ematen dituzte. Horrez gain, ogitartekoak, pintxoak eta errazioak ere ematen dituzte.

Unai Gastesi zerbitzaria tabernako sukaldariarekin batera. | ARRITXU BARRUSO

Zapatuetan 00:00ak arte

Bi sukaldari eta sei zerbitzari dabiltza orain tabernan lanean. Azken horietako batzuek barran egiten dute lan eta beste batzuek, menua zerbitzen. Domekatik eguenera 08:00etatik 09:00etara dago zabalik eta egubakoitz eta zapatuetan, berriz, 09:00etatik 00:00etara.

JOXAN ARRAINDEGIA
Iturgoral 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Mujika gozotegia
Ezagutzen nahi duzun
Eskertu artisautza eta tradizioa.

TXIPI
Leiho isolatzaileak
PVC, aluminioa, lasira, eguzki
Aitor Zabaleta Agirre
Arriaga 5 behea
BERGARA
E-posta.: txipi@txipi.com
www.txipi.com
606 58 18 10 - www.txipi.com

OHARRAK

1956AN JAIOTAKOEN KINTADA HILAREN 26AN

Hilaren 26an egingo dute. 19:00etan batuko dira Bulen txikiteorako; 20:00etan talde argazkia egingo dute plazan; 20:30ean urbanoa hartuko dute; 21:00etan hasiko da afaria eta gero dantzaldia ere izango dute; bueltako urbanoa 02:00etan izango da. Izen-ematea Tartufo jatetxean egingo da (943 76 35 51) edo 630 62 61 30 zenbakira deituta, hilaren 22a baino lehen.

ALDERDI JELTZALEAREN ZENBAKI SARITUA

Bergarako EAJk antolatutako zozketaren zenbaki saritua 471 izan da.

IPINTZAKO LOTERIA SARITUA IZAN DA

Ikas-bidaiarako loteria saldu zuten DBHko 4. mailako ikasleek, eta jokatutakoa tokatu da. Dirua Euskadiko Kutxan kobra daiteke, 21etik aurrera.

SAN JOXEPEKO LOTERIAKO LEHEN SARITUA FALTA DA

San Joxepeko erretiratuek Gabonetan egindako zozketan lehen sariak oraindik ez du jaberik. 6.058 zenbakia izan zen saritua, eta zenbaki horren jabeak hilaren 22ra arte du sariaren bila aurkezteko epea.

Sahararrendako elikagaiak batzen jarraitzen dute

M.B. | BERGARA

Bubisher elkarteak abiarazitako sahararren aldeko elikagaiak eta bestelakoak batzeko kanpainak aurrera jarraitzen du. Sahararren kanpalekuetara bideratzeko honakoak batzen ari dira: arroza, lekaleak, azukrea, atuna eta sardinak oliotan, pasta, helduendako pixoihalak eta olioa. Eta honako lekuetan laga daitezke, urtarrilaren 19ra bitartean: janari-dendak, udaletxea, Lehen Hezkuntzako ikastetxeak eta Ipintza Institutua.

Horrez gain, dirulaguntza eman nahi duenak aukera dauka Euskadiko Kutxan (3035 0009 13 0091113300) eta Kutxan (2101 0070 86 0124795568).

Janaria batzeko kanpaina amaitu eta gero, *Piztu itxaropena* izeneko Sahararen aldeko euskal karabana otsailean abiatuko da Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekuetara.

Bubisher elkartetik herritarrei dei egiten diete elkartasun ekimen horretan parte hartzeko.

POL-POL

Urteberri eguna, Itxumendin

Urtetako ohiturari jarraituz, Pol-Poleko lagunek Urteberri eguna izerdi apur bat eginez hasi zuten, Itxuramendira igota (Gorla). Batzuk bezperan zainduta, besteak goizeko lehen izerdiak botatzen hasi orduko egindako gehiegikeriak gogoratuta, baina koadrila polita batu zen mendi buelta egin eta Gorlako aterpean salda hartu eta txorizoa jateko asmoarekin. Pol-Polekoen partetik, urte ona izan.

Bihar Bilbora joateko dei egin dute Gobernuak eta Zukguak

Udal Gobernuak jakinarazi du bat egin duela bihar Bilbon euskal preso eta iheslarien eskubideen alde egingo den manifestazioarekin. Zukgua prozesuko gazteek ere dei berezia egin nahi diete herriko gazteei agerraldian parte hartzeko.

Pol-Polekin mendi eskia egitera, urtarrilaren 19an

Mendi taldeak gertu du 2013ko ekintzen egutegia

X.U. | BERGARA

Urtea hastearekin batera Pol-Polekoek gertu dute 2013ko ekintzen egutegia, eta egiten duten lehenengo proposamena urtarrilaren 19ko eta 20ko astebukaerarako da, mendi eskia egitera joango dira. Irteera Zuriza aldera izango da, eta asmoa da zapatuan Atxeritora igotzea, eta domekan Petretxemara. Hala, aste bukaera osoa egin beharrean egun-pasa egin nahi duenak jar dadila Pol-Polekoekin harremanetan, izan ere, ahalegina egingo dute joan-etorria egiteko taldea osatzen.

Irteera horretan izena emateko azken eguna urtarrilak 15 da, asteartea, eta egun berean batzarra egingo dute bulegoan (19:00). Kontuan izan eguraldi edo edur egoeragaitik irteera aldatu ahalko dela, beraz, batzarrera joatea komeni da. Federatuta egotea ezinbestekoa da.

Atez atekoaren gaineko parte-hartze prozesua hasiko dute astelehenean

Bilketa puntuez, egutegiaz eta ordutegiaz berba egingo dute atarietako arduradunekin

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Atez ateko bilketa sistema herrian ipintzeko bidean, beste urrats bat emango du Udalak urtarrilean eta otsailean: parte-hartze prozesua abiaraziko du herritarrekin batera. Guztira, zortzi batzar egingo dituzte herritarrekin, eta apiriletik indarrean egongo den bilketa sistemaren gaineko informazioa emango dute: bilketa puntuak, egutegia, ordutegia...

Informazio osoa emango dute

Udal Gobernuak zortzi gunetan banatu ditu kaleak eta auzuneak. Batzarrak hurrengo astean hasiko dituzte: hilaren 14an, 15ean, 16an, 21ean, 23an, 28an, 29an eta 30ean egingo dituzte. Egunero bi batzar egingo dituzte: 10:00etan bata eta 19:00etan bestea. Batzarrerako lekua atari bakoitzean deialdia egiten denean jakinaraziko da.

Urtarrileko batzarretara gune horretako atari bakoitzeko arduradun bat joango da. Horietan atez atekoaren bilketa guneak, egutegia eta ordutegia proposatuko dituzte, plano bat erabilita.

Gero, atari bakoitzeko arduradunak 15 egun izango ditu proposamena bere bizilagunei azaltzeko, eta egoki ikusten dituzten iradokizunak egiteko. Iradokizun horiek otsailean (4an, 5ean, 6an, 11n, 13an, 18an, 19an eta 20an) egingo dituzten batzarretan aurkeztu beharko dituzte.

Otsaileko batzarretara arduradunen bat joaten ez bada, Udal Gobernuak bere proposamenarekin ados dagoela uste izango du.

San Lorentzo 10ean dagoen bulego berria. | MIREIA BIKUÑA

DATUA

8

GUNE

Herriko kaleak eta auzuneak zortzi gunetan banatu dituzte.

Landa eremuetan

Urtarrilean eta otsailean egingo diren batzarretan ez dituzte auzoak sartu. Landa eremuko bizilagunekin beste batzar batzuk egingo dituzte aurrerago. Oraindik ez dituzte egunak finkatu.

Bestalde, elkarte gastronomikoekin batzar orokorra egingo dute urtarrilean. Horretan, urrian, Larrain Gain eta Nekazarien elkarteetan egindako proba pilotuaren berri emango da. Ondoren, informatzaileak elkarte gastronomiko guztietara joango dira bestelako informazioa ematera. Komertzio, taberna eta jatetxeetan ere egon dira informatzaileak.

Informazio bulegoak

Atez atekoaren gaineko zalantzak argitzeko eta informazioa emateko bi bulego daude: Kale Zaharrean bata eta San Lorentzo 10ean bestea. Azken hori asteon bertan zabaldu dute. Ordutegia hauxe da: 10:00-14:00 eta 15:00-19:00.

OIHANA ELORTZA

Kalegoieneko jolas parkea estali egin dute

Kalegoieneko jolas parkea estaltzeko lanak bukatu dituzte. Ziburuak estaltzen dituen karpa itxurako estalkiaz gain, jarlekuak ere ipini dituzte; horietako batzuk aterpean daude. Estalkiarekin, euria egiten duenean ere Kalegoieneko jolas parkea erabilgarri izango dute neska-mutikoek.

Irrien Lagunak Klubeko kideak gaztetxean etzi

Domekan, hilaren 13an, egingo dute 'Kanta eta dantza' ikuskizuna; sarrerak bost eurotan salgai

M.B. | OÑATI

Antixena gaztetxeak egitarau zabala prestatu du urtarrilerako. Hilaren 4an egindako kontzertuaren ondoren, kolorea eta barrea izango dira protagonistak hilaren 13an: Irrien Lagunak Klubeko kideek gaztetxea hartuko dute. *Kanta eta dantza* antzezlana eskainiko dute, 17:00etan. Sarrerak ikuskizunaren aurretik salduko dituzte bost eurotan.

Pirritx eta Porrotx pailazoen inguruan sortu zen Irrien Lagunak Kluba. Lore eta Pupurekin batera koloretako mundua erakusten diete herriko neska-mutikoei. Euskara eta irria dute oinarri, eta horiekin ikuskizun dotorea egingo dute umeen aurrean. Adin guztietako herritarrak gonbidatu dituzte ikuskizunera.

'Punka Kuban'

Kolore ikuskizunaren ondoren, beste ekitaldi batzuek izango dute lekua gaztetxean.

Hurrengo astean, hilaren 14tik 19ra, *Punk mugimendua Kuban* delako argazki erakusketa ipiniko dute. Erretratuak arratsaldez ikus daitezke Antixena gaztetxean. Gainera, hilaren 19an, *Punka Kuban* delako dokumentala eskainiko dute, eta Josu Trueba egilearekin solasaldia egiteko aukera egongo da. Hilaren 15ean, desobendientzia zibilari buruzko *Ziztadak* dokumentala emango dute. Hilaren 23an, 600 pertsona baino gehiago hil zituen inkisizioaren gaineko *Sua* filma emango dute. Eta hilaren 26an, Plazaolari elkartasuna adierazteko Galiziara egingo den martxarekin bat egingo dute.

Maliko St. Paul eskolako proiekturako dirua batuko dute Bidaurretako elkartasun afarian

Oñatiko Misio Taldeak elkartasun afaria egingo du gaur, egubakoitza, Bidaurretan, 20:30ean. Entsalada eta patata-tortilla izango da menua. Mahairen bueltan elkartzen direnek emandakoa Maliko St. Paul eskolako proiektura bideratuko dute. Han, hainbat herrixkatan bizi diren haurrendako elikadura bermatu gura du Mali Elkartasuna taldeak.

Gaztelekuko bertso paper lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna gaur da, hilaren 11

Gaztelekuak eta Oñatiko Bertso Eskolak antolatzen duten bertso paper lehiaketan izena emateko azken eguna gaur da. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBH eta Batxilergoko ikasleendako lehiaketa da. Aldez aurretik zehaztutako gaien inguruko bertsoak idatzi behar dituzte. Aitor Sarriegik, Gipuzkoako txapeldunak, banatuko ditu sariak, hilaren 18an, 18:00etan.

Errespetuzko komunikazioari eta 0 eta 2 urte arteko haurren elikadurari buruzko hitzaldiak ikastolan

Txantxiku Ikastolak berbaldi bi antolatu ditu hurrengo asterako: hilaren 15ean, martitzenean, *Errespetuzko komunikazioa: bizitzarako komunikazioa* delako hitzaldia egingo du Nerea Mendizabalek; eta hilaren 16an, eguaztenean, 0-2 urte arteko neska-mutikoen elikaduraz jardungo du Maite Sainzek. Biak ala biak Ikastolako aretoan egingo dituzte, 18:30ean.

Urteko lehen odol-ateratzea egingo dute gaur: 17:30etik 19:30era arte, ikastolako aretoan

Oñatiko odol-emaileen taldeak finkatu du 2013ko odol-ateratzeen egutegia. Guztira, hamar ateratze egingo dituzte: hilero bat, uztailean eta abuztuan izan ezik. Gaur, hilak 11, egingo dute lehena, 17:30etik 19:30era arte. Tarte horretan egongo dira Donostiako medikuak eta erizainak Txantxiku Ikastolako areto nagusian.

Kartelgintza tailerrerako eta Gabonetako argazki lehiaketarako izena emateko epea zabalik

Gaztelekuak esku artean dituen bi ekintzatan izena emateko epea zabalik dute. Kartelgintza tailerrean parte hartzeko azken eguna gaur, hilak 11, da. Tailerra hilaren 14an hasiko dute. Bestalde, Gabonetako argazki lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna hilaren 18a da. 12 eta 17 urte artekoendako lehiaketa da.

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA
TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL
Oñati / Kale zaharra,1 / 943 78 01 22
amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE
Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Udal zerbitzuen gaineko iritzia jaso gura du Udalak

- 11 udal zerbitzu baloratzeko eskatzen zaie herritarrei inkesta orrian
- Kiroldegian eta kultura etxean galdera zehatzagoak egingo dituzte

TXOMIN MADINA | OÑATI

Udaleko hainbat langilek osatzen duten herritarren asebetetzeko taldearen ekimenez, udal zerbitzuen inguruan herritarren iritzia jasotzeko inkesta abiatu dute Oñatin.

Talde horren helburua da udal zerbitzuak hobetzeko proposamenak egitea; horretarako, baina, herritarrek erabiltzen dituzten udal zerbitzuen gainean duten iritzia jakin behar dute.

Bi atal

Iritzi hori eskuratzeko asmoz, udal zerbitzuen inguruko oinarrizko inkesta bat osatu dute, herritarrek *Kontzejupetik* aldizkariko urtarrileko alean jaso duten inkesta, hain zuzen. Orrialde bakarreko galdeketa da, eta, nolabait esateko, bi atal ditu.

Lehenengo atalean, Udalaren hamaika zerbitzu baloratzea eskatzen zaie herritarrei, zerbitzu bakoitzari 1etik 5erako puntuazioa emanda. Bulegoak, hirigintza, kultura, kiroldegia, ongizatea, udaltzaingoa, gaztedia, euskaltegia enplegu-turismoa, komunikabideak eta auzoak dira hamaika zerbitzu horiek. Baloratzeaz gain, zerbitzuen gaineko kexa eta hobetu beharreko iradokizunak egiteko edo txalotzeko lekua ere badago.

Bigarren atalean, bestalde, zerbitzu horietako bat aukeratu eta beronen inguruko iritzi zehatzagoa eman daiteke. Zerbitzua eskatzerakoan edo jasotzerakoan udal langileek emandako laguntza, argitasuna, langileen inplikazioa, azkartasuna, ordutegia eta bestelako elementuak baloratzea eskatzen da bertan, kasu honetan ere, 1etik 5erako puntuazioak emanda. Zerbitzu bat baino gehiago baloratu gura izanez gero, inkesta orri gehiago eskura daitezke Udalaren eraikin publikoetan; besteak beste, udaletxean, kiroldegian edo kultura etxean. Urtarrila eta otsaila artean jasoko dira inkesten datuak. Inkesta orria botatzeko jarri dituzten kutxen ondoan jartzen duen moduan, otsailaren 28a izango da udal zerbitzuen inguruko iritzia emateko azken eguna.

Zubikoa kiroldegiko sarreran dago kutxetako bat. | OIHANA ELORTZA

Udaletxean, kiroldegian eta kultura etxean daude kutxak

Otsailaren 28a da azken eguna udal zerbitzuen gaineko iritzia emateko

Kiroldegia eta kultura etxea

Inkesta horretaz gain, asmoa da datozen hilabeteetan Zubikoa kiroldegian eta kultur etxean ere antzerako inkestak egitea. Zerbitzu horien erabiltzaileei zuzenduta egongo da kasu horretan galdeketa, eta galdera zehatzagoak izango ditu inkestako orriak.

11.214 lagun zeuden erroldatuta hilaren 1ean

O.E. | OÑATI

Urtarrilaren 1eko dataz 11.214 pertsona zeuden erroldatuta Oñatin, duela urtebete baino 63 gehiago. Erroldatutakoetatik 5.640 emakumeak ziren eta 5.574 gizonezkoak.

121 jaio, 97 hil

Udaletxean errolda datuak berrizteaz arduratzen den zerbitzuak emandako datuen arabera, 2012an 121 haur jaioberri erroldatu dira Oñatin; dena den, litekeena da oraindik urteko azken egunetan jaiotako beste neska-mutikoren bat erroldatzea. Datu horiek erakusten dute, bide batez, 2004an hasitako joerari eusten zaiola. Hau da, urteko jaiotze tasa ehun haur baino gehiago izateari eutsi zaiola. 2011an 131 haur jaio ziren eta iaz 121. Txanponaren bestaldean, berriz, hildakoen kopurua dugu. 2012. urtean, Oñatin erroldatuta zeuden 97 lagun hil ziren.

Populazioaren alta eta baja fluxu hori positiboa gertatzen ari da azken urteotan. 2005etik hona, herriko biztanle kopuruak goruntz egiten du urtetik urtera. Eta dagoeneko iaz gainditutako 11.100 biztanleen muga horretatik gora, 11.200ekoa ere pasatu du.

Datu ofizialak, hala ere, Estatistikako Institutu Nazionalak emango ditu; hileko osoko bilkuran jakinaraziko dituzte datu ofizialak.

TXALOAK ETA TXISTUAK

O.E.

Zebra-bideak lotuta daude orain

Euskadiko etorbideko punta baten, Bidaurretako biribilgunearen parean, moztu egin dute lorategia, eta espaloia bistan utzi. Modu horretara, Kurtzebarri kaletik Euskadi etorbidea gurutzatzeko pasabidea zuzena da, bi kaleetako zebra-bideak parean gelditzen dira. Irisgarritasun aldetik ere hobeto dagoela dio herritar batek, eta, horregatik, obra hori txalotu gura du.

Bilboko manifestaziora joateko deialdia egin du Udal Gobernuak

O.E. | OÑAT

Bihar, zapatua, presoen eskubideen alde Herrirak deitutako Bilboko manifestatzioarekin bat egin du Udal Gobernuak. Herritarrei ere dei egiten die mobilizazio horretara joateko.

Udalak bandoa kaleratu du biharko mobilizariorako deialdia eginez. Bertan jasotzen da: "Giza Eskubideen Deklarazioaren edukiak aintzat harturik, euskal presoei aplikatzen zaizkien espetxe-neurri salbuespenezkoak indarrik gabe utzi behar direla uste dugu. Zehazki, sakabanaketa-politikari amaiera ematea, gaixotasun larria duten hamahiru presoak libre gelditzea, eta Estrasburgoko Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia betetzea zigorra bete duten 67 presoak libre gera daitezen. Aitzitik, giza eskubideen eta bakearen aldeko akordio sozial zabala egiteko prestutasuna adierazten dugu, betiere modu eraikitzailean egiazko konponbideak bilatu nahian".

EAJk, mobilizazio eta estrategiekin bat ez egin arren, presoen giza eskubideak errespetatzearen alde zegoela adierazi zuen abenduko osoko bilkuran. Bilduk aurkeztutako mozioaren bozketan abstenitu egin ziren jeltzaleak.

Argia kenduko dute hilaren 19an hainbat auzotan

O.E. | OÑATI

Urtarrilaren 19an argia kenduko dute herriko hainbat kale eta auzotan; Errekalden, Garagaltzan, Zañartun eta Urrexolan, zehazki. Arrazoia da Errekalden behe tentsioko koadro elektrikoaren instalazioa egin behar dutela eta Urrutxun 13,2 Kv-ko airetiko linearen lurperatzea eta transformazio zentro berri baten instalazioa egingo dutela.

Errekalden 08:00etatik 09:00etara kenduko dute, argiteria publikoan eta auzoko atari gehienetan. Garagaltzan, Zañartu auzoko 25. atarian, Urrexolako 1 eta 2 atarietan, eta hilerriko eta Urrutxuko argiteria publikoan, berriz, goiz osoan egongo da kenduta, 09:00etatik 13:00etara, hain zuzen ere.

Mobilak batuko dituzte Angelman sindromea duten umeei laguntzeko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Angelman sindromea duten umeei laguntzeko eta gaixotasun horren ikerketarako bideratuko den kanpaina jarri du martxan Sindrome de Angelman elkarteak, eta Oñatin ere erabilitako mugikorren eta tableten bilketa egingo dute. Helburua da batutako mugikorrak eta tabletak telefonia konpainiei saltzea, eta diru hori gaixotasuna duten umeengana eta ikerketara bideratzea. Bilketa puntuak dira: kultura etxea, kiroldegia eta gaztelekua.

Angelman sindromea gaixotasun neurogenetikoa da. Ezaugarriak dira, besteak beste, atzerapen mental gogorra edota hizketarik eza; baita mikrozefalia eta konbultsioak ere.

Zubikoa kiroldegian mobilak batzeko dagoen gunea. | O.E.

Finkatu egin da kontsumo taldea eta eskaintza berriei zabalik dago

Barazkiak, gazta, arrautzak eta ogia jasotzen dituzte eta bidezko merkataritzako produktuekin hasi gura dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Dagoeneko urtebete baino gehiago pasatu da Aretxabaletako kontsumo taldea barazki ekologikoak jasotzen hasi zenetik. 2011ko irailean izan zen hori, eta ordutik hona taldea hazi egin da; hazi, finkatu eta indartu. Dagoeneko 25 familia dira garaiko eta bertako barazkiz betetako otzarak, ogia, gazta eta arrautzak jasotzen dituztenak martitzen guztietan –udaletxe aurrean, 19:00etan–, eta orain bidezko merkataritzako produktuekin ere hasi gura dute.

Betiko barazkiak

Maria Jesus Revuelta aretxabaletarrak Eskoriatzako Eraña auzoan duen ortutik ekartzen ditu barazkiak. Martitzenean esaterako, espinakak, azaloreak, porruak, patatak eta kalabazak ekarri zituen, neguko produktuak. Pozik dago kontsumitzaileek erakutsitako konpromisoarekin eta animatuta aurrera jarraitzeko: "Halako talde barik ezingo genukeen aurrera egin, eta oso pozik nago, gureak ederto funtzionatzen duelako".

7.000 metro koadrotik gorako lursaila du Erañan: 2.000 inguruko ortua; 1.500 kiwi zuhaitzekin; eta negutegi bi, guztira 700 bat metro koadro. "Barazki batzuekin hasi ginen eta poliki-poliki gehiago landatu ditugu, gure artean hain ezagunak ez direnak ere sartu ditugu", dio Revueltak. Azkeneko ekarri dituenen artean daude txikoria eta borraja. "Zarautzen erosten ditugu barazki ekologikoak eta han ere ematen dizkigute probatzeko; orain esaterako, Txinako azalorea eta hostodun brokolia ditut". Hala ere onartu du jendeak betiko barazkiak dituela gustuko: "Berriak probatzeko gertu izaten dira, baina egunero jateko gurago dituzte betikoak".

Kiwi zuhaitzak ere badauzka baina horien fruituak datorren urtera arte ez ditu jasoko.

Bidezko merkataritza

Galartzako Etxezuri baserrikoen ogia ere jasotzen dute martitzenetan kontsumitzaileek, eta Arkarazoko Mendibitzu baserriko arrautzak eta gazta ere bai. Mendibitzun, gainera, okela ekologikoa eskaintzen dute.

Horietan geratu barik orain bidezko merkataritzako produktuak sartu gura dituzte. Kontsumo taldeko hainbat kidek agertu dute interesa, eta asmoa da otsailetik aurrera, hilabetean pare bat martitzenetan, ekartzea produktu horiek: kafea, azukrea, txokolatea, infusioak…

Eta Valentziatik ekarritako laranja ekologikoak hartzeko asmotan ere badabiltza.

Kontsumitzaile bat barazkiak jasotzen martitzenean, udaletxe aurrean. | M.A.

Herri bazkaria izango da Aratusteetan, kiroldegian

Txartelak urtarrilaren 21ean jarriko dituzte salgai Arkupeko kultura zuzendaritzaren bulegoan

M.A. | ARETXABALETA

Azken urteotan egin ez den herri bazkaria antolatu du aurten Udal Kultura Sailak Aratuste-domekarako (otsailak 10). Ibarra kiroldegian izango da, eta txartelak hilaren 21ean, astelehenean, jarriko dituzte salgai. Kultura zuzendaritzaren bulegotik pasatu beharko da jasotzera (Arkupen); hona ordutegia: astelehenetik eguenera 08:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 17:00etara; egubakoitzetan 08:00etatik 14:00etara.

Lokalak erabiltzeko arauak

Bestalde, azken urteotan legez, lokal bi dituzte koadrilek mozorroak gertatzeko. Lokal horiek erabiltzeko izena eman beharra dago Arkupen.

Kultura Sailak hainbat arau ezarri ditu lokal horiek behar bezala erabiltzeko. Hala, talde bakoitzak arduradun bat izendatu eta taldekideek egiten dutenaren erantzukizuna izango du. Arduradun horri emango diote lokalaren giltza eta ezin izango du kopiarik egin. Taldeek eramango dituzte lanerako behar dituzten tresnak eta materiala; eta beste batzuena erabiltzeko, baimena eskatu beharko dute.

Adingabeen ardura nagusi batek izango du, lokala erabiltzen hasi aurretik izendatua. Gazteak lokalean daudenean bertan egon beharko du arduradunak ere. Eta gurasoek jakinaren gainean egon beharko dute.

Erabilitakoa garbi eta txukun utziko da, eta azkenak argia itzali eta atea itxiko du. 21:00etan lokala itxi egingo dute eta gauez ezin izango da erabili.

Otsailaren 19rako dena jaso beharko dute, eta egun horretan itzuliko dute giltza arduradunek azken garbiketa egin ostean. Eta lokalean istripuren bat izanez gero, arduraduna izango dela kaltetua jakinarazi dute.

Zoru pelbikoa errekuperatzeko taldea osatuko du Kuku Mikuk

M.A. | ARETXABALETA

Kuku Miku elkarteak taldea sortu gura du erditu ostean zoru pelbikoa zaindu eta lehengora bueltatzen laguntzeko. Urtarrilaren 18an hasita egubakoitzetan elkartzea da asmoa (14:30) Kuku Mikuren egoitzan –Durana kalea, 30–, eta saio horiek Ane Remedios fisioterapeuta aretxabaletarrak gidatuko ditu.

Talde iraunkorra

"Izugarrizko garrantzia du zoru pelbikoa zaintzeak, erditu ondoren lehengora bueltatzeko", diote Kuku Mikuko kideek. Horregatik, talde iraunkorra osatu gura dute; hau da, etenik gabe lan egingo duen taldea: "Urtean zehar erdituko dutenek edota denbora hartzen dutenek ere izango dute aukera aurrerago sartzeko", diote.

Izena emateko epea zabalik dago; idatzi honako helbidera: *sanefisioterapia@hotmail.es*. Prezioa, 12 euro elkarteko bazkideendako; eta 15 euro, gainerakoendako. Talde txukuna osatzeko gutxieneko kopurua gurako lukete.

Gurasoendako saioak

Urte berriarekin batera gurasoendako saioak hasi dituzte Kuku Mikukoek. Nerea Mendizabal psikopedagogoak gidatuta astelehenean izan zuten lehenengoa. Hurrengoa otsailaren 4an izango da (17:30-19:30) eta landuko duten gaia, *Errespetuzko komunikazioa*. Izen-emate epea zabalik dago urtarrilaren 31 arte: *kukumikuelkartea@gmail.com* edo 650 93 96 93. Prezioa 7 euro da bazkideendako eta 10 euro, gainerakoendako.

Garikoitz Gartzia epaitu dute astean Madrilen eta 19 lagun joan ziren bertara elkartasuna adieraztera

Astean epaitu dute Garikoitz Gartzia Arrieta Madrilen, Iratxe Yañez gasteiztarrarekin batera. Elkartasuna eta babesa eskaintzeko 25 bat lagun joan ziren Madrilera, 19 inguru Aretxabaletatik eta beste 6 Gasteiztik. Gartzia eta Yañez 2010eko urtarrilean atxilotu zituzten Portugalen, eta "erakunde terroristako kide izatea, dokumentu ofizialak faltsutzea eta lehergaiak izatea eta eramatea leporatuta" 49 eta 23 urteko kartzela-zigor eskaerak egin ditu Fiskaltzak, hurrenez hurren; izan ere, Gartziari "kalteak, lapurreta eta agenteari eraso egin izana" ere egotzi dizkiote.

Korrika batzordearen hurrengo bilera astelehenean da, hilak 14, udaletxeko ganbaran

Korrika batzordea lanean hasita dago gurean, eta bigarren bilera astelehenean egingo dute, udaletxeko ganbaran (18:30).

Bertako kideek gogorarazi dute bilera horietara joan gabe ere badagoela laguntzeko modua: Korrika Laguntzaile eginda 12 euroren truke –Euskara Zerbitzuan (udaletxean) eta Loramendin–; kilometroa erosita –hiru izango ditu Aretxabaletak–; eta Korrika dendan materiala erosita. Gainera, komertzio eta lantegiei laguntza eskatuko diete "ahal duten neurrian".

Imsersok eskaintzen dituen bainuetxeetako egonaldietarako izen-emate epea zabalik dago

Bainuetxeetan egonaldiak eskaintzen dizkie Imsersok erretiratuei, eta izena emateko epea zabaldu dute: lehenengo txanda otsailetik abuztura arte da, eta izen-ematea urtarrilaren 16an bukatuko da; bigarren txanda, ostera, irailetik abendura arte, eta izena emateko epea maiatzaren 16an bukatuko da. Txandak 10 eta 12 egunekoak dira, eta hilabete guztiek prezio bera dute aurten.

Eskabide orriak Gizarte Zerbitzuetan bete behar dira (astelehen, martitzen eta egubakoitzetan, Myriamekin).

Goizez dago zabalik Markole auzoan dagoen KZgunea eta ikastaro asko dabiltza eskaintzen

Urtarrilean goizez dago zabalik KZgunea (09:00-13:00) eta ikastaro asko dabiltza eskaintzen. Hilaren 21etik 29ra, esaterako, software librearen gaineko ikastaroa egingo dute (11:00-13:00); eta 22tik 30era, irudiaren eta soinuaren gainekoa (09:00-11:00); biak euskaraz. Horiez gain, IT txartela eskuratzeko azterketak egingo dituzte. Aurrez izena eman behar da ikastaroetan jarduteko eta azterketak egiteko: telefonoz deituta (943 02 36 14) edo mezu bat bidalita: *tutor.aretxabaleta@kzgunea.net*.

Iker Iglesias | Argazkilaria

"Ikusle ororen barrenean zirrara sortu nahi dut erakusketarekin"

- Erakusketa du aretxabaletarrak Arkupeko aretoan urtarril osoan
- 21 argazki jarri ditu, eta Txinako paraje ezberdinen berri ematen dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Txinaren gaineko argazki erakusketa jarri du Iker Iglesias (Aretxabaleta, 1977) argazkilariak Arkupen; 21 argazki Txinako paraje eta bizilagunen gainekoak. Urtarrila bukatu bitartean izango dira ikusgai.

Badu izenik Txinaren gaineko erakusketa horrek?

Bai; Txinan ikasitako atsotitz batek ematen dio izena: *"Tell me and I'll forget; show me and I may remember; involve me and I'll understand"*. Erakusketara etorriko diren ikusleen inplikazioaren gainean nabil; ezagutzeko gogoa aldarrikatzen, bustitzeko gogoa. Nik neure aldetik jar nezakeen guztia jarri dut erakusketa esperientzia bat izan dadin, berau girotzen duen musikatik hasi eta argazkien formatu zinematografikoraino. Pertsona bakar baten barrenak ukitzeko gai baldin banaiz erakusketarekin, neure helburua beteta dago. Txina ezagutzea baino gehiago, Txina sentitzea da bildumaren helburua.

Noiz izan zinen Txinan eta zein alderditan?

2011ko apiril-maiatzean; baita kilometro asko ibili ere, erraldoia da eta! Bidaiak bi zati izan zituen, nabarmen ezberdinak: bata, Txinarik klasikoena eta modernoena (Beijing, Shanghai, Pingyao, Guilin, Yangshuo...); eta bestea, Xinjiang probintzia, Kashgarren hasi eta Karakorum zeharkatu.

Zer kontatzen dute argazkiek eta zeuk zer kontatu gura izan duzu?

Zoragarria izango litzateke argazkiek kontatzen dutena eta nik islatu nahi dudana bat izatea. Hala den edo ez ezin dut nik esan, argazki bakoitzarekin emozionalki inplikatuta nagoelako. Lortu nahi dudan bakarra da –Xinjiang-en independentziarako aldarrikapenari begi-keinu nabarmen bat egiteaz gain– zabalik datorren ororen barrenean zirrara sortzea. Bide batez, Txina moduko herrialde plural baten bidaia kronika izan daiteke.

Iker Iglesias argazkilari aretxabaletarra. | IKER IGLESIAS

"Erretratugintza artistikoan nabil, proiektu pertsonalekin"

Erakusketa hainbat herritan izan duzu, baina lehenengoz etxean; Urduritasunik?

Bazen garaia, ezta? Aparteko urduritasunik ez. Herritar askok ez dakite mundu honetan nabilenik, eta ezustekoa hartuko dute; bejondeiela kuriositatez bada ere erakusketatik pasatzen diren ezagun eta ezezagun guztiei! Eta gura izanda ere pasatu ezingo direnei baita!

Ez da lehenengo erakusketa, ezta? Bide horretatik jarraitzekotan?

Bigarrena; Namibiaren gaineko beste erakusketa batekin ere aritu nintzen, eta jarraitzeko asmoa badut, noski; hurrengo proiektuekin bueltaka dagoeneko…

Afizioa edo ofizioa argazkigintza?

Biak, zorionez.

Eta noiztik horretan?

2008tik hona izan da argazkilari ibilbidearen zatirik oparoena eta esanguratsuena.

Han eta hemen lantxoak egiten zabiltza, gainera.

Bai, erretratugintza artistikoan nabil, proiektu pertsonalekin batez ere.

Valentziako zine zuzendari batekin proiekturen bat ere baduzu...

Bai, martxan dago, film labur bateko argazki zuzendaritzan, hain zuzen. Ea ibilbide berri horrekin argazkilaritzatik jasotako beste jasotzerik dudan.

Zinema izango da protagonista urtarrilean

Ben Affleck zuzendariaren 'Argo' dute egunotan helduek eta 'La vida de Pi' hurrengoan

M.A. | ARETXABALETA

Film asko eta azken hilabeteotan estreinatutakoak emango dituzte urtarrilean Arkupeko Zaraia aretoan. Aste bukaeran, esaterako, Ben Affleck aktore eta zuzendari estatubatuarraren *Argo* (Estatu Batuak, 2012) filma izango dute helduek. 1979an Iranen izandako hainbat gertakari kontatu ditu filmean.

Umeek, ostera, marrazki bizidunak izango dituzte bihar eta etzi (17:00): *Hotel Transilvania*.

Hurrengo astean (urtarrilak 18-21), Taiwango Ang Lee zuzendari arrakastatsuaren *La vida de Pi* (Estatu Batuak, 2012) emango dute. Eta umeek izango dute *Las aventuras de Tadeo Jones*. Eta urtarrilaren 25etik 28ra *Operacion E* (Espainia, 2012) dute helduek.

Zinekluba eguenero

Eguenetan (19:30) ematen duten zineklubak ere bere horretan jarraituko du, eta hiru film izango dituzte hurrengo asteotan: hilaren 17an, *Martha Marcy May Marlene* (Estatu Batuak, 2011); 24an, *Silencio de hielo* (Alemania, 2010); eta 31n, *Amor bajo el espino blanco* (Txina, 2010).

Filmak emateko lizitazioa

Bestalde, Arkupeko Zaraia aretoan filmak emateko lizitazio deia egin du Udalak, eta horretarako zehaztu duen kopurua osoa 43.560 euro da. Hiru enpresa aurkeztu dira deialdi horretara, eta aurkeztu dituzten dokumentuak aztertu ondoren hartuko dute erabakia udal agintariek; hil honetan bertan izango da hori.

Jarraitu egingo dute Pagolak esandakoen hausnarketekin

M.A. | ARETXABALETA

Jose Antonio Pagola teologoak Madrilgo 32. Teologia Kongresuan esandakoen gainean hausnartu dute hainbat herritarrek abenduan. Jende asko elkartu zen bi saioetan, eta antolatzaileak oso gustura daude: "Interes handia zegoen eta gogobeteta geratu ginen". Hala, beste saio bat egingo dute urtarrilaren 18an, egubakoitza, Arkupen (19:30), eta aurrekoetan parte hartu ez dutenak ere gonbidatuta daude.

Egungo krisiaren gainean Pagolak esandakoak entzun dituzte lehenengo: "Jesusek orduko krisiaren aurrean, oraingoaren oso antzekoa, zelan jokatu zuen argi eta garbi azaltzeak konturarazi gaitu ez dugula beste aldera begiratu behar". Hona saioetan jasotako esaldi batzuk: "Kapitalismo neoliberalaren inperioa Jainkoaren erreinuaren aurka dagoen botererea da; biktimei aurpegia jarri behar diegu; elizak salatu egin behar du krisiaren kudeaketan dagoen erruki falta; ez dago irteerarik tunelean sistema ez badugu aldatzen…". Eta gaineratu dute: "Konturatu gara gutako bakoitzak baduela bere papera krisi honetan".

Eguenera arte dago Aratusteak iragartzeko kartelak aurkezteko epea

Datorren eguenean, urtarrilak 17, bukatuko da Aratusteak iragartzeko kartelak aurkezteko epea. Kultura Sailak deitutako lehiaketan edonork parte har dezake; lanek bi baldintza bete behar dituzte: tamaina 50x70 zentimetrokoa, eta digitalean ekarriz gero, DIN-A3; eta testua: *Aratusteak, Aretxabaleta 2013*.

Arkupe kultura etxera eroan behar dira lan horiek, eta kartazal itxi batean egilearen datuak sartu: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia.

Hilaren 18an, egubakoitza, emango du irabazlearen berri epaimahaiak –Kultura batzordeko kideak eta hainbat herritar–, eta saria 200 euro da.

Auzo-konpostean izena emateko epea zabalik dago hilaren 25a arte

Txarapea ibilbideko, Iturrizar plazako eta Lausitta kaleko bizilagun batzuek auzo-konposta egiteko interesa azaldu dute, eta Udalari proposamena egin.

Hori horrela, auzo-konposta bultzatu gura du Udalak, eta inguru horietan bizi diren gainerako bizilagunei zabaldu proposamena. Horiek urtarrilaren 25a arte dute ekimenean izena emateko. Horretarako hiru bide dituzte: mezu bat bidalita (*ingurumena@aretxabaleta.net)*; telefonoz deituta Arkupera (943 08 10 01); edo Arkupeko bigarren solairuko bulegotik pasatuta (Anabel).

OHARRAK

BIODANTZA ATE IREKIAK

Biodantza zer den jakin eta probatu gura dutenendako ate irekiak egingo ditu Jaiki elkarteak eguenean, hilak 17, kuartel zaharrean (19:30). Aurrez jakinaraztea komeni da: 644 35 10 40 eta 665 73 17 66.

MURRUKIXOREN JAKINARAZPENA

Mendian federatu direnen txartelak iritsi direla jakinarazi dute Murrukixoko kideek. Horiek jasotzeko M-5 kiroldendatik pasa daitezela, dendaren ohiko ordutegian.

WII TXAPELKETA

8 eta 12 urte artekoek wii txapelketa dute ludotekan, domeka arratsaldean (17:00-19:00).

ZER OTE?

Auzoko egitasmoaren galderak bukatutzat eman dituzte.

Hirugarren galderaren erantzuna (irabazlea datorren astean): Ciun fericit i un An Nou Fericit!

Bigarren galderaren irabazlea: Laida Diaz.
Saria: Aretxarteko komertzioetan erabiltzeko 30 euroko txartela.

AUZOKO

Eskoriatzarren esku daude inbertsioak

Udalak egindako 13 proiektuak bozka daitezke hilaren 16ra arte

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Hirigintza arloan datozen urteei begira aurreikusita dauden proiektuetan zeresan handia dute eskoriatzarrek, eguaztenera arte, hilak 16, Udalak gertatutako 13 egitasmoen artean bozkatzeko aukera izango dute-eta. Hain justu, 13 horietatik 10 aukeratu behar ditu bakoitzak, beharrezkoenari 10 puntu emanez, hurrengoari 9 eta horrela, hurrenez hurren.

Proiektu guztiak Udalaren webgunean (*www.eskoriatza.net*) ikus daitezke. Interneten ez ezik, Ibarraundin ere ezagutu ahal izango dira ostera ere proiektu horien gaineko azalpenak. Astelehenetik eguaztenera erakusketa jarriko dute museoan, honako ordutegian: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etara 19:00etara. Inbertsio bakoitza banan-banan aztertu ostean, botoa emateko aukera ere izango dute horretan eskoriatzarrek.

Garestienak 100.000 euro

Udalak askotariko egitasmoak gertatu ditu, hala nola mugikortasun, aisialdi, kultura edo ur hornidura sarearekin lotutakoak. Lan horien aurrekontuetan ere alde handia dago: Zaldibar antzokia bukatzeko lanak eta Arana eta Intxaurtxueta kaleak asfaltatzeko obrak dira garestienak (100.000 euro inguru), eta autobus geltoki berria Gorosarri plaza parean jartzea eta kiroldegiko gimnasioa handitzea, ostera, xumeenak (16.000 eurotik beherakoak). Dena dela, San Pedro auzoa eta Luis Ezeiza berritzeko, Olazarko horma egonkortzeko eta udaletxeko harrera berritzeko lanen aurrekontua zehazteke dago.

Inbertsio asko dira eta Udalak ez du horiek guztiak aurten egiterik; hortaz, herritarren lehentasunen arabera egitea erabaki du. Horren harira, honakoa aipatu du: "Tamalez, aurten ezin izango dira inbertsio proiektu guztiak gauzatu, eta, horregatik, premia eta garrantziaren arabera aukeratzea eskatzen zaie herritarrei".

EskoHitza 2013 parte-hartze prozesuaren barruan daude esandako proposamenak. Ez da prozesu horren harira egindako ekintza bakarra, abenduan arloka banatutako lau batzar antolatu zituzten-eta herritarrekin.



Intxaurtxueta eta Arana arteko bidea konponduko da. | ESKORIATZAKO UDALA

Gorosarri parean jarri gura da autobus geltoki berria. | MIRIAN BITERI

San Pedro ez dute ahaztu. | M.B.

Datozen urteotako inbertsio proposamenak

ARANA ETA INTXAURTXUETA ASFALTATU
Arana kaleko 2. zenbakitik Intxaurtxueta auzoko Apotzagarako bidegurutzeraino asfaltatzea. Horretarako, aurretik, egungo zorua fresatu egingo da, eta gero, plataforma saneatu ondoren, asfaltatu egingo da. Aurrekontua: 96.000 euro.

ERDIALDEA OINEZKOENDAKO EGOKITU
Lanak Gaztañaduiko 11. zenbakidun eta Jose Aranako 2. zenbakidun etxe parean egingo dira. Puntu horietan semaforo bana jarriko dira udaletxean jarriko den ordenagailu batera konektatuta. Baimendutako ibilgailuak bakarrik pasa ahal izango dira. Aurrekontua: 30.000 euro.

APARKALEKUA SANTA MARIÑEN
Plaza ondoan dagoen 3.000 metro koadro egokitu gura dira behin-behineko aparkaleku publikoa egiteko, aurreikusitako etxebizitzak egiten hasi arte. 120 aparkaleku egitea aurreikusten da. Aurrekontua: 58.000 euro.

AUTOBUS GELTOKI BERRIA GOROSARRIN
Autobus geltoki berria Gorosarri plaza parean jarri gura da, egungoa arriskutsua delako. Egokitzapen lanak egin beharko lirateke, egungo markesina tokiz aldatu aurretik. Aurrekontua: 11.000 euro.

UR HODIA GAZTAÑADUITIK
Inbertsio hori Gaztañadui kalean egingo litzateke, 11. eta 27. zenbakien artean; ur hornidura sareko hodi zatia aldatuko litzateke. Horrela matxurak saihestu gura dira. Aurrekontua: 54.000 euro.

UR BILTEGIETAN GAILUAK
Gailuak jarriko dira udal ur biltegietan eta kontagailuetan, momentu bakoitzeko ur kontsumoaren informazioa zentralizatzeko eta azkarrago erantzun ahal izateko ur-ihesik egonez gero. Aurrekontua: 22.000 euro.

HIRUGARREN FASEKO LANAK SAN PEDRON
San Pedro auzoa berritzeko egitasmoa amaituko litzateke. Honako obrak 10. eta 17. zenbakien artean egingo dira: ur, saneamendu, argiteria eta telebista azpiegitura berriak sartu; espaloiaren zoladura egin eta zorua asfaltatu; eta kontsumo txikiko farolak eta hiri altzariak jarri.

OLAZARKO HORMA EGONKORTU
Kanposantuaren azpialdean dago, Olazar 10, 11 eta 12. zenbakidun etxeen atzealdean. Hormigoizko horma egingo litzateke, harlangaitzez estalia eta goiko ur bideko inguruarekin integratuta.

HOBEKUNTZAK LUIS EZEIZAN
Luis Ezeiza herri eskolan azken urteetan egindako hobetze eta mantentze-lanekin jarraitzea; hain justu, kanpoko eta barruko arotzeria konponduko litzakete.

KIROLDEGIKO GIMNASIOA HANDITZEA
Gimnasioa handitzeko obrak kiroldegiko beheko solairuan egingo dira. Horretarako, gimnasioaren ondoan dauden aldageletako eta botika-gelako hormak botako dira. Aurrekontua: 16.000 euro.

UDALETXEKO HARRERA BERRITZEA
Udaletxeko beheko solairuan espazio berria diseinatu eta egin gura da, eskoriatzarrei harrera egiteko zerbitzua hobetzeko. Horretarako, beharrezkoa izango da mostradorea kentzea.

ZALDIBAR KANPOTIK URBANIZATZEA
Eraikinaren ondoan beirazko sarbidea egingo litzateke. Osagarri moduan, antzoki parean dagoen espaloia eta aparkalekuak berriz urbanizatuko lirateke. Lanen eraginez farolak eta hiri altzariak lekuz aldatu beharko lirateke. Egungo aparkalekuak bere horretan mantentzeko ahalegina egingo da. Aurrekontua: 90.000 euro.

ZALDIBAR ANTZOKIA JANZTEA
Proiektu eszenikoa osatzeko beharrezko ekipamendua eta altzariak jartzean datza inbertsio hori. Beheko solairuan aulkiak jarriko dira, eta goiko solairuan, besaulkiak. Orain exekuzio fasean dauden lanen barruan proiekzio-kabinarentzako espazioa egokitzen ari dira. Besteak beste, nahasketa-mahaia, agertokirako makinak eta argiak eta soinua jarriko dira horretan. Aurrekontua: 100.000 euro.

Santa Mariñen aparkalekua egiteko asmoa dago. | M.B.

Dorleta auzoan 32 familia hasi dira auzo-konposta egiten

A. TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Auzo-konpostaren lehen proba aitzindaria martxan jarri dute dagoeneko Dorleta auzoan, eta eguaztena ezkero erabiltzeko gertu dago auzotarrendako egokitutako gunea. 32 familiak egingo dute auzo-konposta unibertsitate ondoko gunean, eta familia bakoitzak giltza bat izango du organikoa gune horretara nahi duenean eroateko.

Eguaztenean azken konpostagailuak muntatu zituzten hainbat familiak udal langileekin batera. Jarraian, giltza jaso eta auzokonposta egiten hasi ziren. Datorren astean, zaharren egoitza ondoan egokitu duten bigarren gunea zabaltzeko asmoa dago.

Bizilagunek konpostagailuak muntatzen lagundu zuten. | AMAIA TXINTXURRETA

Hasiberriendako capoeira ikastaroan izena eman daiteke

Senzala Euskadik hasiberriendako capoeira ikastaroa egingo du hilaren 16an, 23an eta 30ean, 20:00etatik 21:30era, pilotalekuko gimnasioan. Interesatuek 625 77 22 95 telefono zenbakira dei dezakete, edo *senzalaeuskadi@hotmail.com* postara idatzi. Langileek 15 euro ordainduko dituzte; langabeek eta ikasleek, 10 euro.

Luque: "Esperientzia oso aberasgarria izan da"

Aspaldian egindako materiala batu eta diskoa kaleratzeko asmoa du

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolan bizi da Patxi Luque soraluzetarra, eta abenduaren 20an jokatu zuen La Pua de Oro gitarra lehiaketa entzutetsuaren finala Donostiako Gazteszenan. Egindako lanarekin gustura ikusi dugu musikari eta konposatzailea. "Kasualitatea izan da. Ez nuen lehiaketa ezagutzen, baina zuzenekoetara bueltatu gura nuen; eta nire talde propioa osatu. Aukera ezin hobea izan da".

"Finalera heldu ginen, eta, lan ona egin genuen arren, ez genuen saririk eskuratu. Baina sekulako esperientzia bizi izan dugu; finala oso borrokatua izan zen eta oso ondo egon zen. Aberasgarria izan da benetan".

Rocka, heavya... gitarra *riff* gogorrak ditu gustuko Luquek. Maila ezin hobearekin topo egin duela lehiaketan azaldu digu. Italia, Frantzia eta Ingalaterrako parte-hartzaileak izan dira *La* Pua de Oro lehiaketaren laugarren edizioan. Antolakuntzaren arabera, inoiz egon den final onena. "Maila benetan oso ona egon da. Rock indartsuaren tendentzia izan da nagusi, Satriani asko. Bluesetik gorako maila ere ezin hobea izan da".

Patxi Luque gitarra-jotzailea La Pua de Oro lehiaketan. | P.L.

ESANAK

"Helburua beteta, nire proiektua abian jarri dugu"

PATXI LUQUE | GITARRA-JOTZAILEA

PLC proiektua, abian

Orain, lehiaketari esker, taldea osatu berri du Luquek: bere inizialak daramatza PLC proiektuak. "Laguntza bila ere banabil, eta, hala, Ibanez gitarrak eta Steve Clayton markako puak erabiltzen ditut". Dagoeneko hasiak dira lehen entseguak egiten. Guztiak eskarmentudun musikariak eta talde ezagunetan ibiliak: Aitor Alberdi, *Txuster,* bateria-jotzailea –90eko hamarkadatik talde askotan ibilia–, Esteban Mulas gitarra -jotzailea –Ekon, Abbadom, Versus eta egun Denial taldeko kidea– eta Haritz Uriarte, *Txarra,* baxuak –Under The Gun– osatzen dute. "Hasi gara pixkanaka egin da nituen zenbait abesti lantzen eta berriak konposatzen. Aspaldian konposatutakoak eta zuzenean inoiz jo gabeak dira gehienak. Hala, zuzenean atera nahi dugun materialaren aukeraketa egin eta horretan gabiltza".

Helburua beteta, taldearekin abesti berriak egin eta agertokietara bueltatu gura du Luquek. Laster batean, lehen lana grabatu eta kalean izatea.

JOAN ZAIGU

Luis Azkarate Agirrezabal

'Luis Panadero'

Luis Panadero, Kalebarrenen. | J.L.A

Luis Azkarate *Luis Panadero* izeneko pertsona oso herrikoia genuen. Errota Berriko okin ezaguna zen, bere bizitza guztian ogia egin eta berde koloreko gurdi batekin ogia banatzen zuen etxerik etxe, urte askoan. Goizean ogia eta arratsaldean ikatza banatzen zituen *Luis Panadero*-k; eta pentsua ere banatzen zuen gizon on honek.

Okina izateaz gain, musika zen bere zaletasun handienetakoa; danbor-jotzailea izan zen Antzuolako Txistulari Taldean, kaleak eta festak alaituz. Parrokiako koruan abeslari eta zuzendari ere izan zen.

Bazeukan beste dohain bat: kanpotarrak herrira etortzen ziren bakoitzean, gehientsuenetan berarekin topo egiten zuten, eta, nola ez, informazioa eta laguntza ere ematen zien.

Isil-isilik joan zitzaigun, telebista aurrean, inor molestatu gabe, nahiz eta berak bere garaian nahiko aldaba, tinbre eta danbor hots atera.

Gogoratu ia berarekin batera hil dela Luis Anduaga, musikari ezaguna: abesbatzaren zuzendaria izandakoa ere.

Aurrekontuak herritarren aurrean aurkeztuko ditu Udalak

Urtarrilaren 15ean jendaurrean aurkeztuko ditu 2013ko aurrekontuak Udalak, 18:30ean, Olanen. "Prozesu parte-hartzaile baten emaitza dira aurtengo aurrekontuak", gogoratu dute. Bertan izango dira, besteak beste, Ima Beristain alkatea eta Mikel Jauregi Ogasun zinegotzia.

OHARRAK

BILBORA JOATEKO DEIA

Antzuolako Bilduk euskal preso politikoak Euskal Herriratzeko aldarrikapenarekin bihar Bilbon egingo den mobilizaziora joateko dei egin nahi die herritarrei.

'EUSKARAZETAMOL'

Umorezko antzezlana gaur Torresoroan, 22:00etan hasita. Sarrera 5 euro da.

NIRE USTEZ

PATXI OLABARRIA

Balkoiko aldarrikapenak

Gure Euskal Herri honetan badugu zer aldarrikatu eta horren testigu dira gure etxeetako balkoiak: presoen etxeratzea, euskaraz bizitzeko nahia, AHT gelditzekoa...

Gure etxeko balkoian ere badugu aldarrikapen horietako bat edo beste, eta nire iritzian guztiak ere beharrezkoak dira eta guztiz bidezkoak.

Azken aste hauetan aldarrikapen hauei beste bat gehitu zaie gure alboko herrian: Bergarako balkoi asko eta askotan ikus ditzakegu zabor -poltsak zintzilikatuta.

Benetan aldarrikapen ikusgarria eta hau ere besteak bezain bidezkoa. Ikusgarria izateaz gain, uste dut oso ariketa pedagogiko ona egin dutela Bergaran. Atez atekoaren aurka daudenek jarri dituzte poltsa horiek, baina egin duten ekintza honekin konturatu dira zein erraza den poltsa bat zintzilikatzea, konturatu dira poltsa horrek ez duela usain txarrik; eta konturatu dira beraien balkoiak ez daudela lehen bezain dotore, hau da, estetikoki zatarrago daudela.

Baina gustuetarako mila kolore daudela diote: batzuei ez zaizkie gustatzen Antzuolan ditugun zintzilikarioak, beste batzuek ez dituzte gogoko edukiontzien ilara luze horiek, eta beste batzuek gustukoago dute poltsak errekara jaurtitzea...

Zenbat buru hainbat aburu.

Gustuak gustu, nik neuk oso garbi daukat: nahiago dut zintzilikarioan poltsa bat ikustea, errauskailuko ikusten ez den kea arnastea baino.

JABI ETXANIZ

Urteari ongietorria eman diote Arrolara igota

16 lagun inguru urtarrilaren 1ean Antzuolako Arrola mendira igo ziren urteari ongietorria emateko. Goizeko bederatzietan Herriko Plazatik abiatu ziren. Altzeta aldetik Arrolara igo eta ondoren etxabolan salda, txistorra eta abar hartu zituzten barrua berotzeko. Eta iaz auzolanean garbitutako *Oñati* bidetik jaitsi ziren berriro Antzuola aldera. Euria eta haize apur bat izan arren, eguraldi ona izan zuten.

Itsaso Aranzabal | Podologoa

"Herrian podologia zerbitzua izateak gauzak erraztuko ditu"

- Hilean behin Aramaion egongo da podologia zerbitzua eskaintzen
- Alaiak Elkarteak bazkide eta ez bazkideengan pentsatuta antolatu du

ZURIÑE V.D.M. | ARAMAIO

Itsaso Aranzabal arrasatearra astelehenean hasiko da Aramaioko Alaiak Jubilatuen Elkartean podologia zerbitzua eskaintzen. Hobeto ezagutu dugu.

Podologian diplomatu zinen eta Ortopodologia eta Biomekanikan masterra egin zenuen. Zerk erakarrita hasi zinen?

Beti eduki dut argi osasunarekin zerikusia zuten ikasketak egingo nituela. Kasualitatez, podologia ikasitako neska batzuk ezagutu eta beraiek azaldu zidaten zer zen, ez bainuen mundu hori ezagutzen. Oso interesgarria iruditu zitzaidan, eta ikasketak aurrera joan ahala, gehiago harrapatu ninduen.

Ez da soilik oinetan zentratutako zerbait, gorputza bere osotasunean hartzen du, eta beraz, hasieran pentsatu baino mundu irekiagoa da.

Astelehenean hasiko zara Aramaioko jubilatu elkartean.

Duela urtebete esan zidaten zerbitzua jarri gura zutela. Curriculuma bidali eta aukeratu egin ninduten. Ez da kontsulta pribatu batean lan egitea bezala izango, batez ere, eskura ditugun baliabideei-eta dagokienez.

Baina esan behar dut Alaiak elkartekoak gogor saiatu direla beharrezko guztia eduki dezadan. Zerbitzu berri bat denez gero ez dakigu zer aurkituko dugun; oinarrizkotik abiatuko gara: azazkalak moztuz, gogortasunak kenduz... Baina bestelakoetara irekita gaude, eskaeren arabera.

Itsaso Aranzabal. | ITSASO ARANZABAL

Bestalde, herri txikia izan arren, podologora bertan joan ahal izateak gauzak erraztuko dizkie aramaioarrei. Azken finean, pertsona nagusiek-eta beste toki batera joateko bigarren pertsona baten beharra izaten dute, eta batzuk joango dira, baina beste batzuek ingurukoei trabarik ez sortzeko, ez dira podologora joan ere egiten.

Oro har, askotan ez dugu oinak behar bezala zaintzeko ohiturarik...

Orain dela gutxira arte horrela izan da, baina aldatzen hasi da gauza. Askotan ez gara konturatzen zer-nolako garrantzia duten oinek gorputza bera ongi egoteko.

Esango nuke lehen podologia ez zela horren ezaguna, baina azken aldian traumatologotik deribatuta pertsona asko etortzen dira gurera, esaterako. Bestalde kirolariak ere etortzen dira, edo haurrak ekartzen dituzte, bizkarreko mina edukitzen duen jende asko ikusten dugu, baita diabetikoak ere...

Hileko bigarren astelehenetan

Alaiak Jubilatuen Elkarteak bere lokalean bazkide eta baita bazkide ez direnei ireki die podologia zerbitzua. Hilean behin izango da Itsaso Aranzabalekin hitzordua, hirugarren astelehenetan,15:00etatik aurrera. Interesa duten pertsonek podologoarekin ipini behar dira harremanetan 616 55 85 60 telefono zenbakira deituta.

Iturrietan Gosek emango dio hasiera txotx denboraldiari

MAIDER ARREGI | ARAMAIO

Arabako sagardogileek, urte hasiera guztietan bezala, urtarrilaren 17an, eguenean, Arabako aurtengo Sagardo Berriaren Eguna ospatuko dute.

Ekitaldia arratsaldeko zortzietan egingo da Aramaioko Iturrieta sagardotegian.

Gonbidatu bereziak

Aurten gonbidatu berezia izango dugu: Gose musika taldea. Beraiek zabalduko dituzte kupelak eta lehen txotxa egingo dute Iturrieta sagardotegian.

Txalaparta, bertsoak eta trikitia izango dira sagardotegiko giroa alaitzeko eta goxatzeko.

Hala, Arabako Sagardogileek edari goxo eta naturala, gure sagardoa, dastatzera animatu gura dituzte herritarrak.

Erraz edateko sagardoa

Iturrieta sagardotegiko Juanjo Peciñari aurtengo sagardoa nolakoa den galdetu diogu: "Edateko oso erraza da; publiko orokorrarendako sagardoa da. Suabeagoa, erraza. Gure helburua da sagardo munduan jende asko sartzea eta gerturatzea, publiko guztiarendako sagardoa egitea". 16 urte daramatza Iturrietan eta krisi garaia den arren, euskaldunok sagardo denboraldiari erantzun ona emango diogula esan digu.

Koplak eta bat-batekoak dira Santa Ageda eguneko nobedadeak

M.A. | ARAMAIO

Aurtengo Santa Ageda eguna ate joka daukagu; eta Aramaion, ohitura den moduan, dagoeneko hasiak dira lanean otsailaren 2an dena gertu egoteko. Berrituta dator Santa Ageda eguna; bi kultura taldek elkarrekin dihardute antolatzen: Bertso Eskolak eta Aramaioko Abesbatzak. "Asteartean egin genuen lehen entsegua 40 lagun inguruk. Herritarren aldetik harrera ona izaten ari da. Aurten, gainera, herriko kaleetara eta inguruko auzo eta baserrietara joango gara", kontatu digu Manex Agirrek.

Bat-batekoak koplekin

Aurten, gainera, betiko Santa Agedako kopla eta kantuez gain, bat-batean ere animatuko direla esan digu Agirrek: "Baserrietan bat-bateko bertsoren bat ere botako dugu, beste ukitu bat eman nahi diogu-eta".

Herritarrendako deia

Bereziki gazteei deialdia egin gura dien arren, Santa Ageda egunean parte hartu nahi duen orok du aukera entseguetara joateko. Hurrengoak urtarrilaren 15ean, 22an eta 29an egingo dira, kultura etxean, 19:00etan.

Aramaioko egunsenti eder eta ikusgarriak, erretratatuta

Aritz Gordok Aramaio behe-lainoz estalita dagoela argazkiak atera ditu

Aramaio, asteon, behe-laino azpian. | ARITZ GORDO

M.A. | ARAMAIO

Aritz Gordo arrasatearraren begiradapean, horrelaxe ikusi dugu Aramaio asteon. Sekulako argazkiak atera ditu, ikusgarriak. Izan ere, eguraldiak horretarako aukera eman du. "Aste honetan, behe-lainoak izan ditugu hiru egunetan. Horrek egunsenti ederrak erretratatzeko aukera eman dit", kontatu digu.

Eguraldiari begira

Aritz Gordo eguraldi iragarpenen zain egoten da. Hala, toki ona bilatu eta goizean goiz jaikitzen dela azaldu digu: "Aste honetan, Aramaioko Etxaguen aldera joatea erabaki dugu; izan ere, ez dut inoiz argazkirik atera paraje horietatik. Enkoadre asko egin daitezke bertatik; batzuetan Orixol inguruan izan gara, goialdean; beste batzuetan, aldiz, behera jaitsi gara, San Kristobalera".

"Argazkilaritza lasaia da, toki egokia bilatzean dago gakoa eta eguzkiaren izpi egokiak ateratzean, tripodea eta kamera prest izatea", dio.

ELGETA

Bildu: "Herria abandonatu da beharrezko lanak alboan lagata"

Bilduk 39 argazki aurkeztu ditu, eta Udal Gobernuak bere lana defendatu du

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bilduko zinegotziek gogor kritikatu dute herrian apurtuta edo abandonatuta ikusten dituzte hainbat gune eta azpiegituraren egoera. Abenduko osoko bilkuran Janire Lazkano bozeramaileak 39 argazkirekin osatutako dokumentua aurkeztu zuen, eta txostena prestatzen ari direla jakinarazi zuen. Argazki horietan, besteak beste, haurrendako jolasguneak, Torrealdean amaitu gabe dagoen eraikuntza lanen eremua, kantxako saskiak, Torrealdea auzoko sarrera eta plazatxoa eta herrian zehar egoera txarrean dauden hainbat espaloi, hoditeria, baldosa, zaborrontzi edo arketa agertzen dira.

Bilduk Udal Gobernuari eskatu dio proiektu berrietan sartu ordez konpontzeko dauden gauzak konpontzeko, eta ondo dauden gauzen mantentze lanak behar bezala egiteko. "Guretzat garrantzia ez dauka obra berriak eta txalet bat erosteak Asentzioko kasuan pasa den moduan", adierazi du Bilduko bozeramaile Janire Lazkanok. "Uste dugu benetan Elgetak badituela azpiegiturak, eta beti egin dugu horiek mantentzearen eta zaintzearen alde. Ikusi dugu aurten pixka bat abandonatu egin dela herria proiektu handiei inportantzia larregi eman zaielako". Bilduk gaineratu du 2012ko kudeaketa zein izan den ikusita dezente lasaitzen dituela aurrekontu berriak inbertsioetarako lekurik ez duela ematen jakiteak.

Kiroldegiko ziburua apurtuta. | BILDU

Torrealderako jaitsiera. | BILDU

Eraikuntza lan eremua. | .BILDU

Zaborrontzia apurtuta. | BILDU

Udal Gobernuaren iritzia

Udal Gobernuak, berrizk, egindako kudeaketa defendatu du, eta jakinarazi du 2013ko aurrekontuan diru-lerro ezberdinak daudela mantenu eta hobekuntza lanetarako. "Nik uste dut Bilduk hartu duela Elgetan Udal Gobernua eta herria aurrera ateratzen dihardugunon kontrako postura", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. Aurreratu du "egoera ekonomikoa hala izanda" garrantzia emango dietela "inbertsio txikiei, eta batez ere, daukaguna ondo mantentzeari".

Elgetako alkateak azaldu du kiroldegiko ziburuak eta Julianen kioskoa berrituko direla aurten, eta jakinarazi du kale altzarietarako 6.000 euroko diru-lerroa jaso dutela 2013ko aurrekontuan. Aurreikusita dago, baita ere, San Roke osteko bidea egokitzea, eskolako igogailua konpontzea eta udal artxiboko alarma martxan jartzea. Baita haurreskolan lanak egitea ere.

OHARRAK

KANTSATZEKE MENDI TALDEA
Taldeko ordezkariak kultura etxeko bigarren solairuan izango dira hilaren 16an, 19:00etatik 20:00etara, bazkide eta federatu txartelak tramitatzen.

KZGUNEKO DINAMIZATZAILEA
Astelehenean, hilak 14, KZgunean izango da Eli Modrego. Kontsultak egiteko aukera izango da, 16:30etik 19:00etara.

FUTBITO TXAPELKETA AZKARRA

Domekan lehenengo hiru partiduak

Hamaika taldek eman dute izena txapelketarako. Gizonezkoetan zazpi talde dira —La Kokotza, Jaitxo, Txapela, Intxorta's Crew, Astuan Villa, Naste-Borraste, eta Tzibaz United—, eta emakumezkoetan lau —Etxaon, Bajaon, Bandoleira eta Gazteak.

DOMEKAN, 10:00ETAN HASITA, FRONTOIAN
10:00 Astuan Villa - Tzibaz United. **Txapela**.
11:00 Txapela - Intxorta's Crew. **La Kokotxa**.
12:00 Naste Borraste - La Kokotxa. **Intxorta's Crew**.

Zapatuko manifestazioarekin bat egin du Elgetako Udalak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalak bat egin du zapatuan, 17:30ean hasita, *Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira* lemapean Bilbon egingo den manifestazioarekin. Udalbatzak abenduko plenoan izan zuen gaia mahai-gainean. Bilduk aurkeztutako mozioaren laugarren puntuak jasotzen zuen Udalak manifestazioarekin bat egiteko eskaera. Plenoan zeuden zinegotzien babesa jaso zuen puntuak, salbu EAJren bi zinegotziena. Abstenitu egin ziren.

Plenoan adostu moduan bandoa zabaldu zuen alkateak martitzenean. "Bizi dugun egoerak euskal preso politiko guztien eskubideen errespetua ere eskatzen du. Besteak beste, sakabanaketaren amaiera eta preso guztien Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituzten presoak kaleratzea, zigorra bete dutenak askatzea, zigorraren hiru laurdenak edo bi herenak bete dituztenen baldintzapeko askatasuna eta bakoitzaren adierazpen askatasunari errespetua", jasotzen du bandoak. Herritarrak manifestazioan parte hartzera gonbidatzen ditu alkateak bando horretan.

Autobusa manifestaziora

Herritar talde batek autobusa ere antolatu du; Haizea tabernan dago izena emateko aukera.

23 lagunek eman dute izena asteon abiarazi den oinarrizko informatika ikastaroan parte hartzeko

Arrakasta izan du Miren Osoro elgetarrak Udalaren babesarekin antolatu duen oinarrizko informatika ikastaroak; 23 lagunek eman dute izena. Eguaztenean eman zioten hasiera ikastaroari, eta, aurrerantzean, eguaztenetan eta barikuetan elkartuko dira, 17:30etik 19:30era. Kultura etxeko bigarren soilairuan egin zuten lehenengo saioa eta hamar lagunek hartu zuten parte.

Elgetako Korrika batzordea urtarrilaren 17an, eguena, elkartuko da bigarren aldiz

Abenduaren 13an eratu zen Korrika 18ko herri batzordea, eta eguenerako, 18:00etan, egingo dute bigarren hitzordua udaletxean. Lasterketa ez denez Elgetatik pasako erabakitzeko dago herri mailako lasterketa egingo den, edo ibilbideko kilometro bat erosi eta autobusa antolatuko den. Gainera, Korrika Kulturala, materiala salmenta eta gainerako gaiak aztertuko dira.

Domekan egingo dute 2013ko lehen bisita gidatua Intxortako frontera; urteko egutegia ere prest da

2010eko maiatzean inauguratu zuten Intxortako ibilbide tematikoa, eta 2013an ere mantendu egingo da bisita gidatuen eskaintza. 24 bisita gidatu izango dira, hileko lehen eta azken domeketan, hain zuzen ere. Salbuespen bakarra urtarrila da: lehen domeka Errege eguna izanik, bisita domeka honetan egingo da. Bestelako eskaerarik izanez gero, deitu 943 71 89 11 telefonora.

Ozkarbi elkarteko bazkideak hilaren 17an, eguena, egingo den urteko batzar orokorrera deituta daude

Ozkarbi kultura eta aisialdi elkarteko zuzendaritzak urtarrilaren 17rako deitu du urteko batzar orokorra. Urtean izandako gastuak eta diru-sarrerak, egindako hobekuntzak eta zuzendaritza aldaketa izango dira aztergai, besteak beste. Lehenengo deialdia 20:15ean da eta bigarrena, 20:30ean.

LEINTZ GATZAGA

Biztanle kopuruak gora egin du azken urtean, 261 daude egun

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Biztanleak irabazi ditu Gatzagak azken urtean, lau hain zuzen. 2012ko urtarrilaren 1ean jasotako datuaren arabera 257 zituen, eta urtebete beranduago, 261. Horietatik 139 gizonak dira eta 122 emakumeak.

Datu horiek Estatistika Institutuak dituenarekin alderatuko dituzte gero, eta onartutakoan ofizialtzat eman. Hori martxo inguruan izango da.

Udal teknikarien esanetan ez da egon mugimendu handirik azken urtean, eta kanpotik etorri direnak ere ez dira izan asko. Dena den, gutxi bada ere, gora egin du Gatzagan bizi direnen kopuruak.

Langabe gehiago abenduan

Langabezia tasak ere gora egin zuen abenduan. Azaroan baino hiru langabe gehiago zeuden; eta abuztuan baino bost gehiago. Hala, guztira 12 ziren herriko langabetuak, %8,89.

Gatzagan eta Eskoriatzan izan ezik Debagoieneko gainerako herrietan behera egin zuen langabeen tasak. Debagoienean, 3.631 langabe zeuden 2012ko abenduan Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren arabera, %12,18; azaroan baino 70 gutxiago.

Presoen aldeko manifestazioarekin bat egin du Udalak

Bihar, urtarrilak 12, Bilbon egingo duten presoen eskubideen aldeko manifestazioarekin bat egin du udalbatzak. Abenduaren 20an egindako ohiko osoko bilkuran onartu zuten preso gaixoen eskubideen aldeko mozioa eta orduan erabaki zuten U-12 deialdiarekin bat egin eta horren berri ematea herritarrei.

Hilaren 18an ospatuko dute San Sebastian eguna eskolako umeek

San Sebastian egunez danborrak astintzeko ohitura dute Debagoieneko ikastetxe gehienetan, baita Gatzagan ere. Eskolan dauden sei neskamutikoak dagoeneko hasi dira entseguak egiten, eta hurrengo egubakoitzean, hilak 18, senide eta lagunen aurrean egingo dute emanaldia, pilotalekuan.

FUTBOLA

Mondra Futbol Taldeak 100 urte beteko ditu aurtengo denboraldian

- 1913an sortu zuten Club Deportivo Mondragon; ordutik, aldaketa handiak izan dira herrian
- Urteurrena ospatzeko kluba harremanetan dago Realarekin, Mojategira etor dadin

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Mondragon Futbol Taldeak 100 urte beteko ditu, eta zuzendaritza batzordea urteurreneko ekintzak prestatzen dabil, halako urteurren borobil bat ez delako egunero betetzen. Aurreikuspenen artean dago beteranoen arteko partidu bat jokatzea, eta baita Reala Mojategira ekartzea ere [Mondrak dagoeneko eskaria egin dio Realari, eta data zehazteko zain daude]. Horrekin batera, esku artean dituzte 100 urte hauek batuko dituen liburu bat eta dokumental bat egiteko proiektuak ere.

Izan ere, talde zuri-morearen historia batzeko egindako ahalegina 1983koa da. Orduan, Jose Letona Arrietak hartu zuen lan hori, eta gu ere *Pequeña historia del fútbol en Mondragón* liburuan oinarritu gara lerrook idazteko (liburu xumea, baina balio galanta duena). 1983tik aurrerako beste kontu batzuk, berriz, Mondrako parte izan diren beste arrasatear batzuekin argitu ditugu.

JOSE LUIS EZKURRA

MONDRA HIRUGARREN MAILARA (1983) 1: *Alejo*, 2: Joseba Arexolaleiba, 3: *Txiu*, 4: Ramon Luengo, 5: Luis Lopez *Bonba*, 6: Aitor Lopez Rekarte, 7: Jose Antonio Ardantza (alkatea). 8: Pablo Zubillaga (presidentea). 9: Fede Aranbarri. 10: Cipri Calleja. 11: *Alejillo*. 12: Txema Elizaran. 13: Juan Angel Fernandez. 14: Joxe Elortza. 15: Azkargorta *Kanto*. 16: *Mange*. 17: Luis Mari Arrieta. 18: Nuñez. 19: Vitoriano. 20: *Teri*. 21: Etxabe. 22: *Txosa*. 23: Iñaki Galdos. 24: Josu Ugarte. 25: Narbaiza. 26: *Kote*. 27: Errasti.

Mende bat atzera eginda

Letonak kontatzen du 1910. urte inguruan Arrasatera oporretan etortzen zirela Madrilgo bi anaia gazte, Gonzalo eta Laureano Ortiz de Zarate Elosua [Pastora Elosuaren semeak]. Hain zuzen, anaia haiek Atletico Madril taldearen fundatzaileetako bi izan ziren, Madrilgo eta Bilboko beste ikasle batzuekin batera. Eta eurak izan ziren Espainian ezagun egiten zebilen *foot-ball*-a Arrasatera ekarri zutenak. Herriko Plazan jokatzen zuten kirol berri horretan, eta gazte arrasatearrak ere zaletu egin ziren; hala, denak batu eta futbol talde bat osatzea erabaki zuten, Club Deportivo Mondragon (1913).

Madrildik Pastora Elosuaren semeek ekarri zuten futbola

Arrasateko futbol taldearen lehen aroak hiru urte iraun zuen (1913-1916). Etxaluze baserriaren ondoan zegoen zelaian jokatzen zuten, gaur egun San Andres auzoa moduan ezagutzen duguna [Bañez Doktorea kalean]. Halako indarra hartu zuen taldeak, Bergarako Shoting taldearen kontra Bergaran 0-0 berdindu ostean taldeari ongietorri galanta egin zioten herrikideek Maalan, Udal Banda eta guzti. Talde hura, baina, 1916an desagertu zen, orduko langileek hasi zuten greba orokor baten ondorioz, orduko jokalari asko beste herri batzuetara joan behar izan zutelako lan bila.

Arrasateko taldearen bigarren aroa 1922an hasi zen –tartean herrian ez zen futbol zelairik egon, baina pilotalekuan herriko taldeek futbol txapelketak jokatzen zituzten–. 1922an taldea sortu zuten ostera, elastiko gorriaz eta praka urdinekin, eta Maalako futbol zelaia inauguratu zuten, San Juan egunean; hala, Juan Resusta izan zen taldeko lehen presidentea. 1936ra arte lehen erregional mailan ibili ostean, gerra zibila zela -eta 1939ra arte bertan behera geratu ziren liga guztiak.

Juventud Deportiva Mondragon

1942an hasi zen Arrasateko futbolaren hirugarren aroa, Juventud Deportiva Mondragon taldea sortu zutenean. Eta taldeak orduan hartu zuen elastiko zuri-morea, praka beltzekin. Orduan Maalako zelaian jokatzen zuten, eta egun Elkoro denda dagoen tokian zituzten aldagelak; dutxatzera, berriz, errekara joaten ziren jokalariak.

Herriko hainbat enpresaren abalaz egin ahal izan zen Iturripe zelai berria

Lehenengo urte hartan Gipuzkoako Kopa irabazi zuten, Tolosa mendean hartuta. Eta baita liga ere, bi urtez jarraian. Baina, Maalako zelaitik *desjabetu*, eta zelai berria egiteko dirua batzen hasi ziren, hainbat ekimenen bidez (boxeo jaialdiak, zozketak, pilota jaialdiak...). Hala, 90.000 pezetako abala sinatu zuten herriko hainbat enpresak Iturripeko zelaia egiteko [Sasoi hartan sortu zen Union Deportiva Aretxabaleta, UDA]. Eta taldeak 1952-53 denboraldian jokatu zuen lehenengoz Hirugarren Mailan.

Urte haietan Arrasaten hiru talde egotera iritsi ziren, Juventud Deportiva, 1955ean sortu zuten Arrasate Club de Futbol eta baita UCEA taldea ere, Union Cerrajerako Aprendizen Eskolakoek sortutakoa.

Gainbeherako urteak

1965-1966 denboraldian futbol bazkideek egin zuten batzar orokorrean

ESANAK

"100 urtean gauza asko egingo ziren txarto, baina gehiago dira ondo egindakoak"

JOSE LUIS EZKURRA | ZUZEND. KIDEA

"Emakumezkoen futbolaren alde apustua egin zuen lehen klubetakoa izan da Mondra"

SOKOA AZKARATE | REALEKO ATEZAINA

"Gure sasoian gauza handia zen Mondran jokatzea, harro egoteko motiboa zen guretako"

JUAN ANGEL FERNANDEZ | ATEZAIN OHIA

"Mondran egindako zortzi urteetan belaunaldi bat hazten ikustea ederra izan zen"

JOSU ZUBIA | JOKALARI OHIA

"Mondraren bitartez aitak bizitzako balio jakin batzuk transmititu zizkigun semeoi"

AITOR LOPEZ REKARTE | JOKALARI OHIA

erabaki zuten Juventud Deportiva Mondragon elkartetik irtetea, eta Mondragon Club de Futbol sortu zuten. Sasoi hartan zuzendaritza taldeko presidentea zen Jose Martinez de Ubago, Letonaren liburuak batzen duen moduan, Arrasateko kirolaren alde lan handia egin zuen gizona, eta jokalari moduan zeuden gerora entrenatzaile izan ziren *Bonba* eta Juanito Arriaran moduko gazteak.

Urte txukunak izan ziren klubarendako, ez horrenbeste berdegunean taldeak txapelketa apartak egin zituelako, baina bai Sagasta, Jesus Aranbarri –Puertollanoko gola egin zuena– edota Inaxio Kortabarria moduko herriko jokalariek Realera salto egin zutelako. Baina handik gutxira hasi zen Mondraren gainbehera; 1969an, arlo ekonomikoan eta baita kirol arloan ere krisialdia etorri zen, eta hainbat kategoria galdu zituzten; halaxe egon ziren 1976ra arte.

Ostera ere, gora

Ia hamarkada gogor baten ostean 1977-78 denboraldian herrian zeuden bi taldeak batu zituzten, Makatzena (urte batzuk lehenago sortu zutena) eta Mondragon CF, eta batuketa horrek emaitza onak eman zituen, Luis Lopez *Bonba*-ren aginduetara lortu zuten-eta txapeldunorde geratu eta erregional preferentera igotzea.

Urte gorabeheratsuak izan ziren, kategoriari nekez eustekoak. Urte haietako gertaeren artean daude Mondrak inoiz jaso duen zigorrik handiena (Iturripen ikusleek epaile bat jipoitzeagatik, 1978an) eta baita Iñaki Herrero jokalariaren heriotza ere (Iturripeko zelaian bertan hil zen, Fuenterrabiaren kontrako partiduan). Hala, hainbat urtez Hirugarren Mailara igotzeko promozio faseetan huts egin ostean, 1982-1983 denboraldian taldea Hirugarren Mailara igo zen, Urolan 2-3 irabazi ostean –gabarra eta guzti ekarri zituzten udaletxera.

Baina Mondrak kirol arloan izandako momenturik gozoena 1992-93 denboraldian izan zuen: Bigarren B mailarako promozioa. Iñaki Zeziaga entrenatzaile zela, Egues, Escobedo, eta Utebo futbol taldeen kontra jokatu zuten, baina ez zuten helburua bete, eta poliki-poliki gainbeheraren urteak etorri ziren gero, 1996an Preferentera jaitsi ziren arte, eta Erregional mailara gero (1999). Lau urte maila horretan egin ostean, 2003an Josu Zubia entrenatzaile zela taldea Preferentera igo zen, gaur egunera arte.

Maalako zelaiaren inaugurazioa (1923ko San Juan eguna). | JOSE LETONA

1983an Hirugarren Mailara igo zirenean, plaza beteta. | JOSE LETONA ARRIETA

2. B mailara igotzeko promozioa jokatu zuen taldea (1993). | MONDRA

Atxabalpen Soraluzeri 2-1 irabazi osteko igoera (2003). | XABIER URTZELAI

Mende oso bat futbolean

100 urte lerro gutxi batzuetan laburbiltzea ez da erraza. Letonak berak barkamenak eskatuaz hasten du liburua, ondo dakielako egiten duen kontakizunean jende asko utziko duela kanpoan. Hala, Etxaluzeko zelaian, Maalakoan, Iturripen, Atxabalpen... Mondrak milaka gazteri eman die mende oso honetan futbolean jarduteko aukera, eta orain Mojategin hartu dute erreleboa. Hori posible izan dadin atzean lan isilean dabiltzanen meritua ere bada.

"Gipuzkoan oso klub gutxi egongo dira Mondrak beste urte dituztenak; harro egotekoa da"

JOSE L. AZKARATE | PRESIDENTE OHIIA

"Realera salto egiteko oso garrantzitsuak izan ziren Mondran egin genituen urteak"

JESUS ARANBARRI | JOKALARI OHIIA

"Gorabeherak izango ziren, baina halako klub batek 100 urte betetzea gauza handia da"

RUBEN RUEDA | JOKALARI OHIA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAKUMEZKOEN BI. MAILA
Paudarrak-Mondra
Zapatua. 15:30. Barakaldo.

EUSKAL LIGA, GAZTEAK
Indartsu-Aretxabaleta
Domeka. 13:15. Basauri.

OHOREZKO ERREGIONALA
Aretxabaleta-Beti Gazte
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aurrera-Mondra
Zapatua. 16:30. Markina.
Lagun Onak-Aloña Mendi
Domeka. 18:30. Azpeitia.
Hondarribia-Bergara
Zapatua. 15:30. Ondartza.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Ilintxa-Antzuola
Zapatua. 16:00. Bikuña.

LEHEN ERREGIONALA, IGO.
Aretxabaleta UDA-Vasconia
Zapatua. 17:45. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA, KOPA
Soraluze B-Bergara B
Domeka. 16:30. Ezozia.
Zumaiako-Arizmendi
Domeka. 11:45. Zumaia.

OHOREZKO GAZTEAK
Beasain-Bergara
Zapatua. 15:30. Igartza.
Aurrera-Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Barroeta.
Mondra-Euskalduna
Zapatua. 16:00. Mojategi.

GAZTEAK, IGOERA FASEA
Urnieta-Aretxabaleta B
Zapatua. 16:00. Urnieta.

GAZTEAK, KOPA
Idiazabal-Bergara
Zapatua. 16:00. Arizkorreta.
Soraluze-Aloña Mendi B
Zapatua. 12:15. Ezozia.
Arizmendi-Zestoa
Zapatua. 10:30. Almen.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Meatzari-Eskoriatza
Zapatua. 19:45. Gallarta.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Ford Mugarri A.-Urduliz
Zapatua. 17:45. Iturripe.
Gure Auzune-Soraluce BKE
Domeka. 11:15. Gasteiz.

EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO SENIORRA
Aloña Mendi-Urnieta
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.
Izarraitz Taberna Aloña-Tolosa
Domeka. 12:00. Zubikoa

GIPUZKOAKO BIG. MAILA
Tolosa-Arrasate
Zapatua. 16:00. Usabal.
Amenabar-Bergara
Zapatua. 16:00. Zarautz.

GAZTEAK, GIZONEZKOAK
Elgoibar-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Olaizaga.
Bergara-Eibar Eskubaloia
Zapatua. 12:45. Labegaraieta.

KADETEAK, GIZONEZKOAK
Elgoibar-Berezao Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Elgoibar.
Arrasate-Urola
Zapatua. 16:00. Iturripe.
Amenabar B-Ereintza
Zapatua. 16:00. Antoniano.

SASKIBAOIA

EBA MAILA
Natra Oñati-Ardoi
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

LEHEN NAZIONAL MAILA
Lizuan.com-Mondragon Unibe.
Zapatua. 18:30. Iturripe.

SENIOR HIRUGARREN MAILA
Tecnum-Mondragon Unib. B
Zapatua. 18:00. Donostia.

SENIOR MAILA
Atletico SS-Soraluce Bergara
Zapatua. 16:00. Donostia.
Take Orbela-Mondragon Unibe.
Zapatua. 16:00. Tolosa.

SENIOR BIGARREN MAILA
Aloña Mendi-Donosti Dolphins
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

SENIOR EMAKUMEZKOAK
Eskoriatza-Murkil Zast
Zapatua. 18:00. Manuel Muñoz.

GAZTEAK ERRENDIMENDUA
Easo 96-Mondragon Uniber. A
Zapatua. 18:00. Donostia.

ERRUGBIA

SENIORRAK
Arrasate-Kantabria
Domeka. 12:30. Mojategin.

GAZTEAK
DRT/ART-Bera Bera
Zapatua. 13:00. Durango.

PILOTA

ESKORIATZA
Egubakoitza. 19:00etan hasita bi partidu.

BERGARA
Egubakoitza. 19:30ean hasita.

ARETXABALETA
Egubakoitza. 20:00etan hasita.

ARRASATE
Egubakoitza. 20:30ean hasita.
Zapatuan 17:45ean hasita, eta domekan 11:00etan hasita

MENDI LASTERKETAK

Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketarako izen-emate epea hilaren 17an zabalduko dute

X.U. | ARRASATE

Antxintxika Triatloi Taldeak lehenengoz antolatuko du mendi lasterketa bat. Otsailaren 17an izango da, Antzuolan, eta Antzuolako 8 Miliak moduan aurkeztu dute lasterketa.

Hala, lasterketa horretako izenemate epea urtarrilaren 17an irekiko dute, datorren eguenean (kirolprobak.com).

Mendi lasterkariak. | GOIENA

Zailtasun maila ertaina

Lasterketaren zailtasuna maila ertainekoa izango da. Lasterkariak Antzuolako plazatik abiatuko dira, eta handik Antiguako auzora joko dute, gero mendi aldera egiteko. Irimo tontorrera igo (876 metro) eta ostera Antzuolara itzuliko dra. Proba hori egiten duten bitartean gaztetxoenek ere izango dute entretenimendua, Molto mini-motorren proba egingo dutelako.

ZIKLO-KROSA

Espainiako ziklo-kros txapelketan euskal selekzioaz izango dira ibarreko hiru ziklista

X.U. | ARRASATE

Navian (Asturias) egingo dute Espainiako Ziklo-kros txapelketa asteburuan, eta Debagoieneko hainbat ziklista lehiatuko dira bertan. Euretako hiruk, baina, euskal selekzioaren maillota defendatuko dute, Bergarako Jon Rivero (Debabarrena) lehiatuko da 23 urtez azpikoen kategorian, eta maila gaztea-goetan izango dira Oñatiko Maider Usandizaga, eta Julen Umerez. Gainera, Arrikrutz Oñatiko Kobak taldeko txirrindulariak badaki aurtengo denboraldian helmugan besoak altxatzea zer den.

Vegas de Arenas zirkuitua asfaltoz, hareaz, belardiz eta lurrezko tramuez osatuta dago, baina nahiko azkarra da.

Debagoieneko **GREMIOAK**



AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL
Arrasate
Meatzerreka auzoa
Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
Arrasate
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30
http://merkatua.net/argiplastik

ION LEIHOAK
Arrasate
Debagoiena Industrialdea 11.Pab
Tel.: 943 79 11 35
Faxa: 943 773 120
http://www.ventaion.com

LOREZAINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

KULTURA

Belceblues taldeko kideak: Asier Elortza (ahotsa eta baxua), Ibon Larrañaga (gitarra) eta Gille Sanz (bateria). | BELCEBLUES

Belceblues: "Gure nortasuna zein den erakustera goaz Memphisera"

- Gille Sanz da bateria-jotzaile berria; Oihan Vegaren tokia hartuko du aurrerantzean
- Memphisko esperientzia aberasgarria DVD-dokumental batean jasoko dute

MAIDER ARREGI | BERGARA

Munduko blues talde onenekin neurtuko du gitarra abilezia Belceblues taldeak. Izan ere, bergararrek *Road to Memphis* lehiaketa irabazi dute, eta Euskal Herriko blues talde onenaren saria eskuratu. Ondorioz, AEBetara joango dira, Memphisera, hilaren 29an, munduko txapelketara. "Errekonozimendurik garrantzitsuena da hau. Belceblues sortu zenetik, hainbat izan dira lorpenak: Danbakako finalera iristea edota Arteen eta Musikaren Espainiako Errege Akademiaren urteko euskal talde onenaren izendapena, 2009an. Urtetan egindako lanaren ondorioa da", azaldu digu Oihan Vegak.

Badakite, baina, Elvisek arrastoa utzi duen lurraldean publiko zorrotzari erantzun beharko diotela: "Hori izango da zailena. Bluesa asmatu eta sortu zen lurraldera goaz, eurentzat ezezaguna den hizkuntza batean abestera, euskaraz; ez dakigu zer-nolako harrera izango dugun. Gure nortasuna zein den erakustera goaz. Gaizki jotzen badugu, agian Mississippi ibaira botako gaituzte... kar-kar".

'Amets batean murgilduta'

Asier Elortza baxu-jotzaileak dio zaila izango dela sari nagusia eskuratzea, baina onena ematera joango direla. Ibon Larrañagak, gitarra-jotzaileak, gehitu dio amets batean murgilduta daudela.

Taldeak hilabeteak daramatza kontzertua prestatzen eta burubelarri entseatzen: "Entsegu luze eta gogorrak dira, baina sakrifizio guztiek merezi dute, horrelako aukerak gutxitan sortzen direlako eta aprobetxatu beharra dagoelako", diote, ilusioz.

100 zuzenekotik gora

Belceblues taldea 2005ean sortu zen, Bergaran, eta ordutik egindako bidaiarik luzeena izango da egitera doazena. Bluesaren munduko sorleku nagusia da Memphis, gainera. 101. kontzertua eskaini berri du Gabonetan. 2012an *Diabulus in Musika* estudioko bigarren diskoa aurkeztu zuten; 2008an kaleratutako *Infer* izan zen lehenengoa.

Azken urtean, Oihan Vega bateria-jotzaileak ezin izan du taldearekin egon, arrazoi profesionalak direla-eta, eta haren ordez Gille Sanz madrildarrak dihardu. "Hasi nintzenean, banekien talde ona zela, baina ez nuen espero horren urruti iritsiko ginenik. Opari galanta benetan!".

Lan berria prestatzen

Oraindik ez dute datarik jarri, baina dagoeneko hasiak dira kantu berriak konposatzen eta pixkanaka hirugarren diskorako materiala pilatzen. "Kantu guztiak prest ditugunean hasiko gara pentsatzen noiz eta nola grabatu gure estudioko hirugarren lana. Oraingoz, aurrera dezakeguna da disko berrian joango diren bi kantu Memphisen estreinatuko ditugula. Han grabatuko ditugu, gainera, kontzertu guztiak, DVD -dokumental bat egiteko. Bertan, hango emanaldiak, bidaiaren nondik norakoak eta gertatuko zaizkigun anekdota guztiak jasoko ditugu; horretan ez daukagulako zalantzarik, anekdotaz josita itzuliko gara".

Europa, Amerika, Asia, Australia... kontinente guztietako blues talderik onenekin topoko egingo dute. "Badakigu oso zaila izango dela txapela irabaztea, baina ez dugu aukera hori baztertzen; zergatik ez? Dena den, txapela lortu edo ez, guretzat, haraino bidaiatzea dagoeneko bada nahiko sari".

Zorterik onena AEBetara egingo duten bidaian!

Munduko blues talde onenen artean

Bi kanporaketa izango dira, 30ean eta 31n, eta, horiek igaroz gero, otsailaren 1ean jokatuko den finalera igaroko da talde bergararra. Munduko blues talderik onenekin partekatuko du Belcebluesek agertokia, Memphisko Beale kale famatuan, BB King handiak bere lokala duen kale ospetsuan. "Oso denbora laburra izango dugu bi kontzertuetan. Talde bakoitzak 25 minutu baino ez ditu izango bere lana defendatzeko. Kontzertu tinkoa, zuzena eta indartsua ari gara prestatzen", azaldu digu Vegak.

ESANAK

"Amets batean murgilduta gaude mundu mailako blues txapelketarekin"

IBON LARRAÑAGA | GITARRA

"Zaila izango da sari nagusia eskuratzea, baina onena emango dugu"

ASIER ELORTZA | AHOTSA ETA BAXUA

"Ez nuen uste horren urruti iristerik; opari galanta izan da niretzako"

GILLE SANZ | BATERIA

Monologo onenek Espaloia umorez bustiko dute urtarrilean eta otsailean

Ikuskizun guztietarako bonu bereziak salgai daude 40 euroren truke

MAIDER ARREGI | ELGETA

Espaloiko antolatzaileen arabera, "apustu berritzailea eta handia da" Monologo Mostra.

Elgetako I. Monologo Mostra: lau aste bukaeratan zortzi emanaldi egingo dira, guztiak umorezko bakarrizketak. Urtarrilean eta otsailean izango dira, hileroko azken bi aste bukaeratan, eta maila handiko monologistak izango dira Elgetan. Magia Mostrak bederatzi edizio beteko dituen urtean abiarazi dute Monologo Mostra Espaloian.

Ttipia Kultura Sustapenak taldeko Asier Alvarez de Arkaiak, berriz, esan du: "Monologoak egiten dira eta gero eta leku gehiagotan, baina emanaldi solteak izan ohi dira. Zentzu horretan, formula berria da mostra handi bat egitea". Umorea osasuntsua dela adierazi du eta Elgetako aretoak artistaren eta publikoaren artean ahalbidetzen duen hurbiltasuna nabarmendu du. "Oso aproposa umorezko bakarrizketetarako", esan du. Alvarez de Arkaiak esan du gurean ez gaudela oraindik oso ohituak umorezko bakarrizketetara. "Aretoetara musika emanaldiak edo antzezlanak ikustera joaten gara, baina monologoak gero eta leku gehiago hartzen ari dira. Standar Comedy AEBetatik dator. Jendeak oraindik ez daki ziur zer ikusiko duen. Pertsona bat bi ordutik gora agertoki batean etenik gabe bakarrizketan ikusten dutenean, ordea, zur eta lur gelditzen dira. Benetan bertigoa ematen du, liluratuta gelditzen dira".

Larraitz Zeberiok, Espaloia kafe antzokiaren ordezkariak, esan du Magia Mostra apustu handia izan zen moduan, Monologo Mostra beste apustu handi bat dela.

Sarrerak salgai

Sarrerak salgai daude bai kafe antzokian bai Espaloiaren webgunean ere: *www.espaloia.com*-en. Banaka eros daitezke –10 eta 18 euro bitartean—, eta aurrez erosiz gero merkeagoak dira. Ikuskizun guztietarako bonua ere atera dute, 40 euroko prezioarekin. Lehen ikuskizuna, urtarrilaren 18an, 22:30ean.

Espaloiako Larraitz Zeberio eta Ttipia kultura taldeko Asier Alvarez. | ESPALOIA

Maila handiko lau monologista izango dira agertokian

ERNESTO SEVILLA

Monologos de Coconut ikuskizuna eskainiko du Sevillak urtarrilaren 18an eta 19an, 22:30ean. Berak emango dio irekiera.

SARA ESCUDERO

Hilaren 25ean eta 26an, Sara Escudero eta Miguel Iribar izango dira. Escudero *El Club de la Comedia* saioko azken irabazlea dugu.

PEDRO LLAMAS ETA DANI LOPEZ

Vaya por Dios: mejorando lo presente izeneko ikuskizuna egingo dute otsailaren 15ean eta 16an, 22:30ean hasita.

DANI MATEO

Otsailaren 23an eta 24an Dani Mateo monologista entzutetsua *PK2: Que Dios nos coja confesados* emanaldiarekin.

The Jam talde mitikoaren zuzeneko bortitza Oñatiko gaztelekuan

M.A. | OÑATI

Ingalaterrako The Jam talde mitikoa Euskal Herrian ikusteko aukera izango dugu. Oraingo honetan, Bruce Foxton baxu -jotzailearen gidaritzapean egingo dute Espainian barrena bira, From The Jam gisa. Euskal Herrira, baina, etorriko dira eta Oñatiko gaztelekuan egingo dute geldialdia.

The Jam taldea 70eko hamarkada bukaerako eta 80ko hamarkada hasierako talderik garrantzitsuenetako bat izan da punk, mod eta new wave mugimenduen barruan. 1977 eta 1982. urteetan zehar 7 disko luze argitaratu zituzten. Nork ez ditu gogoratzen *In the city*, *This is the modern world*, kantuak? Beraien musikak 60ko mod mugimendua –The Who, Small faces– biziberritu zuen, bai estetikoki, baita musikalki ere. Taldea desegin eta gero, nork bere bideari ekin zion. Baina, The Jam batzeko saiakerak egin eta gero, Bruce Foxton baxuak ekin dio From the Jam izenpean beraien abesti mitikoak zuzenean jotzeari: kontzertu zuzenak eta bortitzak, berriro eskainiz.

Zuzenekoa hilaren 25ean gaztelekuan izango da, 22:30ean hasita. Haiekin batera Plan B punk-rock taldea arituko da. Denbora luze batez geldirik egon eta gero berriro agertokian ikusteko aukera izango da.

Sarrerak salgai

Sarrerak *www.barrabarra.eu* webgunean eta leihatilan egunean bertan lor daitezke, 10 euroren truke.

'Peter Pan' euskarazko musikalaren Elgetako emanaldietarako sarrerak salgai daude

Bergaran Gabonetan arrakastaz estreinatu ostean, otsailaren 2an Espaloia antzokian *Peter Pan* euskarazko musikalaz gozatzeko aukera egongo da. Dagoeneko salgai daude sarrerak. Honako toki hauetan eskura daitezke: Bergarako Pikupe Produkzioetan, Bergarako Musika Eskolan eta Elgetako Espaloian; eta, Internetez, *www.espaloia.com*-en. Bi saio eskainiko dituzte Elgetan otsailaren 2an: 16:00etan eta 19:30ean. Musikala hiriburuetara eroatea da asmoa, baina oraingoz ez dute ezer zehaztu.

'Zamburleiker 6.0' diskoa aurkeztuko du Unai Azkaratek gaur Bergarako Zabalotegin

Memphisera doan Belceblues taldeko bateria–jotzailea ere lagun izango dute

M.A. | BERGARA

Azkaiter Pelox-en azken proiektua hirukoa da azkenaldian: Soraluzeko Gaizka Azkaratek –harmonika–, Oñatiko Amaia Azpiazuk –ahotsa– eta Unai Azkaratek –gitarra– osatzen dute taldea. Baina gaurko Zabalotegiko aurkezpenerako seikote bilakatuko direla azaldu digu Unai Azkaratek: "Belceblueskoekin batera Memphisera doan Gille Sanz madrildarra baterian, *Urrezko Pua* lehiaketako antolatzaile den Pablo Biurrun uruguiatarra baxuan eta ZZ blues taldeko Joanes Iñurrieta gitarran gurekin ariko dira *Zamburleiker 6.0* diskoa aurkezten zuzenean".

Azken hiru urteetako lana biltzen duen diskoa dela dio. "Gure bizipen pertsonalak lagun ditugun musikari bikainekin batera aireratzen ditugu; Jose Angel Irigarairen testu bat izan ezik, beste abesti guztiak nik idatzi ditut". Ander Barriuso soinu teknikariarekin Eibarko Legarreko estudioetan grabatu dute diskoa, eta orain, zuzenekoetan aurkezten dihardute. "Diskoan bederatzi musikari aritu gara eta gure aurreko diskoan baino instrumentu gehiago sartu ditugu, kontrabaxua ere grabatu dugu -eta", nabarmendu digu.

Azkaiter Pelox Band taldea osatzen duen hirukoa. | UNAI AZKARATE

Zabalotegin, etxean moduan

Gaur, Zabalotegin, 22:30ean egingo dute aurkezpena. "Areto bikaina da guretzat. Talde handiak ikusi ditugu bertan. Barikuan goraino betetzea espero dugu eta horretarako sarrerarekin –8 euro– diskoa ere oparituko diogu ikusleari", dio.

Debagoieneko udal liburutegiek aurten ere egin dituzte film, liburu eta diskoen proposamenak

Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Oñati eta Bergarako liburutegiek elkarrekin lantzen dute 'Neguko gida'

ARRITXU BARRUSO | DEBAGOIENA

Oñati, Eskoriatza, Bergara, Arrasate eta Aretxabaletako udal liburutegiek aurten ere *Neguko gida* kaleratu dute. Beraz, hasi berri dugun urte honetan literatura ona dastatu, musika ederra entzun eta ikus-entzunezko onak ikusi nahi izanez gero, *Neguko gida*-n topatuko ditugu horretarako hainbat proposamen.

Arantzazu Ibarrondo Oñatiko Udal Liburutegiko arduraduna da eta *Neguko gida*-ren garrantzia eta balioa azpimarratu nahi izan ditu: "Hainbat liburutegik elkarlanean egindako gida izateak lan handia eskatzen du, guztiok ados jartzea ez delako erraza izaten. Baina, hain justu ere, horrek ematen dio *Neguko gida*-ri aberastasuna, aukeraketa egiten lantalde sendoa dagoela atzean. Uste dut liburutegion arteko elkarlana oso garrantzitsua dela. Esango nuke Euskal Herri mailan aitzindariak garela horretan".

Maitagarria eta Desioa liburua. | GOIENA

Mission diskoa. | GOIENA



Gorila bat zenbatzen liburua. | GOIENA



Urte berri on, amona filma. | GOIENA

Klasikoak ume eta helduentzat

Liburu, disko eta ikus-entzunezkoen artean, guztira 73 proposamen egin dituzte, eta horietako batzuk azpimarratzeko eskatu diogu Ibarrondori. 0 urtetik gorako haur literaturaren kategorian, esaterako, *Gorila bat zenbatzeko liburua* aipatu digu: "Anthony Browne klasikoa da haur literaturan, egiten duen guztia izaten da oso kalitate onekoa. Zenbatzen ikasteko liburua da, baina ilustrazioa da nagusi, eta umore puntu batekin, gainera".

Neguko gida-n jasotzen den beste idazle klasiko bat aipatu digu jarraian, kasu honetan euskalduna: Mariasun Landa. "*Maitagarria eta Desioa* liburua 9 urtetik gorakoen kategorian badago ere, badakigu helduek asko gozatzen dutela liburu horrekin. Horrek esan nahi du literatura oso ona dela. Bizitzaren eta heriotzaren inguruan jarduten duen liburua da. Mariasun Landa oso idazle poetikoa da".

DATUA

73

PROPOSAMEN

Adinkako kategorietan banatuta 73 proposamen egiten ditu, guztira, gidak.

Literaturaz gain, ikus-entzunezkoak eta musika ere proposatzen dira gidan. Horren ildora, Cecilia Bartoliren *Mission* gomendatu digu Ibarrondok: "Musika klasikoa da. Oso kritika onak jaso ditu. Lan garrantzitsua da, Agostino Steffani konposatzailearen musika interpretatzen den lehenengo aldia delako".

Neguko gida eskuragarri dago udal liburutegietan abendu amaiera ezkero, eta ikastetxeetan ere banatu dute. Horrez gain, formatu digitala ere eskuragarri dago liburutegien eta udalen webguneetan.

Neguko gida-ren azala. | GOIENA

Aurten, Huhezinemaren seigarren edizioan, 4.000 euro banatuko dituzte saritan

Joan den edizioan baino diru gehiago banatuko du Huhezinema lehiaketak

AMAIA GARATE | ARETXABALETA

Hurbiltzen ari da apirilaren 16an, 17an eta 18an ospatuko den Huhezinema 2013 Euskal Film Laburren Jaialdiaren seigarren edizioa. Aurten, joan den edizioan baino diru gehiago banatuko da sarietan, 4.000 euro hain zuzen ere, parte-hartzaile guztien artean film laburrik onena saritzeko.

Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia Huheziko fakultateko (Mondragon Unibertsitatea) Komunikazio gunean sortu zen 2008an. Huhezinema bera ikasgaia izanik, Ikus-entzunezko Komunikazioko laugarren mailako ikasleek benetako film laburren jaialdi baten antolakuntza ezagutzeko eta gauzatzeko aukera dute. Erabat praktikoa den ikasgai horren helburua da elkarlanean jaialdia ondo ateratzea. Hala, aukera dute graduan zehar ikasitakoa praktikan jartzeko eta, aldi berean, mundu profesionalarekin harremanak sustatzeko.

Lehiaketa ofizialean zein MUko ikasleen lehiaketan lanak bidaltzeko epea irekita dago jada, eta bi lehiaketetan parte hartzeko oinarriak Huhezinemaren webgunean kontsulta daitezke.

Huhezinema 2013ko lantaldea. | A. IRAZUSTA

Deialdia irekita

Lehiaketa ofizialean parte hartzeko lanak martxoaren 1a baino lehen bidali behar dira eta MUko ikasleen lehiaketarako lanen epea, berriz, martxoaren 8an amaituko da.

Lehiaketan parte hartzeko oinarrien artean, adina ez da arazo, edozein adinetako egileen lanak onartuko baitira. Bestalde, egileen jatorriari dagokionez, Euskal Herrian jaiotakoenak edo bertan erroldatuta daudenenak bakarrik jasoko dira. Edozein generotako lanak izango dira, gehienez 30 minutuko iraupenarekin. Jasotako lanak Huhezinemaren esku geratuko dira.

Aurtengo ikasleen lehiaketa, gainera, sari berri batekin dator. Izan ere, Basque Culinary Center -en lankidetzari esker, ikasleen lehiaketan sari berezia emango du 2013an euskal gastronomia ondoen islatzen duen lanarentzat. Goiena Komunikazio Taldeak, beti bezala, aurten ere parte hartuko du lehiaketan, euskarazko lanik onena saritzen.

Betagarrik disko berria aurkeztuko du hilaren 11n gaztelekuan

A. G. | OÑATI

Talde gasteiztarrak *Zorion argiak* disko berria aurkeztuko du Oñatiko gaztelekuan. Betagarriren hamaikagarren disko hori entzuteko aukera izango dugu urtarrilaren 11n.

Hogei urte baino gehiago musika munduan murgilduta dabilen Betagarri taldeak diskoa atera berri du, eta urriaren 24an jarri zuten salgai.

Betiko reggae, rock eta ska doinuekin datoz, baina, Iñaki Ortiz de Villalba abeslariaren ahotsa entzuteaz gain, beste hainbat ahots ezagun ere entzun ahal izango ditugu disko berri horretan.

Kolaborazio ugari

Diskoak 20 abestitik gora ditu eta bi CDz osatua dago. Talde gasteiztarrak Elkar estudioan grabatu du disko berria. Jean Phocas soinu teknikaria aritu da soinu mahaian, eta diskoan kolaborazio ugari izan dituzte: Tonino Carotone, Gari, Pirritx eta Porrotx, Iñigo Muguruza, Mikel Urdangarin, Kutxi (Marea), Francis (Doctor Deseo), Juan (SA), El Drogas, Xabi (Obrint Pas) eta Virginia De La Casa.

Egubakoitzean Oñatiko gaztelekuan izango den emanaldi horri Zoom talde durangarrak emango dio hasiera.

Betagarri taldea. | BETAGARRI

Modelo lanetan ibili den Mikel Alberdi aretxabaletarra.

M.A.

Mikel Alberdi | Ikaslea eta modeloa

"Ikasketak amaitzean gustatuko litzaidake berriz ere modeloen munduan buru-belarri sartzea"

AMAIA GARATE | ARETXABALETA

Mikel Alberdi (Aretxabaleta, 1991) Publizitate eta Harreman Publikoetako lizentziaturako azken urteko ikaslea da EHUn. Modelo lanetan ibili da eta bere zaletasunen artean umeak, futbola eta argazkigintza daude.

Nork bultzatu zintuen modelo lanetan hastera?

Bueno, lehenik eta behin, gustatuko litzaidake argi uztea une hauetan ez nabilela modelo lanetan, denbora falta dela eta. Ikasketei lehentasuna ematea ezinbestekoa iruditu zait urte honetarako, behintzat. Ikasketak amaitzean gustatuko litzaidake berriz ere modeloen munduan buru-belarri sartzea. Betidanik gustatu izan zait modeloen mundua, eta nire neskalaguna izan zen *casting* batera aurkeztera bultzatu ninduena.

Noiz piztu zitzaizun modelo izateko interesa?

Nire ikasketak egiten hasi nintzenean jende desberdin asko ezagutzeko aukera izan nuen, eta honek piztu zidan ideia.

Non egin duzu lan?

Corte Inglesentzat egin dut lan. *Wannabe a model* pasarelan aritzeko *casting*-era aurkeztu nintzen, eta, zorionez, aukeratu egin ninduten. Ekitaldi haren ondoren, udako bainujantzi linea berriaren aurkezpenerako ere deitu zidaten.

Etorkizunari begira, gustatuko litzaizuke modelo izatea?

Bai, baina lan munduan horretara dedikatzea oso zaila da, kompetentzia handia dago eta jende oso trebea dago mundu horretan sartuta. Beti zure onena ematen saiatzen zara eta eguneroko bizitzan sakrifizio handia eskatzen du horrek. Baina saiatzeak merezi duela uste dut.

Baduzu beste zaletasunik?

Bai; argazkigintza eta bideogintza asko gustatzen zaizkit. Nire denbora librean argazkiak ateratzea asko gustatzen zait, edonora bidaiatzen dudala kamera alboan eramatea ezinbestekoa da niretzat. Futbol partiduetan argazkiak ateratzea oso gustuko dut. Bideogintza ere nire zaletasunetako bat da. Unibertsitateko lanez aparte, lagun artean egiten ditugu zenbait bideo barregarri. Aretxabaletako Inauterien inguruan ere urtero egiten dugu bideo barregarriren bat edo beste. Bai Inauteriak iragartzeko eta ondoren egun handia bost minutu inguruko bideo batean laburtzeko.

Futbolean ibiltzen zarela ere entzun dugu; zein mailatan jokatzen duzu?

Lehen mailan jokatzen dut, erregionaleko lehen mailan, alegia. UDA B taldean. Joan zen denboraldian mailaz jaitsi ginen arren, talde oso polita daukagu. Orain igoera faserako sailkatuak gaude, eta, inongo zalantzarik gabe, mailaz igotzea lortuko dugu! Aupa, UDA!

Zer garrantzi du futbolak zure bizitzan?

Egia esan, kirolak berak daukan garrantzia ematen saiatzen naiz. Hau da, ez gehiago eta ez gutxiago. Konpromisoz hartzen dut, baina burua galdu gabe. Asko gustatzen zaidan kirola da, eta asko gozatzen dut bai jokatzen eta bai taldean dugun giroarekin.

Umeak ere zure zaletasunen barruan sartzen dira, ezta?

Izugarri gustatzen zaizkit umeak, poztasun izugarria ematen didate eta oso gustura aritzen naiz beraiekin. Irakaskuntza arloan aritzeko aukera beti dut gogoan. Baina, oraingoz, oso gustura nabil aisialdi arloan umeekin lanean. Udalekuetan sei urte daramatzat, bai Arizmendi Ikastolako udalekuetan, Acedon, eta baita Ikastolen Elkarteko ingeleseko udalekuetan ere, Zarautzen. Kirol arloan, multikiroletan ari naiz orain urte osoan. Lau neska talde ditut Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren mailen bitartean, eta benetan zoragarriak dira. Honetaz gain, urtero joaten gara Bordeleko nazioarteko futbol txapelketara bost eta sei mailetako mutilekin. Esperientzia zoragarria da benetan. Umeekin oso ondo konpontzen naiz, azken finean ni ere ume handi bat naiz-eta!

PERTSONALA

Zure herriko txoko magikoena: Aretxabaletako telefono kabina.

Bizi izateko herri bat: Salsburgo.

Kantu gustukoena: Sebastian Ingrossoren Calling.

Gogoko janari bat: Txuletoia

Bidaiatzeko toki bat: Estatu Batuak eta Abu Dabi.

Gogoko liburu bat: El poder del ahora.

Beldurra zeri: Goseari.

Bidaia gustukoena: Benidormera lagunekin.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Hiru logela, sukaldea, jangela, egongela, bi komun, despentsa, terraza eta garaje itxiko etxebizitza salgai. Kalean. 660 57 40 66

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. 95 metro koadro erabilgarri. Etxebizitza berria, hirugarren solairuan. Igogailuarekin. Hiru logela eta bi bainugela. Dena kanpoaldera begira. Hilean 600 euro, komunitate gastuak barne. Argazkiak ikusteko: *www.euskalnet.net/aguirre*. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630 60 47 75

Arrasate. Erdigunean apartamentua ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berokuntza zentrala. Bista ederrak. 628 22 45 09

Arrasate. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Berokuntza indibiduala. Berritua. Jantzia. 607 27 66 47

Bergara. Erdigunean guztiz berritutako 84 metro karratuko pisua ematen da errentan. Bi logela handi ditu, sukalde, jangela eta egongela handiak eta trasteleku txiki bat etxean bertan. 685 72 51 58

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Igogailutik gertu. Bi logelakoa. Oso argitsua. Leiho berriekin. Berokuntza zentrala. 665 73 98 32

Donostia. Alde zaharrean, Abuztuaren 31 kalean, hiru logela, egongela eta sukaldea duen etxea ematen da errentan. Berriztu berri. Asteka edo hilabeteka. Tel: 636 14 66 05 edo 619 41 97 10

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da Onatiko erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta igogailua ditu. Interesatuak arratsaldez deitu telefono zenbaki honetara: 652 77 87 15

105. ETXEAK OSATU

Etxea osatu. Etxea osatzeko bi pertsona behar dira. Langile giroa. Errenta gastua: 185 euro gehi pisuko gastuak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 11 45 14

3. LOKALAK

301. SALDU

ARRASATE
Taberna salgai alde zaharrean.
666 40 65 19

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Oñati. Emakume euskaldun esperientziaduna behar da adineko gizon bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordutegia goizeko 9:00etatik 13:00etara. Beharrezkoa litzateke gida baimena eta kotxea izatea. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 677 34 12 96 edo 688 62 74 89

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskalduna garbitasunak eta plantxa egiteko gertu. 699 54 17 27

Arrasate. Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko, bai etxean bertan bizitzeko edo orduka, baita garbitasun lanak egiteko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 682 31 97 37

Bergara edo Arrasate. Neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia. Gauak egiteko gertu nengoke. Baita etxean bizi izaten, egunez zein orduka lan egiteko ere. Legezko paperekin. 674 93 20 47

Bergara. Neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko arratsaldez. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 665 75 41 32

Bergara. 19 urteko mutil euskalduna ostiral arratsalde, astebukaera eta jaiegunetan zerbitzari lanetan aritzeko prest. Esperientzaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 627 36 83 70

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko. Legezko paperak ditut et esperientzia handia. 672 96 08 22

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaitzeko. Ospitalean gauak egiteko gertu nago. Baita asteburu edo egunez ere. Atariak garbitzen ere lan egingo nuke. 699 60 91 90

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. 943 76 52 39

Debagoiena. Eritzaintza laguntzaile tituludun neska etxean laguntzen jarduteko gertu. 686 404 203

Debagoiena. Esperientziadun mutila gertu lanerako: etxe zein lokalen garbiketa, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. 633 28 81 24

Debagoiena. Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko emakumea prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 649 52 86 54

Debagoiena. Mutil euskalduna gertu lanetarako: sukaldean lagundu, garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko. Arduratsua eta berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu telefono ra: 665 70 36 37

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berritua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berritua. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berritua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalategi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Askarruntz 75 m². 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €.
- Masterreka 45 m². Logela bat. 150.253 €.
- Iborra 65 m². 3 logela. Berritua. 150.000 €.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalategin 2 eta 3 logelatako pisuak 120.000 € baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA.
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 68 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 68 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berritua.
- Fraiskozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraiskozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Ibargarai 98 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405 €.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.

ANTZUOLA:
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Bustinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Iborre auzoa, San Josepe, Aierro eta Errekalde. Etxe onak.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rebal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

Debagoiena. Mutila lan bila asteburuetarako. Interesatuak arratsaldez deitu telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Neska arduratsua eta esparientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. Deitu 695 73 87 95 edo 943 71 53 74 telefonoetara.

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, sukaldea eta garbitasuna. 610 99 70 46

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna eta erreferentzia onak dituena, lanerako gertu. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo bestela. 633 34 76 22

Debagoiena. Neska gertu nagusi, gaixo edo umeak zaintzeko. Baita garbitasun lanetarako ere. Egunez. Urte askotako esperientziaduna. Yesenia. 634 12 56 87

Debagoiena. Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko. Jatetxeetan ere bai, laguntzaile gisa. 630 20 12 03

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko eta baita garbiketak egiten zein dendari jarduteko. Orduka, etxean bizi izaten edo bestela. Erreferentziak ditut. Interesatuak arratsaldez deitu telefono zenbaki honetara: 636 41 98 14

Debagoiena. Neska lan egiteko gertu, arratsaldez, gauez edo astebukaeretan. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Interesatuak arratsaldez deitu telefono zenbaki honetara: 630 99 11 85

Debagoiena. Neska, klinika laguntzaile tituluduna, lanerako prest. Nagusiak zaindu zein ospitalean gauak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 943 25 02 96 edo 688 80 27 01

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke, baita garbiketa lanetan ere. Geriatriako titulua daukat. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

Haurrak zaintzeko prest. Umeak zaintzeko prest nago, euskalduna eta esperientzia handia. 651 90 40 10

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Debagoiena. Hizkuntzen Psikopedagogian Lizentziatua eta Haur Hezkuntzan Diplomatua. Hainbat urtetako esperientzia. Eskola partikularrak ematen ditut Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Honez gain, euskara errefortzuak ematen ditut haur zein helduei, eta ikasketa plan pertsonalizatuak diseinatzen ditut pertsona bakoitzaren beharren arabera. 646 62 05 15

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Artzai txakurrak ematen dira. Artzai arrazako txakurkumeak ematen ditut opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 75 86 49

Txakurkumeak ematen dira. Setter ingeles eta Setter Gordons arteko nahasketa duten txakurkume bi ematen dira opari. Bi hilabetekoak. Interesatuok deitu 605 73 75 30 edo 607 65 53 51 telefono zenbakietara.

Txakurtegia itxi behar delako txakurrak ematen dira. Txakurtegia itxi behar dutelako han dauden 33 txakur hil behar dituzte. Hori dela eta, pertsona arduratsuei txakurrak emateko gertu daude. Pertsona arduratsua bazara eta txakur bat izan nahi baduzu deitu zenbaki honetara 629 27 82 38 eta Monikarengatik galdetu

8. DENETARIK

802. EROSI

Trikitixa erosiko nuke. Salgai baduzu deitu 658 70 87 73 telefono zenbakira.

Trikitixa. Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke, Salgai baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 606 66 18 69 .

Antzinako gauzak jaso edo erosi. Antzinako gauzak jaso edo erosten dira: bizikletak, josteko makinak, argazki kamarak, idazteko makina... Egoeraren arabera ordaintzen da. Emailez edo watsapp bidez argazkia bidali edo deitu. 678474354

806. GALDU

Eskularruak galdu Aretxabaletan. Balio sentimental handiko larruzko eskularru beltzak galdu nituen aurreko ostiralean Aretxabaletan. Aurkitu badituzu deitu mesedez telefono honetara. Saria eskainiko dizut. Aurkitu baduzu deitu 672 76 89 09 edo 943 79 10 07 telefono zenbakietara.

Patinetea Bergaran. Irala kalean hilaren 5ean, eguerdian, patinetea galdu genuen. Oxelo-Freestyle modeloa. Berdea, zuria eta beltza. Aurkitu baduzu deitu 660 71 43 98 edo 943 53 30 30 telefono zenbakietara.

Txalekoa Bergaran. Bergaran txalekoa galdu nuen. Inork emakumezko txalekoa, ileduna, aurkitu badu Bergaran, dei dezala telefono zenbaki honetara, mesedez: 678 43 31 23

807. AURKITU

Apaingarria Aretxabaletan. Aretxabaletako plazan, urtarrilaren 5ean, arratsaldean, brotxe edo apaingarri bat aurkitu genuen. Jabeak telefono honetara dei dezala. 699 86 17 79

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Bergaratik Donostiara. Donostiako Arantzazuko Amaren erresidentziara lanera joateko kotxea partekatu nahiko nuke. Miren. 660 46 34 93

Eskoriatzatik Durangora. Egunero, Durangora joan beharra daukat 8:15etarako. Norbait ordu horretarako baldin badoa, gustora partekatuko nituzke kotxeko gastuak. Izan daiteke, Eskoriatzatik, Aretxabaletatik edo Arrasatetik. Deitu 656 73 80 92 telefonora.

b+b
batu-banatu
banaketak neurrira
Tel.: 943 08 10 50
banaketak@batubanatu.com

Banaketa aukera ezberdinak
- Banaketa **masiboa**.
- **Autoz auto** banatzea.
- **Kartelak** ipini.
- Banaketa **pertsonalizatua** (bezero edo hartzaile konkretuei).
- **Goiena papera**rekin batera (astelehenetan eta ostiraletan).

Banaketaren jarraipena eta kalitate kontrola egiten dugu.

Eskatu aurrekontua konpromiso barik!

Gure langileak Gizarte Segurantzan alta emanda daude eta lan-arriskuen prebentzio legedia betetzen dugu.

ASTEA GOIENAN

GOIENA

2013rako asmo berriak 'AsteOn'-en

Urte berriarekin batera asmo berriak izaten ditugu, eta horiei buruz jardungo du Arritxu Barruso aurkezleak. Kirola, tabakoa eta elikadura izango ditugu hizpide eta psikologo baten adierazpenak ere izango ditugu, hori zergatik pasatzen den azaltzeko.

'AsteOn'
Egubakoitza, 22:01

GOIENA

Aretxabaletaren partidua ikusgai

Domekan Aretxabaletak Beti Gazte taldea hartuko du etxean, eta bertan gertatzen denaren berri emango dugu astelehenean *Harmailatik*-en. Horrez gain, asteburuan izandako gainontzeko kirol hitzorduen errepasoa ere egingo dugu saioan.

'Harmailatik'
Astelehena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 11
11:30 Planik bai?
11:50 Magazinea
12:35 Zorion Agurrak
12:40 Gurean gaur
13:10 Ekogune
13:40 Onein
14:10 Erreportajea
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:28 Bertso saioa
17:00 Zorion Agurrak
17:05 Berriak
17:25 Eguraldia
17:28 Planik bai?
17:48 Zorion Agurrak
17:52 Ekogune
18:22 Goierri Creation Center
18:52 Planik bai?
19:12 Zorion Agurrak
19:16 Berriak
19:36 Eguraldia
19:39 Planik bai?
19:59 Bertso saioa
21:31 Gurean gaur
22:01 AsteON
22:31 Berriak
22:51 Eguraldia
22:54 AsteON
23:24 Esatea libre
00:34 Berriak
00:54 Eguraldia

ZAPATUA, 12
10:00 28.Klip
10:31 Zorion Agurrak
10:36 Ekogune
11:06 AsteON
11:46 Planik bai?
12:06 Onein
12:44 Berriak
12:59 Magazinea
13:59 Erreportajea
14:29 Gipuzkoa kultura
14:59 Zorion Agurrak
15:04 Berriak
15:19 Onein
15:39 Planik bai?
15:59 Gipuzkoa kultura
16:29 Zorion Agurrak
16:34 Berriak
16:49 Beranduegi.tv
17:13 Magazinea
18:13 Planik bai?
18:33 Goierri Creation Center
19:06 AsteON
19:42 Beranduegi.tv
20:06 Magazinea
21:06 Planik bai?
21:26 Bertso saioa
22:58 Gipuzkoa kultura
23:28 Berbetan
00:10 Planik bai?

DOMEKA, 13
10:00 Hamaika.bit
10:33 Bertso saioa
12:05 Zorion Agurrak
12:10 Onein
12:48 Magazinea
13:48 Planik bai?
14:08 Berriak
14:23 Onein
14:43 Tobera herri-antzerkia
16:40 AsteON
17:15 Zorion Agurrak
17:20 Gipuzkoa kultura
17:50 Ekogune
18:20 Berriak
18:35 Magazinea
19:35 Beranduegi.tv
19:59 Magazinea
20:59 AsteON
21:34 Zorion Agurrak
21:39 Ekogune
22:04 Magazinea
22:39 Berriak
22:54 Erreportajea
23:28 Esatea libre
00:43 Magazinea

ASTELEHENA, 14
12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Onein
13:40 Gipuzkoa kultura
14:10 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion Agurrak
15:18 AsteON
15:58 Erreportajea
16:28 Zorion Agurrak
16:33 Ikusmira
16:43 Berriak
17:08 Eguraldia
17:11 Onein
17:41 Berbetan
18:23 Ekogune
18:51 Goierri Creation Center
19:24 Erreportajea
19:50 Berriak
20:15 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 AsteON
22:00 Harmailatik
22:45 Berriak
23:05 Eguraldia
23:08 Magazinea
23:53 Harmailatik
00:38 Berriak
00:58 Eguraldia

MARTITZENA, 15
12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:07 Eguraldia
15:10 Harmailatik
15:55 Onein
16:17 Berbetan
16:59 Berriak
17:19 Eguraldia
17:22 Esatea libre
18:37 Harmailatik
19:20 Gipuzkoa kultura
19:50 Zorion Agurrak
19:53 Berriak
20:13 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Goierri Creation Center
22:03 Berriak
22:23 Eguraldia
22:28 Magazinea
23:13 Bizitegia
23:41 Berriak
00:01 Eguraldia

EGUAZTENA, 16
12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Hamaika.bit
13:45 Erreportajea
14:15 Bizitegia
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:41 Onein
16:08 Harmailatik
16:53 Berriak
17:13 Eguraldia
17:15 Goierri Creation Center
17:48 Zorion Agurrak
17:53 Beranduegi.tv
18:15 Bertso saioa
19:50 Berriak
20:12 Eguraldia
20:14 Magazinea
20:59 Gurean gaur
21:34 Erreportajea
22:00 Berriak
22:20 Eguraldia
22:25 Magazinea
23:10 Harmailatik
23:55 Berriak
00:00 Eguraldia

EGUENA, 17
12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Erreportajea
13:41 Hamaika.bit
14:11 Onein
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:41 AsteON
16:21 Erreportajea
16:47 Berriak
17:07 Eguraldia
17:10 Onein
17:32 Hamaika.bit
18:05 Planik bai?
18:25 AsteON
19:05 Zorion Agurrak
19:10 Berriak
19:30 Eguraldia
19:36 Beranduegi.tv
19:56 Planik bai?
20:17 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Taula gainean
22:00 Planik bai?
22:20 Berriak
22:40 Eguraldia
22:43 Magazinea
23:28 Erreportajea
23:54 Berriak
00:14 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratua entzuteko aukera zapatu eta domekan

Astean zehar Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioan izan ditugun elkarrizketa esanguratsuenak entzuteko aukera izango duzue asteburuan 107.7ko uhinetan. Zapatuan eta domekan 11:00etan eskainiko dizkizuegu astean zehar eskainitako elkarrizketa azpimarragarrienak.

Astelehenetik egubakoitzera, igo zaitez autobusera

Astelehenetik egubakoitzera 10:00etan hasten dugu *Igo autobusera!* irratsaioa. Orduan, albiste, agenda eta eguraldiaren berri emango dizugu. 11:00etan, bigarren geltokian, elkarrizketa bat izango duzu entzungai eta errepikapenak 12:00etan, 14:00etan, 17:00etan eta 19:00etan.

ESKER ONA

Paco Larrañaga Altube

Osintxun hil zen 2012ko abenduaren 26an.

Une honetan gurekin izandakoei,
hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Osintxun, 2013ko urtarrilaren 11n.

ESKER ONA

Jesus Mari Erostarbe Kortabarria

Orain dela egun batzuk hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez,
besarkada handi bana familiaren partetik.
—
Ondra meza bihar, urtarrilak 12, zapatua, ospatuko dugu,
19:30ean, Oñatiko Agustinoetan.

Oñatin, 2013ko urtarrilaren 11n.

ESKER ONA

Isabel Muruamendiaraz Arregi

Arrasaten hil zen 2013ko urtarrilaren 7an, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak zenizkigutenoi,
eskerrik asko familiaren izenean.

Bergaran, 2013ko urtarrilaren 11n.

ESKER ONA

Martin Jose Urionabarrenetxea Berazategi

Oñatin hil zen 2012ko abenduaren 22an, 68 urte zituela.

Une hauetan gurekin izan zaretenoi, eskerrak sendikoen izenean.
—
Eskerrik asko zure gizatasunagatik, beti izango zara gure bihotzetan.

Oñatin, 2013ko urtarrilaren 11n.

ESKER ONA

Marcos Cortabarria Lete

2012ko abenduaren 22an hil zen, 95 urte zituela.

Marcosen familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.
Lerro hauen bidez, banaka egin ezin izanagatik, sendiarengana
hitz lasaigarriekin hurbildu ziren guztiak eta hileta elizkizunera
agertu ziren denak eskertu nahi ditu.

Bergaran, 2013ko urtarrilaren 11n.

ESKER ONA

Inazio Toledo Lizarralde

Antzuolan hil zen, 2013ko urtarrilaren 6an, 80 urterekin.

Une honetan gurekin izandakoei, elizkizunetara etorri eta samin-agurrak bidali
dizkiguzuenoi, eskerrik asko bihotz-bihotzez familiakoen izenean.
—
Joan zara baina gure artean jarraituko duzu.

Antzuolan, 2013ko urtarrilaren 11n.

HILDAKOAK

Felisa Leturia Intza. Oñatin, abenduaren 18an. 94 urte.
M. Luisa Ibarguen Mondragon. Arrasaten, abenduaren 21ean. 84 urte.
Francisca Goñi Arruiz. Bergaran, abenduaren 21ean. 87 urte.
Fernando Rodriguez Gonzalez. Bergaran, abenduaren 21ean. 89 urte.
Marcos Cortabarria Lete. Bergaran, abenduaren 22an. 95 urte.
Petra Pagaldai Iñurrategi. Leintz Gatzagan, abenduaren 22an. 92 urte.
Secundina Jayo Aldana. Arrasaten, abenduaren 22an. 93 urte.
Martin Jose Urionabarrenetxea Berazategi. Oñatin, abenduaren 22an. 68 urte.
Pedro Iñurritegi Markuleta. Oñatin, abenduaren 23an. 63 urte.
Juan Zuazu Zarrabe. Arrasaten, abenduaren 23an. 84 urte.
Juan Luis Errasti Idigoras. Aretxabaletan, abenduaren 24an.
Carmen Mujika Sagastigutxia. Bergaran, abenduaren 25ean. 91 urte.
Albina Berezibar Altube. Arrasaten, abenduaren 25ean. 88 urte.
Paco Larrañaga Altube. Bergaran, abenduaren 26an. 86 urte.
Amelia Vazquez Lopez. Arrasaten, abenduaren 27an. 89 urte.
M. Luisa Blanco Gonzalez. Arrasaten, abenduaren 28an. 82 urte.
M. Cristina Arriola Alzibararetxuluaga. Aretxabaletan, abenduaren 28an. 75 urte.
Anastasio Ruiz Ruiz. Bergaran, abenduaren 30ean. 85 urte.
Jose Ramon Arizaleta Lakarra. Arrasaten, abenduaren 30ean. 84 urte.
Felipe Arkauz Eskibel. Eskoriatzan, abenduaren 31n. 74 urte.
M. Mercedes Iriarte Iriarte. Eskoriatzan, abenduaren 31n.94 urte.
Jesus M. Erostarbe Kortabarria. Oñatin, urtarrilaren 1ean. 58 urte.
Zoilo Rubio del Toro. Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 62 urte.
Maria Gloria Lazpiur Ibarra. Bergaran, urtarrilaren 4an. 73 urte.
Josefa Gonzalez Cuesta. Arrasaten, urtarrilaren 4an. 67 urte.
Alfonso Rodriguez Gonzalez. Arrasaten, urtarrilaren 6an. 86 urte.
Rosi Hernandez Garcia. Arrasaten, urtarrilaren 6an. 74 urte.
Benjamin Oregi Zabaleta. Bergaran, urtarrilaren 6an. 80 urte.
Inazio Toledo Lizarralde. Antzuolan, urtarrilaren 6an. 80 urte.
Francisco Solis Bonilla. Arrasaten, urtarrilaren 7an, 90 urte.
Elena Loiti Aranzabal. Arrasaten, urtarrilaren 7an. 86 urte.
Isabel Muruamendiaraz Arregi. Bergaran, urtarrilaren 7an. 92 urte.

Mateo eta Maritxu

Abenduaren 29an, Mateo Gallegok eta Maritxu Gutierrezek 50 urte bete zituzten ezkonduta. Familiarekin elkartuta urrezko ezteiak ospatu zituzten. Zorionak eta musu handi bat, zuen alaben partetik.

URTEURRENA

†

Leandro Azkoaga Bidaburu

Arrasaten hil zen 2012ko urtarrilaren 15ean, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 13an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

—

Gurekin zaitugu.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Iñaki Unzueta Arriola

2012ko urtarrilaren 23an hil zen, 52 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

Beti umoretsu beti alai
ibiltzen ginen elkarrekin,
gaur nahiz urruti egon
oroitzen gara zurekin.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

Rosi Hernandez Garcia

Arrasaten hil zen 2013ko urtarrilaren 6an.

Haren aldeko meza domekan izango da, urtarrilaren 13an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

—

Betiko gure bihotzetan.
Maite zaitugu.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Angeles Bilbao Bagazgoitia

Bergaran hil zen 2012ko urtarrilaren 11n.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Clara Gorosabel Etxagibel

Arrasaten hil zen 2012ko urtarrilaren 9an, 95 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 13an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Benjamin Oregui Zabaleta

M. Luisa Alberdiren alarguna

Bergaran hil zen 2013ko urtarrilaren 6an, 79 urte zituela.

Une honetan gurekin izandakoei, elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2013ko urtarrilaren 11n.

URTEURRENA

Cecilia Barandiaran Zaldibar

Aretxabaletan hil zen 2012ko urtarrilaren 8an.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 12an, 19:00etan, Aretxabaletako Andra Mari parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko familiaren izenean.

URTEURRENA

Carmen Iñarra Lizarralde

†

Oñatin hil zen 2012ko urtarrilaren 12an.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 12an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Aldez aurretik, mila esker.

ESKER ONA

Petra Pagaldai Iñurrategi

Leintz Gatzagan hil zen 2012ko abenduaren 22an, 92 urte zituela.

Lerro hauen bidez Petraren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Leintz-Gatzagan, 2013ko urtarrilaren 11n.

OROIGARRIA

Petra Pagaldai Iñurrategi

Leintz Gatzagan hil zen 2012ko abenduaren 22an, 92 urte zituela.

Beti irribarrea zendun ezpainetan
alaitasuna jarriz gure inguruetan.

Mila esker, Petra!

Sorginak Gatzagako emakume taldea.
Leintz Gatzagan, 2013ko urtarrilaren 11n.

OROIGARRIA

Miguel Angel Jimenez Perera

Eskolako gurasoa.

Aurrerantzean ere zuen ondoan izango gaituzue bidelagun.

ANTZUOLA HERRI ESKOLA

Antzuola Herri Eskolako guraso, ikasle, irakasle eta langileak.
Antzuolan, 2013ko urtarrilaren 11n.

BERGARA Azkaiter Pelox
Unai Azkarate bergararrak *Zamburleiker 6.0* diskoa aurkeztuko du herritarren aurrean. Musikariak hainbat lagunen laguntza izango du oholtza gainean abesti berriak aurkezteko. Sarrera 8 euro ordaindu beharko da, eta sarrerarekin batera diskoa oparituko dute.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan 22:00etan.

GOIENA

EZ DOK HIRU

ANTZUOLA 'Euskarazetamol' antzezlana
Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreek *Euskarazetamol* antzezlana ekarriko dute Torresoroara. Ez Dok Hiru Bikoteatroa taldeak euskaraz ikasteko pastillaz jardungo du. Umorea eta ironia gainezka daukan antzezlana da.
Gaur, egubakoitza, Torresoroan 22:00etan.

NON-ZER

URTARRILAK 11
URTARRILAK 17

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MUSIKA

BERGARA Los Cretinos taldearen kontzertua Lainon
Los Cretinos taldeak kontzertua eskainiko du Bergarako Laino skate parkean. 2002an Arrasaten sortutako rock-and-roll taldea da Los Cretinos.
Gaur, egubakoitza, Laino skate parkean, 22:30ean..

ARRASATE Xabier San Sebastian Band-en kontzertua
Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan Xabier San Sebastian Band taldearen emanaldia. Sarrera 5 euro izango da eta emanaldiak ordubete iraungo du.
Urtarrilaren 17a, Gaztetxean, 22:30ean.

ANTZERKIA

ARRASATE 'Paradisuaren atean'
Doke antzerki taldeak *Paradisuaren atean* antzezlana eskainiko du. *Mondraberri*-ren aldeko emanaldia izango da.
Etzi, domeka, Amaia antzokian 19:30ean.

ERAKUSKETAK

OÑATI Kubako punk mugimendua
Kubako punk mugimenduari buruzko argazki erakusketa astelehenean zabalduko dute eta hilaren 19ra arte egongo da zabalik. Antixenako gaztetxean jarriko dute erakusketa, herritarrek ikus dezaten.
Urtarrilaren 14a, astelehena, Antixena gaztetxean.

BERGARA 'Mistoak/mezclados' erakusketa Nahikarin
Bergarako zazpi margolari eta bi eskultorek *Mistoak/mezclados* erakusketa jarri dute ikusgai Nahikarin. Otsailaren 3ra arte egongo da zabalik.
Nahikari tabernan, otsailaren 3ra arte.

BERGARA Bearteko artisten erakusketa
Bearteko hainbat bazkidek erakusketa zabaldu dute Aroztegin. 41 margolan eta eskultura bat daude ikusgai. Gabon aurretik zabaldu zuten eta urtarrilaren 20ra arte egongo da zabalik.
Aroztegi aretoan, hilaren 20ra arte.

IRTEERA

ELGETA Bisita gidatua Intxortara
Prezioa bost euro da. 6 urtetik beherakoak doan eta 6-16 urte bitartekoendako bi euro. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea. 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakietan.
Etzi, domeka, Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan (Espaloia antzokia) 10:00etan.

HITZALDIAK

OÑATI Haurren elikadurari buruzko hitzaldia
Hitzaldian landuko dute 0 eta 12 urte bitarteko haurren elikadura, eta baita 12-14 bitartekoena ere. *Ikastolako jantokia: menuen planifikazioa eta funtzionamendua* izango da gaia eta hizlaria: Maite Sainz Mancebo, dietetika eta giza elikaduran diplomaduna. Guraso eta herritar guztiei zuzendutako hitzaldia da. Txantxiku Ikastolak antolatuta *Txikitxoen jardunaldiak 2013* egitarauaren barruan. Gainera, haurtzaindegi zerbitzua egongo da, 8 urte arteko umeei zuzenduta.
Urtarrilaren 16a, eguaztena, Txantxiku ikastolako aretoan 18:00etan.

OÑATI Errespetuzko komunikazioa: bizitzarako komunikazioa
Umeengana gerturatzen, ulertzen eta gozatzen lagundu diezaguketen komunikazioaren pausoak. Hizlaria: Nerea Mendizabal pedagogoa, haur masajean hezitzailea eta komunikazioan aditua. Guraso eta herritar guztiondako zabalik. Txantxiku Ikastolak antolatuta *Txikitxoen jardunaldiak 2013* egitarauaren barruan. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da, 8 urte arteko umeendako.
Urtarrilaren 15a, martitzena, Txantxiku ikastolako aretoan 18:00etan.

BERGARA Polimeroari, energia berriztagarriei eta plastikoari buruzko hitzaldia
Maria del Carmen Mijangos eta Jose Maria Asua kimikariek hitzaldi-solasaldia eskainiko dute Miguel Altunan. Solasaldi honetan polimeroei, energia berriztagarriei eta plastikoei buruz jardungo dute bi adituek eta ikasleek galdera-erantzun dinamika edo debate bat egiteko aukera izango dute.
Gaur, egubakoitza, Miguel Altuna institutuan 11:30ean.

BESTELAKOAK

ARETXABALETA Korrika batzordearen bilera
Korrika batzordea udaletxeko ganbaran elkartuko da aurten egingo den Korrikaren gainean berba egiteko.
Urtarrilaren 14a, astelehena, Udaletxeko ganbaran 18:30ean.

ELGETA Gudarien omenez Intxortako igoera
Gudarien omenez urtero egiten den ekitaldia. 11:00etan salda eta sagardoa banatuko dituzte Intxorta tontorrean. Jarraian ekitaldia eta argazkia egingo dute. 13:00etan triki-poteoa Elgetako kaleetan.
Etzi, domeka, Intxorta tontorrean 11:00etan.

ANTZUOLA Mus txapelketako bigarren kanporaketa
Mox tabernan Mus txapelketako bigarren kanporaketa jokatuko dute; beste bi saio gelditzen dira finala jokatu aurretik. Hala, parte hartu gura dutenek badute aukera oraindik.
Gaur, egubakoitza, Mox tabernan 22:30ean.

DEIA

OÑATI Atez ate: Mendiko kalea, Bakardadeko Ama eta San Anton kaleak
Atari bakoitzeko ordezkari bana joan dadin eskatzen da. Bilerak goizean eta arratsaldean egingo dira, bakoitzak ahal duenera joan dadin (behin bakarrik). Bilera orduak hauek dira: 10:00ak eta 19:00ak.
Urtarrilaren 16a, eguaztena, Kultura etxean 10:00etan eta 19:00etan.

OÑATI Atez ate: Olakua
Atari bakoitzeko ordezkari bana joan dadin eskatzen da. Bilerak goizean eta arratsaldean egingo dira bakoitza ahal duenera joan dadin (behin bakarrik). Bilera orduak hauek dira: 10:00ak eta 19:00ak.
Urtarrilaren 15a, martitzena, ETEOn 10:00etan eta 19:00etan.

OÑATI Atez ate: San Lorentzo eta Ugarkalde auzoak
Atari bakoitzeko ordezkari bana joan dadin eskatzen da. Bilerak goizean eta arratsaldean egingo dira bakoitza ahal duenera joan dadin (behin bakarrik). Bilera orduak hauek dira: 10:00ak eta 19:00ak.
Urtarrilaren 14a, astelehena, ETEOn 10:00etan eta 19:00etan.

ARRASATE Bilbora autobusez joateko deialdia
Urtarrilaren 12an Bilbora joateko autobusak 10:30ean eta 15:30ean irtengo dira Garibaitik. Txartelak Irati tabernan daude salgai.
Bihar, zapatua, Garibai Geltokian 15:30ean.

OÑATI 'Eman aukera bat atez atekoari' deialdia
Oñatiko Udalak *Eman aukera bat atez atekoari* lelopean agerraldi publikoa deitu du.
Gaur1, egubakoitza, Oñatiko Kultura etxean 19:00etan.

ARETXABALETA Aratusteetako kartel lehiaketa
Aretxabaletako Udalak Ara-

IRRIEN LAGUNAK

OÑATI Irrien Lagunak
Irrien lagunekin kanta eta dantza! ikuskizuna eskainiko dute gaztetxean. Euskal Herriko pailazo ezagunenen lagunak etorriko dira, eta abestiak, dantzak, bertsoa... denetarik eskainiko dute. Sarrerak 5 eurotan egongo dira salgai egunean bertan. Aurrez eskoletan saldu dituzte.
Etzi, domeka, Antixena gaztetxean, 17:00etan.

EGRUPOS.NET

OÑATI Betagarri eta Zoom gaztelekuan

Gasteizko Betagarri taldeak *Zorion argiak* diskoa aurkeztuko du. Elkar estudioan grabatutako lana 20 abestiz osatua dago. Disko berrian hainbat abeslariren laguntza izan dute. Kontzertua Zoom durangarrek hasiko dute. Sarrera 10 euro.

Gaur, egubakoitza, gaztelekuan 22:00etan.

tusteak iragartzeko kartel lehiaketa martxan jarri du. Datorren eguenean, urtarrilak 17, bukatuko da kartelak aurkezteko epea. Kultura Sailak deitutako lehiaketan edonork parte har dezake; lanek bi baldintza bete behar dituzte: tamaina, 50x70 zentimetrokoa; eta testua: *Aratusteak, Aretxabaleta 2013*.

Urtarrilaren 17a, Arkupe kultura etxea.

ARRASATE Aratusteetako kartel lehiaketa

Arrasateko Udalak Aratusteetako kartel lehiaketa jarri du martxan. Edonork parte har dezake lehiaketan. Lanek 50x70 neurrikoak edo DIN-A3 neurrikoak izan behar dute. Urtarrilaren 23ko 19:00ak baino lehen aurkeztu behar dira BAZen.

Urtarrilaren 23a, eguaztena, BAZen.

BERGARA Aratusteetako kartel lehiaketa

Bergarako Udalak Aratusteak Bergaran jai egitarauko azala hautatzeko lehiaketa martxan jarri du. Bergaran bizi edo erroldatuta dagoen edonork parte har dezake. Lanak urtarrilaren 22ko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Kultura etxean.

Urtarrilaren 22a, martitzena, Kultura etxean.

KIROLA

ELGETA Kantsatzeke. Bazkidetza eta federatu txartela

Elgetako Kantsatzeke mendi taldeak bazkidetza eta federatu txartela ateratzeko aukera emango du urtarrileko eta otsaileko eguaztenetan, 19:00etatik 20:00etara kultura etxeko bigarren solairuan. Eskatu dute orain arte egindako mendi irteeretako argazkiak ekartzea.

Urtarrilaren 16a, eguaztena, Kultura etxeko 2. solairuan.19:00etan

LEHIAKETAK

ARETXABALETA Wii txapelketa ludotekan

8 eta 12 urte arteko neska-mutikoek Wii txapelketa izango dute Aretxabaletako ludotekan. Jolasean ondo pasatzeko aukera izango dute.

Etzi, domeka, Ludotekan 17:00etan.

IKASTAROAK

ANTZUOLA Fandango eta arin-arin ikastaroa

Urtarrilean eta otsailean fandango eta arin-arin ikastaroa eskainiko dute gaztetxean. Ikastaroa zapatuan hasiko dute, 11:00etan. 13:00ak arte izango da ikastaroa. Ez dago aurrez izena eman beharrik.

Bihar, zapatua Antzuolako gaztetxean 11:00etan.

ELGETA Dinamizatzailea Elgetako KZgunean

Ikastaroak doan egiteko aukera KZgunean.

Urtarrilaren 14a, astelehena, Kultura etxeko KZgunean 16:30ean.

ARETXABALETA Biodantzako ate irekiak

Biodantza zer den jakiteko ate irekiak egingo dituzte kuartel zaharrean. Bertara joateko ez dago dantzan jakin beharrik. Izena aurrez ematea komeni da honako zenbakietako batera deituta: 644 35 10 40 eta 665 73 17 66.

Urtarrilaren 17a, eguena, Kuartel zaharrean 19:30ean.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

El Chef 3D
Zapatuan: 19:30.
Astelehenean: 20:30.

El origen de los guardianes 3D
Zapatuan: 17:00.

Siete dias en La Habana
Martitzenean: 20:30.

BERGARA

ZABALOTEGI

Brave
Domekan: 17:00.

El caballero oscuro: la leyenda renace
Domekan: 19:30.

La cinta blanca
Eguaztenean: 20:00

OÑATI

KULTURA ETXEA

El cuerpo
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:30.
Domekan: 19:30, 22:30.
Astelehenean: 19:30.

El origen de los guardianes
Zapatuan eta domekan: 17:00.

Silencio de hielo
Eguenean: 20:00.

ARETXABALETA

ZARAIA ARETOA

Argo
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:00.
Domekan: 19:30.
Astelehenean: 16:00.

Hotel Transilvania
Zapatuan eta domekan: 17:00.

Martha, Marcy, May, Marlenea
Eguenean: 19:30.

EIBAR

COLISEO

La parte de los angeles
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 17:00, 19:45, 22:30.
Domekan: 17:00, 20:00.
Astelehenean: 20:30.

Un buen partido
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 17:00, 19:45, 22:30.
Domekan: 17:00, 20:00.
Astelehenean: 20:30.

COLISEO ANTZOKIA

Jack Reacher
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 22:30.

El alucinante mundo de Norman
Zapatuan eta domekan: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Amor
Egubakoitzean eta zapatuan: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30, 00:35.
Domekan: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22.30.

El origen de los guardianes
Zapatuan eta domekan: 12:00, 16:45.

Volver a nacer
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 20:30, 22:40.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

Una pistola en cada mano
Egubakoitzetik eguenera: 17:15.

The master
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 19:30, 22:30.

Rompe Ralph
Zapatuan eta domekan: 12:00, 17:00.

Los miserables
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 22:15.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:15.

La noche más oscura
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 17:00, 19:45, 22:35.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:30.

Jack Reacher
Egubakoitzean eta zapatuan: 12:00, 17:30, 20:00, 22:20, 00:35.
Domekan: 12:00, 17:30, 20:00, 22:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:20.

El hobbit, un viaje inesperado
Egubakoitzetik eguenera: 17:15.

Las sesiones
Egubakoitzean eta zapatuan: 12:00, 20.15, 22:30, 00:30.
Domekan: 12:00, 20.15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20.15, 22:30.

GORBEIA

Jack Reacher
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 19:45, 21:00, 22:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:45.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30, 17:00.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:30.

El hombre de las sombras
Egubakoitzetik domekara: 17:40, 19:50, 22:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30, 21:45.

Skyfall
Egubakoitzean eta zapatuan: 0:15.

Los miserables
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 22:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

El cuerpo
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:20.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:40.
Astelehenetik eguenera: 21:30.

Despedida de soltera
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:30.
Astelehenetik eguenera: 22:00.

El hobbit
Egubakoitzetik domekara: 19:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 20:40.

El hobbit 3D
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:45.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:00.
Astelehenetik eguenera: 18:40.

Lo imposible
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:45.
Astelehenetik eguenera: 21:40.

Blancanieves
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

Grupo 7
Egubakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

Argo
Egubakoitzetik domekara: 20:15.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

La vida de Pi
Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Astelehenetik eguenera: 18:45.

Rompe Ralph!
Egubakoitzetik domekara: 18:00.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

Rompe Ralph! 3D
Zapatuan eta domekan: 15:45.

Origen guardianes
Zapatuan eta domekan: 16:30.

Alucinante mundo de Norman
Zapatuan eta domekan: 15:30.

BOULEVARD

Jack Reacher
Egubakoitzetik domekara: 17:50, 18:45, 19:45, 20:10, 21:30, 22:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:15, 0:50.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30, 16:00, 17:00.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 19:00, 19:10, 21:00, 21:30, 21:35.

La noche más oscura
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:40.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:50.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

El hobbit
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 21:00.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

El hobbit 3D
Egubakoitzetik domekara: 19:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:00.
Astehenetik eguenera: 20:45.

La vida de Pi
Zapatuan eta domekan: 15:30.

Los miserables
Egubakoitzetik domekara: 18:40, 21:50.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30.
Astelehenetik eguenera: 20:10.

The master
Egubakoitzetik domekara: 19:40, 22:25.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:15.

El cuerpo
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:10.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:20.
Astelehenetik eguenera: 20:45.

Lo imposible
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:45.
Astelehenetik eguenera: 21:25.

El alucinante mundo de Norman
Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:35.

El origen de los guardianes
Egubakoitzetik domekara: 17:45.

Rompe Ralph! 3D
Zapatuan eta domekan: 15:45.

Cirque du soleil 3D
Egubakoitzetik domekara: 18:00.
Astelehenetik eguenera: 18:45.

Rompe Ralph!
Egubakoitzetik domekara: 18:20.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:10.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

Las sesiones
Egubakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

KRITIKA

LOS MISERABLES ★★★☆☆

Zuzendaria: Tom Hopper.

Herrialdea: Britainia Handia.

Urtea: 2012.

Aktoreak: Hugh Jackman, Russell Crowe, Anne Hataway.

Iraupena: 152 minutu.

Barnetasuna eta zabaltasuna

Les miserables, Victor Hugoren eleberria, 80ko hamarkadan antzerki musikalera egokitua izan zen. Ordutik mundu osoan estreinatua izan da. Schönberg , Boublil eta Natelen abestiak oso ezagunak egin dira. Hori dela eta, ez da batere harrigarria antzerkian izandako arrakasta zineman errepikatu nahi izatea. Proiektu berri honen zuzendaria Tom Hooper, *El discurso del Rey*-ren zuzendaria izan da. Eta aktoreak goi mailakoak dira: Hugh Jackman, Russel Crowe eta Anne Hataway. Horrela ikusita filmak ondo bideratua ematen du: Hugoren istorioak denetik dauka, abestiak indartsuak dira eta aktoreak ederki moldatzen dira musika generora. *Los miserables* lan erakargarria da, ondo ikusten da, baina zerbait falta zaio lan handia izateko. Agian zuzendariari maisutasuna falta izan zaio istorioaren alde barnekoia eta alde epikoarekin jokatzeko garaian

El discurso del Rey film barnekoiagoa zen. Pertsonaia gutxi agertzen ziren, akats sekretu bat konpondu nahian. Kasu horretan zuzendariak aktoreen gertuko plano asko erabiltzen zituen horien kezkak eta harremanak azaltzeko. Eta orain, *Los miserables*-en antzeko zerbait egin du. Arazoa da film hau askoz handiago dela. Pertsonaiak garai aztoratu batean mugitzen dira. Duten giroak zerikusi handia du jasaten ari diren arazoekin. Beraz, pertsonaia bakoitzaren sufrimendua eta ardurak azaltzeaz gain, garai hartako giroan ematen diren baldintzak eta herriaren mugimenduak ere islatu behar dira. Zuzendaria askoz hobeto moldatzen da pertsonaia gutxiko eszenetan, pertsonaia bakoitzak bere sentimenduak ateratzen dituenean. Pertsonaia askoko eszenetan, ostera, Thenardieren eszenetan edo barrikaden eszenetan ez du erakusten musikalek behar duten bizitasuna ezta epikaren indarra. Hala eta guztiz filmean antzematen da musikalaren ahalmen erakargarria.

ANTONIO ZABALA

TIRA-BIRAKA

goiena

2013-01-11

BUKATZEKO

Gazte mugimenduaren metamorfosia

- 'Tximeletak: Etengabeko Metamorfosian' dokumentalean jardun du lanean Iraitz Salegi bergararrak
- Durangoko Azokan bigarren dokumental salduena izan da eta hilaren 18an Zabalotegin aurkeztuko dute

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

"Eraldaketa orok ezin dio sekula iraganari uko egin. Tximeletak ez du sekula ahazten beldarra izan zela". Horixe uste dute Topatu gazte proiektu komunikatiboko kideek, eta, horrexegatik, *Tximeletak: Etengabeko Metamorfosian* dokumentalarekin Euskal Herriko gazte mugimenduak hiru hamarkada luzeetan utzitako arrastoa aztertu nahi izan dute.

Iraitz Salegi bergararra da proiektuan murgildutako gazteetako bat, eta azaldu digu asko ikasteaz gain, etorkizunera baikortasunez begiratu ahal izatea ekarri diola dokumentalak: "Hamarkada ezberdinetako jende dezente elkarrizketatu dugu eta horietako askok, nostalgia puntu batekin bada ere, baikortasun handiz ikusten dute gaur egun bizi dugun egoera, eta borrokan jarraitzeko grina sumatu dut. Hori oso garrantzitsua izan da niretzat".

Intsumisioaren aldeko protestak, *Chinchillako sentada*, 1995ean Beratik Donibane Garazira egindako Gazte Martxa, Jarrai-Haika-Segi makrosumarioa... Horiek guztiak eta gehiago ezagutu, edo zenbait kasutan, berriz bizitzeko aukera eskaintzen du *Tximeletak* dokumentalak.

Iraitz Salegi gazte bergararra. | ARRITXU BARRUSO

Dokumentalaren pasarte bat. | A.B.

Zubimendi, dokumentalean. | A.B.

Bergaran urtarrilaren 18an

Donostiako Doka kafe antzokian aurkezpen ofiziala egin ostean eta dokumentala Durangoko Azokara eraman eta gero, orain Bergaran egingo dute aurkezpena: "Zazpi lurraldeetan barrena bira txiki bat antolatu dugu. Bergaran ez dugu dokumentala proiektatuko. Uste dugu ez duela zentzu handirik jende gehienak ikusita daukalako. Dokumentalaren inguruan hitz egingo dugu eta ekitaldian bertsolari eta dantzariak ere izango ditugu".

Plazaola eta Zubimendi bertan

Bergarako aurkezpen ekitaldian, gainera, dokumentaleko protagonistetako bi izango dira: Aitziber Plazaola eta Mikel Zubimendi bergararrak. "Biak ere elkarrizketatu egin genituen dokumentalerako, eta, Bergarakoak direnez, aurkezpenean izango dira. Dokumentalean diotena bertatik bertara kontatuko dute. Uste dut horrek are interesgarriago egingo duela ekitaldia".

Esan bezala, urtarrilaren 18an, egubakoitza, izango da aurkezpen ekitaldia, 20:00etan, Zabalotegi aretoan.

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Oñati garaile

Epailearen peluka azpitik ikusi nuen Oñatiko Tobera, Inuzente Egunean. Barru-barrutik, beraz. Eta eroso, On Prudentziori baizegokion egun horretan lan egitea, ez niri.

Barrutik ikusita, ederra izan zen Tobera. Iazkoaren aldean mugitua, elkarrizketa eta tiki-taka ugarirekin. Hasieran kezkatu egin nintzen, antzezleak motz geratuko ziren beldurrez. OnPru bera oso ondo ezagutzen dut eta badakit non dauden bere mugak. Baina gauzak txukun joan ziren eta antzezle oso onak ere bazeuden tartean.

Egia da formatuak eskatzen zituela elkarrizketa arinak, eta topiko ia guztiak erabili zirela gidoian. Agian testuek ez zuten iazko sendotasunik, han ideia gehiago zegoen, hizkera jasoagoa. Baina jendearen barreek eta txaloek argi erakusten dute hori dela bidea.

Tobera egonkortu egin da. Lehena izan zitekeen txiripa, bigarrenak erakutsi du ezetz. Ondo zaindu beharko da bide luzea egin dezan, arriskuak saihestuz.

Eta azken epaiaz bi hitz. OnPru oso legala da eta gidoiak zioena bota zuen. Baina ikusita pilotalekua beteta eta oinatiarrek erakutsi zuten aldartea –taula gainean eta harmailetan– argi daukat: Oñati irten zen Toberan garaile.